



ELSKAL-GAZTEDIA KULTURAREN BIDEETAN

AURKIBIDEA

Ederra eta gu.....	a. albizuri.....	1
Levy Strauss-ek Unamuno-rengana.....	igara	6
"Els altres catalans".....	j. a. letamendia.....	16
Elkarrizketa. Kamiñazpiri erantzuten.....	tx.	21
"H" letrari buruz galdezka.....	J. azurmendi.....	25
Axmutil-i erantzun-agiria.....	aldapeko	28
Euskal liburu ta diskuen azoka, Durangon.....	joan mari torrealday.....	34
Jainkoaren billa (leturia ta txillardegi).....	jose azurmendi.....	38
Argiaz zerbait.....	osiranzu	47
Sozialismua ta agintaritza.....	x. mendiguren.....	51
Liburu berriak.....	zuzendaritzak	59
Apartheid politika. Ego-Afrikan.....	joan mari torrealday.....	60
Nik bizi nuen alkoholismua.....	ñaki albisu.....	75
Barzelonako Unibersidadean. Unibersitarioak diote	joseba intxausti.....	84

SAL-NEURRIA

urtokoa:	Españi-an	60 pta.
	Atzerrian	80 pta.
alea:	Españi-an	20 pta.
	Atzerrian	27 pta.

ARGAZKIA: SATELITE 58-791

Reynolds Metals Company-k Sheffield-en (Alabama) duen fabrikako tekniko bat Jupiter C. Satelitearen lenengo zatia azterkatzen ari dan momentua artzen du erretratuak.

Fakin

20'gna Arantzazu

III

1965

Ederra

eta

gu

a. albizuri

Ez gaude bakarrik, mundu bat bai dugu inguruan, kaiola barru dagoen txoriak burni-sarea duen bezelatsu: atze-aurre, ezker-eskoi, goi-bean gauza asko dauzkagu gu ertsi ta estuazi naian. Gure bost zentzukiak: kanpotikoak noski, urrutiago egaz egingo lukete, baiña birako gauzak ez diete uzten. Eta mundu orrek atzaparka dagigula dirudi bost zentzuki oietan; edo obeki, gure bost zentzunak mundu orren ezkutua argitaratu naiean dabilta. Mendi erpifa dakusgu begiz, urretxindorraren txinta-soifua belarriz artzen dugu, sudurrez ja-

sotzen dugu arrosaren usaia, aoz txastatu oi dugu sagarraren gozoa ta eskuz ukutzen miesa leunaren biguntasuna.

Gauza guzti auek —nork ukatu?— zartada bat, zirrara bat ezarten digute zentzunetan. Gu konturaten gera zartada orrekin, eta orreri esan oi diogu zentzukien zirrara artzea, gogora ekartzea, ots, gogarpena. Gauzakia eder ba'zai-gu, gogarpena ere atsegingarri; eta, alderantziz, gogait ba'daragigu, gogarren ori etzaigu begiko, zatar likifa baizik. Eta, ondorioz, orrelaxe gauzakiak gure zentzueri da-

ragioten ats goxo edo goxo-ezetik eman oi dugu ederraren iritzia.

Iritzi emate au, argi dago, giza-kiari dagokio; abereak ez dute, adimenduak bezela, ederra jaso ta orretaz iritzia edo epaipena azaltzerik; au errazoiaren lana baita, ta abere-piztiak eztira doe orren jabe. Abereak ere, jakifia, ba-dituzte zentzuak ikusteko, entzuteko ta abar; baiña ikusten dituzten gauzak eta entzuten dituzten soifua ez diete ezer esaten. Aientzat ez dira gauzak ez eder ez itsusi; bai, ordea, izugarri ta oifazkor.

Abereak eztira gauza ederra artzeko. Gizonari ere, egia esan, ez dio ematen gesu bateko eder-zauskadarik ukutzeak naiz usaintzeak naiz txastatzeak; almen auek oso bee-maillan daudelako, eztira ortaraiño irixten. Gizonak ba-ditu, orraitio, beste bi zentzu oso goragokoak, ikusmena ta entzumena, ta auek bai ematen diote, ta sarrri eman ere, ederraren sena. Goazen Gorbei ganera; iraul begiak eta ikusi. Ikuskizun ederragorik! Or lauki ori; Zulo aga-rena duzu; ez dizu ezer esaten? Bai ederki gozatzen dizkigula belarriak Guridiren **Amaya**'k edo Azkue zanaren **Urlo**'k! Jaki ta usaikiari, oparo ta gozoa izan arren, ez diegu ifioiz eder diranik esaten; begiak dakusena ta belarriak dantzutena, ordea, ederra dala aitortu oi dugu.

Oneri jardunik, jakitunak bitan bereizten dute ederra: **aldekoa** ta **aldikoa**. **Aldekoak** edo tokian dau-

denak, azaltzeko leku bat bear dutenak dira, adibidez, **Iratertia** (Arkitektura), **Tailluertia** (Eskultura) ta **Margo-ertia** (Pintura); eta **aldikoak** edo entzumenari dagozkionak. **Musikea** ta **Elertia** (Literatura). Lenengo irurak, eusgarri bezela, tokia bear dute izateko, eta gala bere iru neurritan zabal, sakon ta luze; beste biak, berriz, soifua dute batez ere edergai. Lenbiziko iruren ederra izadiko ikuskizun baten, arri landu baten naiz kolorezko lauki baten idoro genezake; azken biona, ostera, ereserki edo sinfoni batek naiz olerki garai batek damaigu.

Dakigunez, bitarikoa izan ditek ederra: barrukoa ta kanpokoa; au da, norberak artzen duna ta gauzakiak berak beregan duena. Bi alderdi auetatik begiratu dezakegu, beraz. Eta lenen-lenen, galdera aueri erantzun bear zale: Au atsegin ote zait? Eta zergatik? Garai'ko seme argi Balentin Zubiaurre'ren lauki bat daukat begipean. Zer diñosta beronek? Zer dala-ta zait atsegin? Ederra auxe da izan ere, ikusiz edo gogartuz atsegifia dakarkiguna, begiralearen barrena nolabait lilluratzen diguna. Begiak naiz belarriak erakartzen ez dituna, ezin esan ederra danik ifiolaz ere. Ederraren izamenerako bearbearra da barne-atsegin ta lillura au; onakorik sortzen ez baldin ba-du, ezin genezake au edo bestea ederra danik aitortu.

Arlo au, ala ere, ezta zoztor ga-

bea. Aosapai berdina ez dugu guztiok, ezta jakituri berbera ere: onek kultura geiago du, arek gutxiago. Ederraren lits eta alderdi guztiak miretsi ta aztertzean, asko esan nai du berdin ez izate onek. Bestetik guztiok ez dugu era berdinez ederraren muina sakontzen, ezta ertzak artzen: neri atsegina zaidana zuri etzaizu gogoko. Emen koska! Ortaz gainera gure barrugiroak ere eztu gutxi esan nai: gaur eder zaidana, biar motz eta itsusi ematen dit. Ez al zaizu ifoiz gertatu zeure lan bat, olerki bat esaterako, lenbiziko irakurtaldian ederra iduritu arren, urrango irakurtaldian lan bera fimiño ta bixlegia iduritzea? Aibat lan gogo beroz egindako puskatu ere egin ditugu. Len eder zaitzaidan, orain ez. Gu bai aldakor!

Norbere adina ere berea du. Txikitan maite nuena, urteak urte etzait gogoko: beste aosapai bat dut orain. Zar ta gazteen artean, edozein zelaitan, izkeran, irakurgaietan, jazkeran, ibilkeran, pentsakeran, liskar andia darabilgu gaur: zarrak beren aldetik eraman nai dituzte gazteak, eta auek aien gus-toa ez dutelako, ez dabilta aien lorratzez, beren bide barriz baizik. Denok ikusi ta ikasia dugu: maitagarrrien ipuizale gifañ amar urtekin, adur-zale amabostekin eta gero kondaira irakurgaiak maiteago genituan. Burua soilzen asitakoan, ordea, liburu sakon zer-esan

ugaridunak opa ditugu. Adinañak badu bai bere zera auzi onetan.

Baita bizi-giroa ere gogoan eduki bear da, ederra epaitzerakoan. Leku guztietan ez gera iritzi ta pentsakera batekoak; enderri batetik bestera, gizarte batetik bestera alde andia dago. Emen eder dana, an ezta orrela. Zergatik au? Kultura ezberdin ta inguruko giroak dago geienbat. Lurralde bakoitzak ditu bere ekanduak; sorkaldean ederra dana, adibidez, sarkaldean ezta eder: Europa'n naiz Txina'n ezta gauzea berdin. Erri kultura gabeari maiz atsegin zaio edozein irakurgai, edozein dantzaera, edozein jazkera baldar; gogo leun ta landuari, ordea, ez orrek ezertxo ere arrotzen. Errien giro ta ekanduak, ots, kulturak dago au.

Eta noizak edo garaiak zer? Ba ote du eder-arloan zer ikusirik? Ederra eztugu, ez, berdin estimatzen aldi orotan. Gaurkotasuna bera irazekoa dala esan bear; aitortu dugunez, txit aldakorrak bai gera; orrela literaturan, margo-lanetan, jazkeran, dantzetan, ziflean. Era berriak sartuaz illunpean gelditu dira lengo mendeetako jazkera, idazkera ta abar; gizaldi erdi maikoa da askotan tankera bat osoan aldatzeko; modak, ordea, epe laburreko bizitza dute. Noizarte iraungo ote du gurean ere oraintsu sartu dan twist orrek? Edo-ta euskal idazleen arteko mordollo nastek? Kondairan, egia, beuren zer-

bait utziko dute, baiña ez dute luzaroko bizitzarik izango. Orain-goak gusto bat dugu, gerokoak beste bat izango. Alaz ere ba-dira era ta tankera batzuek urteetan eta gizaldietan iraupena dutenak. Klasiskoa deitzen diogu tankera iraunkor oneri.

Beste aldetik, giza-estimatzeko orrez gaitzera, beste zerbait ikusi bear dugu ederraren baitan. Gauzakiak berak du berezko zer bat gauzea eder egiten duena; bere doe edo ekai berezia, gauza bat berez nik ortan ezer ikusi ta oartu ez arren, eder baita. Or arrosa-buru bat, ortzia, itxasoa, mendi-kukutza. Oiek, naiz-ta meri ezer esan ez, berez ditugu eder. Zeintzuk dira gauzak eder biurtzen dituzten berezigarriok? Neurria, dirdaia, osotasuna. Auek dira, aspaldiko jakinlarien esanez, gauzaki bat edertzen duten ekaiak.

Zer bete bat, osotua ta amaitua danean, guk zer orren bikaintasuna aintzat artzen jakin ez arren, berez zaigu ederra. Bat, oso ta amaitua danean, bada, era ta atal guztien kidetasuna naitaez euki bear dau. Ortik jaiki oi da gero guztizko dizditza, dena txukun ta lerdan jartzen dun ederraren azken igurtzi joria. Aldi guzietako jakintsuak au ta bestea esan dute ederrari buruz, baiña aitaturiko gauza auek gabe ez dago ederrik. Plotin'entzat egiaren dirdaia zan ederra, amazortzigarren gizaldiko

Hegel'entzat gogapenaren adierazte sentikorra. Naiz gerkar jakinlarien iritziak naiz geroagokoena —ederrari buruz, alegia— ezin dezakegu esan bat ez datoztenik: denok aitortzen bai dute, gauzakiak eder izateko, bat eta oso izan bear duela.

Ortarako, gaitzera, arau ta legeak jarri zituzten, Aristotel'ek Grezia'n eta Horati'k Erroma'n. Arrezkeroko literatura guzia edu ortan moldatua degu, arau ta lege oien esi barruan. Geroago, ordea, Erdi-Aroan bereziki, arbiatu ta saiets laga zituzten lege-arauok; XV'garren mendean asitako Pizkundeak berriz zuzpertz zitun, lege auen bearrizana naitaezkotzat jarririk. XVIII'garren gizaldiaren azkenerruntz, ordea, erromantiku-igiera sortu ta bazterrik bazter barreiatu zanean, ostera ere zokora jaurti zituzten legeok: idurimena ta biotz-ondoa azke ibilli bearrak ziran, arrano egalaria iduri, ta aiek lotuko lituzken zoztor-lokarririk ezin zezakean ifundik ere jarri. Lessing doixtar jakinlariak edatu zitun iritzi auek beste iforok ez bezela; etzun arentzat deusik balio antze-arau guziak beterik ederki osoturiko lan batek, indar adierazgarri ta biotz-zauskada gabeko baldin ba'zan.

Gaur egunean ere badu onek bere egia. Oraingo jakinlariak diotenez, ederra sortzen duna auxe omen da bakar-bakarrik: indar

adierazgarria, ezarian barrua iraultzen digun gogai bat, biotz-ikutu bat bialtzen duen barne indar berezia. Izan ere, olako zerbait bear da erti-lanetan, olertian bereziki. Poesi bat irakurtzean, onek zeozer guri esatea nai dugu; adimen ta biotz geran ezkeru, izan dezala irakurtzen degunak, ikusten degunak naiz entzuten degunak adimenean edo biotzean guri zerbait sortzeko aña indar ta adore.

Eta, azkenez, gu euskaldunok nola gabiltza ontan? Bide okerrez ez beintzat, nere ustetan. Aurtengo

olerti-jaian (1) Jon San Martin'ek bete-beteko itzaldia egin zigun, "O-lertiaren jantzia nundik sortzen dan" gaitzak arturik. Jantzi ori ezta sortzen azalaren ederretik, muifiaren goitasunetik baiño. Azaleko neurri ta apaintasuna ez dira ezetsi bear; baiña oneri geiegi lotu ezkeru, olerkiaren barne-indarrari kalte egiten dio. Olerkiak esan beza zerbait, gure adimena ta biotza iraulirik; kezka bat sor beza, olerkariarena noski, gure barruan. Labur: olerkia muin ta azal jator jazten saiatzen danaren lanak izango du, ziur asko, iraupenik luzeena.

(1)1964'ean egindako lana da honako hau. (Z.-o).

LEVY STRAUSS-ek

UNAMUNO-rengana

“Ba dira gure artean, bere konbentuetako ikaskizunetan existenzialismoa azkenengo filosofi-bolada bezela ikasten duela ta, gaurko gizona larritasunez, angustia eta ezin-egonaren pean bizi dela uste dutenak. Baiñan egia oso besterik da. Gaurko gizonak ez du larritasunik sentitzen, ez du tragedia ezagutzen. Bearbada mundua mundu danetik ez da gizona paradisutik ain urbil sentitu. Ba dirudi Sisifo’k azkenengo aldiz aldapa gaindu duela, ez dela aurrerakoan eroriko”.

Mikel Lasa’k, 115 gn. Z. Argian.

Iritziaren pisua!

Etsistentzialismoa, hasierako hitz horietan ageri denez, ez litzake gure munduaren sillu edo ezagugarri... estalgarri eta nahaspide baikik! Egia ote?

Ez, nere ustez. Lasa adiskidea-ren izkribuak gototik irakurri ohi

igara

ditut: luma gazteen artean, berea zait trebeenetako bat. Bere ideiarik gehienak ere, eskuarki onar nitzake.

Goiko puntu hortan, ordea, ezin natorke bat.

Gure mendea, nere ustez, barneasalduz eta bihotz-larritasunez itto-ta dago. Nabarmen agertu da hau oraingo filosofian, literaturan eta artean. Heidegger, Kafka eta Picasso ez dira ustekabeen bateratu, aria sakonik gabe: funtsezko zerbaiten esale jator eta egiazko izan diran neurrian dirudite alkar. Sustraietan daude alkar-harturik.

Egia esan —eta hau Lasa'k berak garbi lizaiguke ongienik bere iritzia xehero argituz— artikulua-ren egilleak berak ez du zin-zifnez esandakoa sifnesten. Eta, hasierakoa legundu nahiz edo, hunela mintzo da aitzifnago: "**Itxurarik gabeko euforia honetan guk ez dugu sifnistu nai**".

Bego hortan gaurkoz.

Zeren-eta ba dago "amerikar" irribarre zozoaren mitoa. Irribarre geldo eta tentela, ba dakigu zein. Dentifrikoen eta telebistaren irudietan agertu ohi da usu: kolorezko aldizkari batzuk ikusita, zalan-tza sar diteke. Irribarre hortara biltzen bide da zoriona, helburua, zerua eta gaurko gizonaren kakoa bera: baso bana eskuan, ximenki jantzirik, alkarri irribarre goxoan... Paradisua eta Coca-Cola edatea gauza bera. Baietz!

Dentifrikoaren eta Coca-Colaren

giro xuri eta xeru hortan, etsistentzialismoa gerra ondoko "erikeria" zoro, funsgabe eta bizartsu baten pare kontsidera diteke. Komunista likits bat litzake Sartre, Jaspers "crypto" bat, eta abar. Dakun munstro-eli bat...

Nola conpreni, ordea, gure gizartean gero eta ero gehiago izatea? Estadistikak aztertzea besterik ez dago: gero eta burutik egindako gehiago, gero eta adimenduz ero ugariago. Ez da hau gizartearen oreka irribarretsu horren alde min-tzo...

Gure mendeko jendea egarri da, barneko pakea behin ere baiño galduago du; eta hauxe adierazten digute batera bai Artearen eta bai Zientziaren beraren joerek.

Barne-asaldu horren emagarria erlijioa baita, biek eman dezateke fenomenuaren neurria.

Munduarekiko etsipenak, norarik gabeko zorabioak oro, eta herio hortan hozitu ohi dan absolutuaren kezkek, ordea, axaleko itxurak zenbait aldiz besterik gogorazi arren, gure mendean eta gure gizartean larridura kosmikoak bizi-bizirik eta zindo baiño zindiago dirauela erakusten dute.

Entzun dezagun Jung psikanalista, esate baterako:

"Arimaren muifiaren azterketak, azalean pentsatu ere ezin zitekean gauza anitz dakar argitara. Hori dala-ta, ez da batere harritzekoa, in-

dartsuenik eta berezkoenik izpituaren erlijiozko ekiera kausitzea. Egungo gizonarengan ekiera hori baita nagusi, eta sexotasunarena edo gizarte-jokabidearena baiño aisa finkatuago”.

Zinemak eta literatura ikusiaz, ez genuke guk horrelakorik esango.

Positibismotik eta arrazoin-bide hotzetatik aldegin nahi bizi hori, beste mailla batzutan ere agertzen da. Arrazoifia omen da gidari gure mendeko gizartean; baiñan hau ez da egia. Galdegin dezagun zein liburu irakurtzen dan gehienik, edo zein astekari gehienik saltzen, edota zenbat aldizkari argitaratzen dan astrologiaz eta “jakintza izkutuez”. Txundituta geldituko gifiñake! Xehetasun bakar bat hemen aipatu nahirik, bijoa hau: Paris'en baka-rrik, 1935-ean, 3.460 astrologia-bulegoren berri zeukan Seine'ko Prefeturak... Gehiago bazegokeala esan beharrik ez.

Beste zerbait behar du jendeak bihotz-bihotzez. Eta ahal duen guztietara lehiatzen da.

* * *

Gaurko soziolojia eta psikolojia urrundik bederen jarraitzen dituztenak, ez dira albiste horietaz mendrenik ere harrituko. Zientziak berak dionez gizona ez baita gure soziedadeetan zipitzik aldatu; eta jakintsu guziek onartua baita gaur gizonak bi pentsaera-hildo dituela betidanik: “arkaiko” deritzana eta “positiboa”.

Mende huntan Zientzian eta Filosofian berriera eta aldakuntza

juntsezko batzuk gertatu dira: Einstein, Heisenberg, Freud, Husserl, Heidegger, Teilhard de Chardin.

Baiña beste jakintza-sail batean ere, orain arte gutxiago eza-gutzen dan beste aldakuntza sakon eta oiñarrizko bat hasi da. Ez, nik uste, gorago aipatutako horiek ekarri dutena baiña apalago halere.

Larriz, Lévy-Bruhl'ek eman zion abiada pentsakera-bideen azterketa horri; eta Jung'ek, Eliade'k eta Lévy-Strauss'ek ekin diote gero.

Erreboluzio hori soziologiaren eta psikologiaren mugan gertatzen ari da; eta gizonari buruz ekar ditzakean ondoreak ez dira oraindik guztiz garbiki agertu. Urratu berriak dira bideak; eta pentsatzaille horien liburuen salera errezak erakusten du ongi, jende ikasien interesa eskualde horietan dagoela egun.

Freud'ek eta Lévy-Bruhl'ek, sentidu batera bederen, gai berbera ausnartu zuten: psikologiaren bideetatik lehenengoak, etnologiaren eta tik bigarrenak. Geroztik, ez pentsatzailleak berak edo beren teorian, bistan da; baiña bai jakintza-orua berriak, loturik agertu ohi dira maiz. Eta Jung, esate baterako, etnologoa eta psikologoa izan zan batera; eta bi maillean jokatzeko eskatu zien bere jarraitzailei.

LEVY-BRUHL-en IRITZIA

Zertan datza Lévy-Bruhl'en pentsaera-astindua?
Huntantxe: gizonak bi eratara "Pentsatzen" du.

Gizonak zientziaren arabera pentsa dezake, enpirismoari hertsiki lotua; baiña, betidanik ere (eta gaurtxe ere bai geure artean, kasu!) pentsakera arkaikoaren arabera pentsa dezake: enpirismo-mota guzietatik at, bere baitatik intuizioz gauzei erasten dien sentidu baten arabera, mitoren bidez, "partizipazioz".

Pentsakera arkaikoak (guziok: melanesiatarrek eta geuk europarrok dugunak, berriz diot) ez ditu

subjetiboa eta objetiboa berezten: "dalakoan" "dalako" egiten du, adimendutik eta sendimendutik datozkion burutazioak parean ezartzen.

Pentsakera positiboak, aldiz, berezi egiten ditu. Eta berezte hauxe da pentsakera positiboaren ezagugarri nagusia: sendimenaren nahikundeak hozki alde bat utzi, eta adimenak garbiki ulertarazten dionaz kanpo deus ere ez entzutea.

Pentsakera arkaikoak bihotzaren arabera aztertuz, kasik bihozkadaz jokatur, sentidu bat agerrarazten du munduan eta bizian: mundua mundu dan ezkeroztik, azalpen guztizko baten egarriak hilduratu du gizona; hortan egon da erlijioen eta mitologia-guzien kakoa: adimenduak atxeman ezin dezakean ulerbidea eman, lojikatik landa emanik ere.

Pentsakera positiboak, aldiz, ez-entzuna egiten die bihotzaren dei guziei; eta, hotz eta latz, froga ditekaneanari haizik ez dio begiratzen.

Pentsakera arkaikoa, bizi eta nortu egiten dan mistikaz elikatzen da, mistikari dagokiona da bere funtsezko izaera; pentsakera positiboa, berriz, beti arrotz egoten dan ideiaz, eta ulertu haizik egiten ez dan zientziaz. Zientzian ez dago nortzerik, ez dago "partizipazio"-rik, ez dago parte hartzerik. Ez dago mistikazko hartu-emanik. Mistikan ez dago silojismorik.

Lévy-Bruhl'ek herri atzeratueta xoilki aurkitu uste zuen pentsakera arkaiko hori, hastapenetan batez ere: Australian, Tasmanian eta Melanesian. Eta geure gizartean bakarrik bigarrena; hau da: pentsakera positiboa. Lehendabiziko bere ustea izan zan ezen bi pentsakera diferente daudela: sendimenaren arabera eta lojikagabea bata, herri atzeratueta oraindik ere atxeman uste zuena; eta lojika hotzaren arabera bestea, batez ere herri zibilizatueta mamitu dana.

Iritzi hau oso larria zan. Zer esan nahi zuen biketa horrek? Pentsakera arkaiko hori mundu aurreratueta itzaldtu egin dala? Bi giza-mota al daude, beraz? Bi pentsa-bide, ote? Bi gizadi, hortaz, eta ez

bakar bat? Dana ote da, pentsakeraz, fase-kontua? Mitoak, erlijioak, eta metafisika bera, arkaismo huts bat baizik ez dira funtsean?

Ez dut artikulu labur huntan azalduko Lévy-Bruhl'en ganbiamendu eta billakaera guzia. Aski izan bedi bere azken iritzia: "gizonaren izpirituaren lojika-moldea edo estruktura, bat eta berdina da leku guzietan eta ezagutzen ditugun gizarte guzietan".

Nahiz-eta pentsakera arkaikoa eta pentsakera positiboa oso diferenteak izan, Lévy-Bruhl' ek ez zuen azkenean onartu sustraiezko bitasunik batere; gero eta garbiago errepararazteko: bi ezagupide, bi pentsakera, bi pentsa-bide dituela gizonak, egia hutsa da; eta positiboa herriki baizik ez dala hasi gizadian ideien iturri eta galbaitzat ere, egia haundia. Baiña pentsakera arkaikoa, mitoak eta erlijioak sortu dituen (eta bein batean Artea elikatzen duena ere) ez da ez itzaldtu eta ez iraungitzen hasi ere gure gizarte modernoetan. Hain zuzen ere, pentsakera arkaiko edo mito-egille horixe dugu gaur gizonaren pentsakeraren kuntzarik irmoena.

LEVY-STRAUSS-en IRITZIA

Etnologoen artean Lévy-Strauss dugu dudarik gabe gaur aipatuena eta sonatuena. Estrukturalismoaren azterbideak eta aurkikundeak gero eta harri-garriago dira. Etnologia —eta gizonari buruzko filosofia, sahetsetik— dardaratzen hasia da.

Zer dio Lévy-Strauss'ek pentsakera arkaiko hortaz? Bere iritzia jakingarria da.

Lévy-Bruhl'engandik beste muturreraino doala esan ditek... Baiña, berbera goragotik esateko!

Pentsakera arkaiko bat ba dago, dio; baiña gizon arkaikorik ez. "Arkaismoaren lillura" salatzen du Lévy-Bruhl'engan. Alegia: zibilizazioan eta zibilizaziotik at, herri atzeratuetan eta herri aurreratuetan,

gizona beti da bat, beti berbera; eta pentsakera arkalkoa beti ari danetan.

Are gehiago. Itxura diferentetan, eta jazkera desberdinetan, sozioloji-giro bestelakotan, gizonak beti eman die bere barne-katramillei soluzio-multzo bakar bat, aldaketa gutxirekin.

Benetan diferenterik eta harrigarririk, gizonak ez du gauza haundirik asmatu. Azalpenen barne-moldea edo estruktura aztertu ezkeru (alkarrekin azalpen guziak hartuz, eta ez banaka edo bakarka) funtsezko azalpen-estruktura bakan batzuk daudela kausitzen da. Mitolojian estruktura eredu batzuk atxeman ditezke; ez milla. Ez problemak bakarrik, beraz. Soluzioak ere gutxi dira. Pentsakera arkalkoak beti ikusi uste izan du gauza bera mundua azaltzekotan.

Zibilizazio guzietan (zibilizazio "hotzetan" eta zibilizazio "beroetan", gizonaren ekintzaren balioan sifisten ez duten eta sifisten duten zibilizazioetan, beraz) mito-multzo eta sifiste-sistema berberak erreparatzen dira. Estruktura bera behin eta berriz ematen da, anitz koloretan diximulaturik.

Barka bekit Jung'en hitz bat erabiltzea Lévy-Strauss'en teoria agerrarazi nahi huntan: gizadiak, gizonak, beren inkonzientean izkutaturik daramaten "arketipo" bat jantziz eratu dituzte betidanik munduaren funtsezko teoriak.

Zein da, horiek horrela, gizonaren jokabidea, edo ihardukiera hobeki, gure arrazionalismoaren aurrean?

Arrazionalismoak, jakiña da, ez du enpirismotik at datorrenik ezer aintzakotzat hartu nahi. Iku ezin ditekeana, begiez edo fotografia-tresnez ikus ezin ditekeana, nolapait bederen zentzuen bidez adi ezin ditekeana, izan ez da. Ez dago arimarik, beraz, ez dago Jainkoa, ez dago metafisikaririk. XIX-gn. mendea positibista izan zan; eta XX-gna. ere ez oso bestelako.

Arrazionalismoak ukatu egiten du arras pentsakera arkaikoa-
ren jokabidea; planoak bera ukatzen du. Erliñoak eta mitoak mailla
berean jartzen ditu, berdin jotzen otoiña eta majia, metafisika eta
zentauroen siñistea, Ozeania'ko "mâna" eta kristauen grazia: danak
zaku berean ezartzen, danak aditu-eziñak, ezin neurtuzkoak, eta ezin
frogatzekoak zaizkiolako. Mito dira beraz; ipui, alegia huts eta alfer.
Hitz batez: arrazionalismoak pentsakera arkaikoa bera ukatzen du,
"gizonarengan dagoen gauzarik aldakaitzena" (Lévy-Bruhl).

Hori obratu dan momentutik beretik, gizonaren pentsakera ar-
kaikoa, betiereko habe nagusi eta jakinbide izan bada ere, ukatua eta
baztertua izan da. Eta, ezin bestean, arrazionalismo horren kontra,
bihotzaren eta erraien muiñetatik datorren ugolde baten antzo, etsis-
tentialismoa altxatu da gizon osoaren laguntzan, mehatxuz eta dei-
hadarrez.

Etsistentzialismoa ez da kasketa bat. Etsistentzialismoa ez da,
hain zuzen, sekulan suntsituko. Pentsakera positiboaren ukoa baita
etsistentzialismoa, eta pentsakera arkaikoa abotsa. Comte eta
Kierkegaard, Russell eta Unamuno, alkarren ukatzaile dira. Eta ho-
rrelako antipoda-bikoteak, arrazionalismoa azkartu ala, behin eta
berriz sortuko dira. Gizonaren bi pentsakeren haurride baitira.

*Pentsakera positiboaren hedadurak
bi irteera utzi dizkigu.*

Batzuen ustez, munduaren funtsez-
ko sentidua ez dugu guk gaurkoz
ezagutzen. Baiña pentsakera arkai-
koaren jakinbidea —mitoen bidez
munduko kontradizioak ezeztaraztea—
sustraiez dute arbuigarri. Iguriki
egin behar dugu, diote. Gaur ez du-
gu konprenitzen. Zientziak aurreratu-
ala ulertuko dugu. Egon eta itxaron:

horra leloa. Ez dute halakoek problema ukatzen, mitozko soluzioa baikik. Marxisten teoriko dan Roger Garaudy'k eta marxista batere ez dan Bertrand Russell'ek, esate baterako, ia hitz berberak lerabilzkikete puntu hau adierazteko.

Baiñan etnologoei, psikologoei eta soziologoei kasu egin ezkeru, "oraingozko" itsualdi hori ezin ditek egiazko soluzio bat izan; gizonaren pentsakerarik sakonena ukatzen duelako.

Beste batzuen ustez, ordea, munduak ez du sentidurik: ez guk diogu kausitzen, eta ez bestek ere etorkizunean. Sentidurik ez baitu. Gu gizonok deserriturik gaude galaxietako errauts-ale galdu batetan. Izar-tegi osoa lokamuts hutsa da. Ezerk ez du sentidurik... Eta oihuka ditugu hortantsu Kierkegaard, Heidegger, Sartre eta Kafka.

Bigarren ikusera hunek uzten dituen larridurak, ezin-egonak eta barne-egarriak, lojikari uko, eta pentsakera arkaikoaren intuizioetara eta jakintza-bideetara eramaten dute. Hasiak dira eramaten!

Hortan gera nik uste, Lasa adiskidea.

Parabisutik hurbil? Ez dut uste.

Bere buruaren kontra ari da gizona. Eta, horregatik, bihotzean hiltzaturik darama, behin ere baiño mingarriago, gizatar kezka ezpata zortza.

Aurten betetzen ditu JAKIN-ek amar urte, jaio zaneetik. Berandu gogoratu baldin bagiañan ere, halere ospatu egin nahi genuke epe hori. Ta aldiz-ateko zenbaki bat argitaratuko dugu ortarako. Saiatuko gera interesgarria gerta dakizuen.

Liburu bat

Ordua da, funtsezko lana egitekotan, iturburuak eta zergatiak serioски billatzen hasteko. Lan egin baiño lehen azterketa behar dugu, beldin itsu-mustuan jarduterik ez ba-dugu nahi. Jartoa zuzendu ahal izateko, nun dagoen jakin behar lehendabizi. Ikusi, aztertu, zuzendu.

Guk ere gure Herriaren bizitza hobea gotu, jatortu nahi dugu. Hortarako azterketaren beharra daukagu.

Dela urtebete, liburu bat izan zen emana argitara. "Hernani 1962" zuen izena. Lan baliosa, benetan, bi lagun haiek egin zigutena. Holakoak sarriago egingo ba-genitu, beste eguzki batek berotuko ginduzke. Behar-beharrezko zaizkigu alegin eta bermatze hoiek.

Baiñan gure etxean ez-ezik, badago beste eskualdetan nahiko gauza ja-kingarririk, guretzako probetxugarri.

Beste liburu bat

Eskual-Herria ta Catalunya zenbait gauzetan bestelakoak ba-dira ere, beste askotan kidekoak ditugu. Hango berri zeatzago izango ba-genu, elitzaziguke kaltegarri izango.

Francisco Candel nobelista ospetsuak liburu bat eskeiñi digu Catalunya-ri buruz, inmigrazioaz batez ere diardula.

Idazle hau 1925-garren urtean etorri zen mundura. Valencia'n. Handik bi urtera Barzelona'ko txaboletan bizitzera. 1956'garrenean bere lehenengo nobela erdi-tu zuen: "Hay una juventud que a-guarda". Baditu

"ELS ALTRES CATALANS"

Juan Antonio Letamendia

beste batzuek ere: "Donde la ciudad cambia de nombre", "Han mata-do a un hombre, han roto un paisaje", "Pueblo", "Dios, la que se armó!". Denetan aipatuena: "Els altres catalans".

Nahiko zarata ta zurrunbillo sortu omen zuen bere lehenengo nobelak. Ausarta bait-zen eta lotsabako. Bere estilua lau-laua da, kaleko argotaz ari

dela. Horra bere indarraren sekeretua. Bati baiño gehiago zabarra iruditu lekioko. Bere idaz-lanetan azaltzen den kezka eraginkorra hiri-inguruetako larria da: txabolak, barrakak, hango nahasi ta kiratsa. Benetazko pikareskan diardu. Bortizki harrotzen du hango errautsa ta ustela. Gizona maite duela-rik, bere alde jartzen da.

"Els altres catalans" delako hontan nobeletan baiño landuago idazten du, lehunago, ez hain gordiña. Halere liburu honek badu nobela kutsu haundi bat. Ez da soziografiaren moldetan tajutua izan. Reportaje bat dela esan genezake. Ez du lumerorik biltzen (behar-beharrezkoak bakarrik), gertaerak baizen, anekdotak. Erreza da leitzen horregatik, xamurra egosten.

Ados egon liteke berarekin edo ez. Ez izanda ere, merezi du irakurtzea, jakingarri bait-da guretzako, aberatsa, ideia ugari du probetxagarri.

han ere txakurrak ortosik

Inmigrazioa problema da Euskal-Herrian. Nun-nahi. Catalunya'n ikaragarria. Gaur egun Barzelonako probintziak 45.000 inmigrante hartzen omen ditu urtero. Gizakume hauek hemendik urte askotara, bizi direiño, hantxe jarraituko dute, Catalunya'n egongo dira. Egon, bai, izan, ordea? Ez bait-dera berdin egon eta izan. Egon di-teke Frantzia edo Alemania'n, baiñan frantzes edo alemana izan ga-be. Bereganatu ahal izango du Catalunya'k holako giza-ujolderik? Hortxe galdera!!

Han ere tensiñoak sortzen dira kanpoko ta bertakoen artean. Kopapillo berdifiak, ondorengo berdifiak. Han ere txakurrak ortosik.

Hangoak ere "coreano" esan ohi diete arrotzei. Aviles'en bezela,

Bilbo'n bezela. (Itxura denez, Turin eta Milan'en ere hitz berdifiak izendatzen dituzte Hego-Itali'tik datozenak: "coreano").

Baiñan katalanak "xanergo" hitzaz adierazten omen dituzte batez ere, kanpotiarrak.

Halere Candel'en iritzian bereizte hau raziala baiño gehiago soziala da. Hauen bizimodu ta jazkera egokiago izango ba-litz, eta ez hain pobre ta basa, beste geriza bat edirenen lukete Catalunya'n.

Han ere kaskoinak "Monserrat" ipintzen diete bere alabei. Hemen-go atzeritarrak "Begoña" edo "Koro" jarri ohi duten moduan.

Han ere industriak irentsi ditu "paysak", laborariak, lehengo katalan giro jatorra suntsituz.

suburbioa

Suburbioa (fifiago: faubourg) immigrantiak egiten dute. (Honen berri bilbotarrak donostiarrak baiño hobeki jakingo duzute). Arrotzak, datorrenean nun sartu ez dauka. Orduan bi lata herdoilduta hartu, kartoi bat galipotaz igurtzi ta badu aterperik. Kristau batzuek herbestera jotzen dute hobeto bizitzeko; hauek ez. Hauek bizi ahal izateko.

Candel yayoa da arrabalako, hiri baztarretako giroa adierazten. Horretxek eman dio duen izena.

andaluzia

Liburu hontan neri hunkigarrien gertatu zaidan atala, Andaluzia'ri dagokiona da.

Gizakume hauek bizibeharrak akulatuta behartuta ikusten dute heren burua goiakdera jotzera. Gorakoan lanik gogorrenak hauentzako gordetzen dira, diferenziak, arbuioak, gutxieste ta mesprezioak. Esklabuak direnez aukeratzetik ez daukate. Abereak bezela bizitzea dagokie bizileku mehar hertsitan, bata bestearen gainean elkar nahaste dorpean.

Hauxe izaten da Candel'en antzeslekua: Mixeria, beharra, eza, subproletarioak.

Jende hau beharrak bultzatuta alkartuago, solidariago bizi beharrean, mixeriaz beraz baliatzen dira urko laguna explotatzeko: bera baiño pobreagoa hondatuaz, eta argia dela edo ura dela usura ta lapurretan egifiaz.

Gertaera hauek bizi-bizi kontatzen ditu, bihurri ta piper eta gatzaz maneatzten dituala.

Ezjakifiak dira. Han eskolatzerik ez. Beti 15% bat paroan dago. Lanik ez. Ta urteko sasoi batzuetan, uztarik-ezean, baita 48% ere.

Herriaren gosez sefioritoak baliatzen dira lotsagabeki explotaturik. Gertatu izan da kortijoko ugazabak aitari lan egokiagoa eskeintzea bere alaba edo emaztearen truk, menpeko jostallu bezela hartzen duela bere grifien asetzeko. Gero emaztekiatz gogaikatzen deanean, bera eta langillea, biak kale-
ra. ("Historia triste bat"?)

Cadiz'en erdi-mallako langille batek 9.687 pezta jasotzen ditu urtean; Jaen'en 9.063, Sevilla'n 9.687...

Mateo'ren Ebanjelioan bezela, uzta garaian plazara joaten dira, jauntxoarekin, señoitoarekin tratuaren (alde bateko tratua) egiteko. Subasta bat izaten da baiñan beheraka. Batek bere buruagatik horrenbeste eskatzen da-du, besteak gutxiago, hurrengoak gutxiago ta hortara. Gizonak elkar sal-tzen ezin-bizikiak behartuta. Solidar-itza ona!!

Langillen bat apurtxo bat harrotzen baldin ba-da kontuak eska-

hizkuntza

Bere nobela batean esaten du, holako tokitan izaten den nahastekin, esperanto bat atera litekela Espaiñia guzira. Era guzitako arraiak han. Andaluzak, kazereñoak, gallegoak... Orduan han ere zillezkoa ezpa sortzen da: Eta katalanera zer? Bizi izango ote da hemendik urte batzuetara? Berak ez du erantzuten, baiñan problema agertzen du, planteatu egiten du berak, eta zenbait iritzi bildu ere bai.

Katalantasunaren azterketarako muga bat ipintzen du: gudatea. Guda baio lehen katu guztiak ikasten omen zuten katalanera. Gaur-

tzen, edo esaneko ez ba-da, kanpora bialdu ta kito!

Jana ere exkaxa da, hamasei urteko mutillak ozta-ozta hamabiko ematen duela.

Aukera bakarra daukate: edo ihes egin, herbesteratu, edo esaneko izan obeditu uztarpean, ixillik egon, jasan, mehatxuak pairatu, goseak hil...

Honerakoan, guk iskirioz iseka egiten diegu, etsaitzaz jotzen, Herriaren ito ta ehortzalle bezela. Zelako estualdi gorriak pasa behar izaten dituzten apurtxo batean ikusiko ba-genu, oso bestela jokatu-ko giñake beraienikiko, baldin bihotz izpi bat ba-gendu.

ko egunean Catalaunya aldetik bereganatze hau moteldu egin da.

Zenbait arrazoi ematen du berak. Gerra baiño lehen ayuntamenduko eskoletan katalana erakusten zen. Liburu ta idazti ugari zegon hortarako, txukun eta apain prestatua. Eta hau katalan jatorrak bizitzen ziren tokitan ez-ezik, kaxkoinen artean ere bai. Kanpotiarrak aukera ona zeukaten katalanera ikasteko. Era hortan ehunetik ehunek ikasi ahal zezaketean. Gaur horlako-rik ez. Kanpotarrak auzune osoak osatzen dituzte, bertakoekin ia-ia batere hartuemanik ez dutela. Ez dute katalanaren beharrik mugi

ahal izateko, ez hirian, ez inguruetan.

Halere katalanerak badu etorki-zunik. Asko argitaratzen da, asko leitzen. Katalanak bere hizkuntza maite du ta lagundu egiten du, gozoz eta diruz. Gure artean zenbaitzuk esaten dute katalanak pragmatikoak direla. Noski! Gure artea datozenak, etorri hortarako datozta... Sosaren billa... Han abertsak laguntzen dute, elkarteak, ifiolako firmak (Avecrem eta...) sariak eta dirua eskeintzen; eta ez nolana hiko sariak, gero.

Jendeak han katalaneraz diardu batere lotsarik gabe. Katalaneraz kalean, katalaneraz ofizinan, midikuarekin... Hoiiek argi daukate heren geroa. Hemendik urte askotara Catalunya Catalunya izango da.

Jendea goseak dagonean ez da gauza izaten bestelako kezkarik edukitzeko, ez kultura kezkarik, ez sozial kezkarik, ez politikarik. Baitan hasierako behar hori mendera orduko kanpotiarrak sustriaiak bota ditu, katalana egin da ta harrotu egiten da hortaz gañera.

*jarrai-
bide
imita-
garria*

Candel'en liburua —Els altres catalans— katalaneraz agertu zen. Berak erderaz egin ta beste batek itzuli.

Katalaneraz zegoelako, etzuela saltzerik izango agindu omen zion periodista batek. Haxe bai sasi igarle! Urtea bete baiño lehen sei argitaraldi izan zituen. Lehendabizikoa 1964'ko Martxoan, seigarrena 1965'ko Otsaillan. Atzenean erderaz, 1965'ko Apirillan. Gutxiago salduko ote zen erderazko edizio hau lehen katalaneraz argitaratua izanagatik? ("JAKIN"-en billeran oker entzun ez ba-nuen, uste dut 315.000 pezta atera zituela egilleak). Ez, noski. Ta horra nolako mesedea Verdaguer'en hizkuntzarentzako.

Guk ere Euskal-Herrian badifugu idazle asko lehen maillako. Lan hoietako bat egiten dutenean oker haundia al litzaieke lehenengo argitaraldia euskeraz ematea, ta geroxeago erderaz? Herak gauza ez ba-dira, beste edozeiñek euskeratu dezala. Ez lukete ezertxo ere galduko, euskerak, berriz, bai asko irabaziko.

Lan horrek mamirik ba-du, jendeak irakurriko du. Gaurko kezka agertzen ta egoki erabiltzen ba-ditu, naiz ta euskeraz egon, saldu egingo da. Gero herria ohituko da euskeraz leitzen ta gure hizkuntzaren geroa argi agertuko zaigu.

ELKARRIZKETA

tx.

"Kamifazpi" Jaunari.

Agur:

"JAKIN"-en 19-garren zenbakian Baiona'ko erabakiei buruz egiten dituzun oharrei, erantzun bat eman nahiko nieke. Nihaur bainintzan Bilzar hartako zuzendaria.

Euskeraren arlian sakonki aztertu behar dira gure esanak; eta xede hori gidaritzat harturik, eman genituen Baiona'ko erabakiak. Laffitte jaun kalonjea izan genuen buru, eta eztabaidak mailla gora batean egin ziran. Pozgarri benetan. Bestela, "Kamifazpi" maite hori, euskalzaleok beti farragarri geldituko gera, eta euskeraren egoerak zinki eta gogorki jokatzeari eskatzen du.

Ba dago besterik. Euskeraren gora-beherak (beharrik) gu baiño lehenago ere aztertuak izan dira. Euskerari buruz iritziak arinki emateak, lehenagoko lanak ezagutzen ez dirala erakusten du. Eta hori ez da jo-

kabide zifiekkoa. Nork esango luke gaur, esate baterako, ez duela uste Lurra borobilla danik?...

Euskerari buruz, hortara, ba ditugu euskalzaile xuxen batzuk. Eta nik gaur, hiru haundieneren iritziak aipatuko ditut hartutako erabakien alde.

Hau diozu zuk:

"Or emon daben legeetatik bat nire ustez oker dago: konsonantean amaitzen diran itzen araura deklinazioa artu biar dabela diptongoz amaitzen diran itzak... "Gaueko" itzaz esaten dana egia da. Baiña exepziño bat da ori; ta exepziñoakgaitik erderaz zer esaten dan danok dakigu... Diptongo berean amaitzen diran itzak ez dabe orrela deklinaziñorik artzen, bokalean amaitzen diranean deklinazioa baiño"...

Entzun dezagun Azkue-ren iritzia:

"471. LEY DECIMASEXTA.—La segunda vocal de los diptongos ai, ei, oi, au, eu; se considera por lo general como consonante para los efectos de la epéntesis vocálica; es decir, vocablos como mai, mesa, dei, llamamiento, loi, lodo, gau, noche... (y hay muy pocos más que se puedan citar) están comprendidos en las leyes 5, 6, etc. hasta la 12 inclusive" (leyes para los vocablos terminados en consonante).

("Morfología Vasca"; Azkue, 249-gn. horrialdean")

Iritzi berbera ematen du Laffitte'k ere:

“2—Les mots terminés par ai, ei, oi, ui, au, eu, ou et u sont en réalité des semi-consonnes. Ex.: zelalean, dans la Plaine”.

“Grammaire Basque”. Laffitte, 57-gn. horr.).

Bai batak eta bai besteak, halere, zenbait tokitan “e” hori gabe entzun ditezkeala ohar-arazten dute. Baiña “estao” entzun arren, “estado” idazten da...

* * *

Bigarren puntu batean ez zaude ados hango erabakiei buruz: “H”-ari buruz. Eta hau diozu:

“Izki ori jatorriz euskalduna da ala frantzeskeri bat? Erantzuna emon leiken añako jakintsuak ba dagoela euskal barrutian uste dugu”.

Erantzuna, halere, behin eta berriz emana izan da.

Orain dala lau urte Mitxelena'k 454 horrialdetako liburu eder bat argitaratu du: “Fonética Histórica Vasca”, Donostian inprimatua. “H”-ari buruz 203 gn.etik 225gn.era mintza da. Benetan “H”-aren hauzia garbi ikusi nahi duen euskalzaleak, horrialde horiek irakurtzea dauka.

Hunela dio:

“Se diría, en resumen, que H, un día común a todas las variedades de la lengua, se ha conservado hasta bastante tarde en la parte occidental del País (Alava, Rioja, Vizcaya); sin embargo, a pesar de algunas grafías de RS (Refranes y Sentencias) y otros textos vizcaínos antiguos como también de Lan. (Lan-ducci) no debía existir ya en el siglo XVI”.

(205-gn. horr.) Mitxelena-k.

Oraindik ere "H"-aren aztarna asko dago hegoaldeko euskalkietan. Liburu hortan berean ikus ditezke batzuk (ikus 88 gn. horrialdea).

Azkue'k berak, "H"-aren oso adiskide izan ez arren, hau dio bere Hiztegian:

"Lo que llevamos expuesto debe convencer-nos de que la H no es extraña a nuestra len-gua, como se pudiera creer a juzgar por los limites a que está reducida su influencia. Para convencernos aun más de ello, quede establecido que antiguamente debieron valerse de ella todos los vascos".

(Diccionario, 373-gn. horr.) Azkue-k

Gauza batek atzera gaitzake, edo hoz (eta Baiona'n kontuan hartu zam): ez dugula euskalzalea BILDURTU behar, ez baitaki askotan "H" horiek non diran. Baiña nere iritziz (eta Baiona'ko biltzarkideen iritziz ere):

Euskeraren batasunak "H" batzuk bederen onartzera behartzen gaitu: bai antziñako Li-teraturari diogun errespetuz, eta bai Iparralde-ko euskaldunek merezi dutenaz.

Tx.-k.

Españeraz ez dago horrelako arrazoifrik: eta halere "hombre" idazten duzu dudarik gabe... Iparraldeko euskaldunek, ordea, "handia" esaten dute, adibidez, eta ez "andia". "H" hori gor ez diran guziek entzuten dute. "Hombre"-rena aldiz nehor ez aspaldi huntan, eta nehun.

Besterik gabe gaurkoz, beti onez har itzatzu adiskide eta lankide gi-sara eman dizudan erantzun hau.

Agur t'erdi.

"H" *letrari buruz*

jose azurmendi.

galdezka

Ez duzute alferrik ipifi hor al-
dizkariaren azalean Askatasunaren
kanpai irudia ta nik ere eskua sar-
tu nahi dut **h** letra zorionekoaren
auzian. Letra bihurria dugu hau-
xe, dagoeneko Mitxelena-k "mada-
rikatu" ta Kamifazpi-k "bedeinka-
tu" (Mezaren akabera bezala, be-
deinkazioaren ostean kalera bidal-
tzeko bada ere) diguten ezkerro.

Alde batetik ez zait ongi iruditu
JAKIN-ek egindakoa. Alegia, ira-
kurleari beste arrazoi ezeren argi-
tasunik eman gabe onartu Baiona-
ko erabakiok, eta barruko idazle
denak behartu hoek betetzera. De-
mokrazia bidez hartua da erabaki
hau, noski. Azkeneko Biltzarrean
aurkeztu zen asmo hau (Baiona-koa
baifio egun batzuek lehenago, ain
zuzen) eta botoz ikusi zen egin
behar zena, geienak aldekoak iza-
ki. Eta ez zen boto itxua izan, Bai-
ona-n izan baiziran JAKIN-en orde-
zkoak, erabakiok onartzerik mere-

GERNIKA-tik

zi zuten hala ez begiratzeko. Baifia
irakurleari ez zaio eman ez guzti
honen zeatasunik ez eta **h**-ren alde
ekartzen diren arrazoi berririk.
Beraz, guk eman nahi izan ez ge-
nuen boto itxua eskatzen zaio ira-
kurleari, edo beintzat ez oso argia.

Hau alde batetik. Eta bestetik,
Baiona-ko biltzarreak ez zituen gau-
za denak argitu. Eta hau galde-
tu nahi nieke han egon zireneri edo
dakiteneri: nundik ikasi **h** behar
den moduan erabiltzen? Azkue-ren
Hiztegia aski dudala erantzun zait,

baifia ez da egia. Ez da egia beintzat hari segitzearekin aski dudala. Esate baterako Azkue-k **behin** esaten du, baifia **beingoan**, **bein bat**, etabar. **Ohi**, ta **ohitu** bai, baifia ez ohitura, oitura baizik, (**ohidura**, dakar Azkue-k). **Hala** ekarri arren **alabaña** dakar, eta **ala** bearrez, (eta bere lekuan **behar**), **alere**... **Hala** histza bera nola esaten da: **asi** esan nahi duenean argi dago **h**-rekin joateko dela, baifia "hau ala bestea" esatekoan ere bai? (Alegia, bi ertzetako bat ukatzera doanean). Eta amaika halakotan. (Amaika, baifia hameka, Azkue-rena).

JAKIN-en **h** sartzeko ez dut eragozpenik batere jarriko, hasieratik beretik (edo asiera?) asmo honen aldeko nintzanez. Irakurleak argitasunen batzuek merezi dituztela pentsatzen dut, halere. Ezin esango duzute orain lerro eskas batzuetan Baiona-n esango zen guztia, baifia zertxobait esateak ez luke gaitzik izango. Nola erabilli behar dugun ere, halaber, jakiteko gauza da, noski.

Bestetik, obe deritzat zuek egiten duzutena bokal berdiñen arteko ta bi adiera ezberdin ta ots bateko hitzen ez nahasteko bakarrik erabiltzeari baiño. Alegia, Baiona-n ipintzen zen lehenengo epeari salto egitea, ta lehenengo momentutik erabiltzeko **h** denekin ekitea ondo dagola uste dut, han emango ziren arrazoiak ezagun ez baditut ere.

Ez dut galdetzen zergatik da-

karzkien Azkue-k horrela. Nola erabilliko ditugun galdetzen dut.

H-ren kontrako arrazoirik geientsuenak azpian dagoen hontan labur ditzakegula uste dut: idazten jakin gabe idazteak ez duela pozik, (eta poz gutxiago idaztekoan hiztegiari atzera ta aurrera astinduak ematen ibiltzeak). Baifia hura, ni bezalako amaikari beintzat, **h** alde batera utzita ere gertatzen zaigun kontua da, halere ez gera ixiltzen. Ta zergatik ixildu beharko genuke? Esatekorik dugun artean beifipein, asko moduz esatea baiño okerrago genuke ixiltzea.

Eta **h**-ren aldeko arrazoi bakarra, orobat, batasunarena da. Premiazkoa omen dugu batasuna, ta hori gabe ez omen goaz iflora. Halabadore, beharrezko al dugu iflora joatea? Bai? Aurrera, orduan. Hasi gaitezen hiztegiara begiratzen hitz bakoitzeko.

KAMIÑAZPI-ri

Honeraiño ezkerro ez nuke Kamiñazpi jatorrarekin sartu gabe amaitu nahi. Ez noski ifloren maixu izan nintekealakoan, nik ere nire iritzia agertzekotan baizik. H-ren sartzeta ez zela

arrapaladan erabaki espero dut, biltzarre oso bati irain egitea bailitzake bestela uste izatea. Erabaki okerra hartu izana, bai, ditekera gauza da. Horregatixe, ain zuzen, ez dugu hartzen letra hau dogma delako, komeni omen zaigulako baiño. Ta gaur komeni dena bihar ez izatea ba liteke. Ez dakigu hala izango denentz. Ondo dakiguna da, ordea, bakoitza bere bidetik ibilliaz eta biltzarreak biltzarre ta erabakiak erabaki, kasorik egiten ez badiegu, ez dugula sekula santa guztietan batasunik iritxiko.

Gaztelez eta oguzten ez den hizkuntzetan egin bezate nahi dutena. Ez da hau euskeraren kasua. Bizkai-gipuzkoerena, izatekotan. Baiña gure nortasun ta gañuntzeko tasun guztiak gora behera, ez gaude bakarrik eta ez gera dena. Nolako aurpegiz eskatuko diegu Bidaso-z handiko anaieri utzi dituzten hainbeste gauza uzteko, eta gureok hartu, guk haienik batere hartu nahi ez badugu? Nor makurtuko litzaiguke baldintza horietan? Haiek h baztertzea, berriz, zorakeria bat iruditzen zait niri, guk b guztiak edo i guztiak jatea baiño ez txikiagoa. Guk buru idazten badugu ta ez uru, b esan egiten

dugulako da. Berdin besteak h gizajoa. Orain, ez dugula puntu honetan batasun beharrik pentsatzen al duzu? Orduan ez daukat ezer esatekorik.

Egia da zuk diozuna. Alegia, euskal ortografia lehen zena zaiño zailago egiten dugula honekin. Zer nahi duzu? Erreza izatea ez da gauza bakarra, ez guztia, ez erremedioa. Erreza lege bihurtzen badugu has gitezke aditza ta nik dakit beste zenbait gauza mozten, errezagotzen. Ta azkenerako, euskera errekarra botatzen.

Aita Berriatua-k h hartu duenean bizkaieraz idazteari laga diola ere esaten duzu. Baiña h hartu duelako ote da? Edo aurreragoko beste arrazoiren bategatik egin ote du bai h hartu ta bai bizkaiera utzi? (Utzi badu, beinipein).

Ta irudi bixi batekin bukatzen dugu: h esatea ta sudur puntan eraztuna erabiltzea berdin lirake zuentzat. Izan leike halaxe, Kamiñazpi adiskidea. Baiña nik neuk, sudur puntan, zuk diozun eraztuna ezezik kanpaia ere eramango nukeala uste dut, hiltzeko edo eraztun hori eramateko aukeran aurkituko banintza. Eta, diotenez hau ei da euskeraren goritxarra.

Axmutil-i

Erantzun-agiria

aldapeko'k

Eztaikit nor zaitudan, baiñan zure "Denok apez" irakurrita gero, esango nuke alkarrekiko ezaumena eginda gelditu gerala. Orra ba, zure diosalari erantzutera natorkizu lerro hauen bitartez.

Hitzaurre luzea egin diozu zure idazlanari, nerekkiko auziari ekin baiño len. Baztarrak jorratzeko nik baiño beta gehiago daukazu noski. Onetxegatik, aintzin-solasok alde batera lagata, nere kontra jaurti dituzun bi geziak ateratzen saiatuko natzaizu soilki.

Egia esan, ez neukan batere gogorik zurekin eztabaidan hasteko. Izan ere, eztabaidak higuingarri baitzaizkit, eskuarteko lanen etengarri baitira eta alderdi hortatik begiratuta denbora galdu-erazteko bakarrik balio baitute. Baiñan, ezin uka diteke ere, sarritan, eztabaidak, asmo zuzenez eta egi-egarriz jardunda argitasuna ekarri oi duela.

Orrela, beste lanek beren atzaparretan nendukatelarik, luzapenetan ibilli natzaizu, lerro hauek egiteko txolarte bat arkitu eziñik. Zure esanetan arrazoi-jabe ba'ziña, ez nuke gaur erantzuten lanik, baiñan, nere iritziz oker edo oker xamar zauden ezkerro, egiari leku egitera behartua nago, irakurleek ikus eta juzga dezaten auzi nahasi onen gora-behera.

Ipuin zaharra degu eskuarteko hau. Gure zoriorean edo zoritxarrean, Aurraitz ene adiskide onak asiera eman zion 1961'ko JAKIN'en (idazki-

agiria lanean, Ilbelta-Jorrailla), "gizonaren gainean" baztertu egin behar zela-ta, haren ordeztu gizonatza, gizonaz edo gizonari buruz erabili. Nik urte bereko Lorail-Dagonillekoan erantzun nion. "Arraitz"-ek, nere erantzunari erantzun zion 1964'ko Agorrekoan (gogoan eduki bitarte hontan JAKIN'ek ezinbesteko etenaldia izan zuela). Lumeru bertan "Zubiartea"-ak parte hartu zuen zuhurki eta nik ere zenbait arrazoi ematen ditut. Berrero "Zubiartea"-k ekiten dio 1965'eko Ilbelta'koan eta nik erabat berarekin nagoela aditzera ematen diot. Orain, auzi hau bukatuta zegoela iritzi nionean zu atera zatzaigu plazara aurtengo Maiatzekoan, denok bezala auzi illun hontan argi egin nahirik...

Baifian, auzi hontan, nik ere, zuk diozun bezala, aphez izan gura nuke, izpidean nagoela uste baitut, zuk ezetz ba'derizkiozu ere.

Aurrena jakin-erazi nahi nizuke -entzaz atzizkia aspaldi bazterturik daukadala, ezpaitaukat orain jatorizat, lenago hala ba'neukan ere. Dirudienez, Aita Larramendi'ren asmaketa dugu, -entzat'en irudira osatuta eta gero Andoaindarrari jarraitu zioten Lardizabal'ek, Campión'ek, nere aitak eta abar. Izan ere hain gizon jakintsuek okerrari igarri ez baldin ba'zioten, ez du baxterez harritzekorik ni tranpan jaustea. Argitasun hau Josu Oregi nere adiskide miñari zor diot.

Zuberoa'n, berriz, zuk besterik ba'diozu ere, eztago izenetan -tzaz atzizkirik, -etzaz baizik eta, noski, beti pluralean erabili oi da. Atzizki hau, nere ustez, -taz'en aldakun

tza bat besterik ezta (zuk, ostera -tzaz eta -etaz berdintzen dituzu, baifian hau edonork dakuske eztelegia), alegia, izen-ordeei bezala, izenari erantxita. Izen-ordeetan: onetzaz on-etaz. Izenetan: ahate-tzaz ahate-taz (biek sasiko nere iritzian izenari erantxita).

Intxauspe (1815-1902) eta Hegiategi (1841) hartzen dituzu zure testisaren zurkaitz bezala. Baifian, ohartu al zera Hegiategi'rengandik jaso dituzun amabost adigarrietan ez dagoela bat bakarrik singularrekoa? Beti -etzaz ageri da, sekula ez -tzaz. Eskertuko dizut benetan, ene jaun Axmutil —eta barkatuko aldidazu zuk ezin barka dezakezun euskal-joskera zahar eta egiazko hau— eta arrazoia bihotzez eman ere bai, euskal-testu zahar batean gizona-tzaz, aita-tzaz, etxea-tzaz edo orrelakorik arki dezazunean.

Baifian, ezta hau bakarrik. Uste dut, gure Mitxelena jakintsuari entzun niola esaten, **-etzaz** atzizkia ere ez dela Zuberoa'ko testu zaharretan arkitzen, alegia, joan den mende asieratikoa-edo dugula. Nik neuk, ba-daukat notarik franko hartuta Ivan de Tartas'en "Ontsa hiltzeko bidia" (1666) liburu ederretik eta ez dut nere apuntetan **-etzaz** atzizkiaren aztarrenik topatu izenei erantxita eta bai ostera **-ez**. Esaterako, RIEV'en adizifiko 27'garren orrialdean: "aski penitentzia egin bere faltez". Eta 35'garren orrialdean, izen-ordearekin: "Haitetzaz zerbitzatu nahi". Beraz, pluralean ere ba-dirudi, **-etzaz** izen-ordetatik igaro dela izenetara, azkeneko bi mende hoetan.

Nik lehenik Etxahun' en bertsoetan irakurri nuen —**etzaz** atzizkia aditz-izen bati erantxirik. Uste dut behin bakarra darabilela, baifian jakin-erazi dezadan ez daukadala nere oroimen ahulean batere konfidantzarik. "Hiltzerako khantoria" deritzan ahapaldi hontan alegia:

Nahi balin ba'gira hil eta salbatü,
Arte huntan behar gira kumbertitü;
Bekhatü egiteko kostüma kitatü,
Lehenenko eginetaz nigarretan sar-

[thü,
Berriz ez lerratü,
Ahalaz begiratü,
Hiltziaz orhitü,
Uuntsa kobesatü:

Denbora joanez geroz ezta profetitü.

"Eginetzaz" forma honek txundituta, lerro hoek egin nizkion Jon Mirande ene adiskide onari:

"Zer da au? Ba-dirudi gure aldean Sabindarrek-alegia, Arana-Goir'ren euskal-eskolakoak eta hauen inguru-marian beste askok ere bai gaurko egunez, naiz jakiñean, naiz ez jakiñean darabilten "gizon-etzaz" berbera dela. Nik uste, EGINEZ behar lukela esan. Neurriaren eskabidez asmatu ote zuen forma itxusi eta gogor ori? Edo Etxahun'ek "egin hetzaz (egin haitetz) kantatu ote zuen eta biltzailleek gaizki zuten?"

Erantzupena:

"Eginetzaz" edo "eginéz" gutretan berdin da; bi formak korrientki erabiltzen dira, bereizkuntzarik alien artean egin gabe. Beraz, kasu ortan beintzat, Sabindarrek ez dute berriketarik asmatu".

Etxahun alpatu dugun ezkerro, irakurleak barka bizait ohartxo bat. "Gaztalondo handian" deitu olerkiaren bigarren ahapaldian gaztelerazko itz itxusil bat sartu nuen ezinbestean, haren ordeko euskal-hitz jatorra ezagutzen ez nuelako. Hitz hau "manco" da, eta euskerak ia esangura berdiñarekin "txango" dizu. Hitz hau Gipuzkoa'ko Beterri guzian oso erabilia da, baifian nik ere lana inprentaratu ta gero ikasi nuen Orío'ko baserri batean eta orduan ohar-tu nintzan Azkue'k ba-dakarrela. Orío'ko Bentaberri'ko semeak esan zidan hitz honek "esku-motza" edo "esku-igarra" (bitara) esan nai duela. Ez ordea, "be-

samotzak". Azkue'k: "defectuoso en cualquiera de las extremidades". Beraz, hitz polit hau primeran datorkit, rima ta guzi, "manco"-ren ordezko. Lastima, hitz honen berri ez garaiz jakifia! Baiñan, barruan neraman arantzatxo mingarri hau ateratzea zillegi bekit oraingo hontan. Ona, beraz, nola zuzendu behar den ahalpaldi hau:

Zai nengoen patatok zerkin lagunduko,
Ontan jarri digute mai galfean arto,
Ogirik etzutela oturuntz artako,
Ez ere beste noiz-nai, beintzat neretzako.
Platera da basto.
Katillua txango,
Kutzara zurezko,
Zapi zatar bat berriz maia estaltzeko.

Baiñan, nere galdera eztago ongi ekarria eta onetxegatik Mirande'ren erantzunak kolpeari uts egiten dio. Izan ere, nere ustez, Sabindarrek edo hauen ingurukoek ez dute sekula -etzaz atzizkia erabilili izan, -tzaz baizik, ala singularrean, nola pluralean (edo nahiago ba'duzu: bai singularrean eta bai pluralean). Honek eztu batere harritzekorik, gure sartaldean ezpaita ezagun -a-'ren singularitasuna eta -e-'ren pluralitasuna. Gipuzkoa'ko idazle zahar guziek edo gehienek beñe-pein, "gizon-a-z" darabilte sobre el hombre edo sobre los hombres aditzera emateko. Sortaldekoek, ostera, "gizon-a-z" sobre el hombre eta "gizon-e-z" sobre los hombres. Era berean, gaurko euskalzaile berri-zaleek, beren eskualdeko sistemari oratuaz "gizon-a-tzaz" asma-tu zuten, sobre el hombre edo sobre los hombres aditzera emateko. Beraz, aipatutako pizkundezaleek, eus-

kal-literatura zaharra estudiatzeko nagikeriaz edo iguifiez, gure atzizki zaharra arbuatuz edo aintzako-tzat hartu nahi ezik, -tzat delako forma berri hau asmatu zuten eta horietako norbaitzuek -etzaz erabilili izan ba'dute ere —nik ez dut gogoan—, asmatuta egin dute, ezpaitzekiten zuberotar atzizki honen berri.

Orain nere kritikalarri zorrotz zaitudan horri, galdera bat egin nahi nizuke: Jo dezagun gezurra egia dela, alegia, -tzaz eta -etzaz atzizkiak jatorrak eta betidanikoak direla Euskatorrak eta betidanikoak direla Euskal-erri'ko bizpahiru puntutan. Baiñan, hauen alboan -az eta -ez, formarik komunena, indartuenak, zabalduenak eta literaturan tradizio baten jabe diren bakarrak agertzen zaizkigu. Uste al duzu, Ligi'n, Huitzi'n edo Otxandio'n erdi-illik dauden forma batzuek eskubiderik izan dezaketela Euskal-erri guziak mende-mende on-harturik dauzkan formen gain? Sistema hau euskeraren eta Sorterriaren kontra pekatu egitea litzake. Jokabide hau ezin zuritu liteke nere ustez, aspaldi ez dela horrelako zerbait ikusi baldin ba'dugu ere Maixu haundi baten-gan.

Auzi desegoki onekin bukatzeko irrikitzen nagoelarik, jakin-erazi nahi nizuke neri zirika egiteko gogo gehiegixko ageri duzula zure lanean. Izan ere, -tzaz atzizkia dela-ta egin ba'didazu zure eskutitz agiria, etzendu-kean zertan dantzara atera "Ama-

sei seme Euskalerrri'ko" liburuaren titulua. Giza-lege jatorrean ezin diteke inor txuliatzen ari eginkizun honi atsegin hartuta. Baiñan, zure egon-ezifian ona nun atera nauzun plazara Donostia'ko hiru damatxo xarmangarrien artera.

Eta laurok plazaratu gaituzun ezkeroz, eskubidedun derizkiot nere buruari zuri galdera hau egiteko: Noiz eta nun oker-iritzi diot nik "Donostia'ko iru damatxo" joskerar-ordenari? Egia "Euskalerrri'ko amasei seme" esateari arrunt eta prosaiku iritzi niola, baiñan, borondate on pixkabat duen guziak sobra ulertzen du liburu-titulu bezala diodala hau. Alegia, joskera atzekoz aurreratuta liburu izena otsez indartzen da eta grazi bereizi batez jazten. Egia esan, bertso hauetan ez legoke batere gaizki "Iru damatxo Donostiako" ere, baiñan ni nauzu lenengo aitortzen ez dela erabilkizun honen abusorik egin behar. Alegia, lege edo norma bezala "Donostia'ko hiru damatxo" erabilli behar da, baiñan eszepzio bezala, txit ongi da noizik eta behin "Hiru damatxo Donostiako" erabiltzea. Baiñan guzti hau esan beharrik ere ez nuke, joskera biurritze honen arrazoia JA-KIN'en 1961'eko 15'garren zenbakian eman baintuen Aurraitz'i erantzunaz eta ez dago hemen zertan berriturik. Zuk ipintzen dituzun bi ejenpluekin berriz ba-dirudi gauzak bere onetik atera nahi dituzula. Nik ere ez nuke esango

"Okendo seme argi Donostiako" eta "Aita San Inazio seme Loiolako". Senak salatzen du kolpetik hori kertenkeria bat dela. Alaber ez nuke esango "Madalen neska ederra Busturiko" edo "Josetxo mutiko pijo Olaberriko", baiñan bai ostera, kantu zaharrek dioten bezala "Madalen Busturiko" eta Josetxo Olaberriko". Alegia, joskera biurritu honek eztu on-hartzen -ko'dun hitzaren aurretik kalifikativu osagarri-rik. Alkartasunak tartekorik gabea behar du nahitanahiez. Onela: "Iru damatxo Donostiako", "Aita San Inazio Loiolako" edo "Aita San Inazio Loiolakoa", "Jaun Peru Abendañoko"... "Amasei seme Euskalerrriko". Eztakit ongi mintzatu naizen eta ongi aditzera eman dudan, baiña ene ustez ez dago zalantzarik. Pertsona bakarrari dagokionean, dakuskezun bezala, -koa atzizkia ere zillegi da. Ona Lafitte'k bere Gramatikako 420'garren orrialdean dakartzkien adigarri batzuek: aita familiakoa, ama-besotakoa, Andre-dena-Maria Aboztukoa, Andre-dena-Maria Lurdekoa, San Antonio Padukoa, Aita Bethierekoa, Ama Zerukoa... Pentsatzen dut zuk eztuzula on-hartu nahi izango atzekoz aurrerako joskera hau. Nik ere ez nuen on-hartzen ene gaztetan, baiñan urteak erakutsi didate, herriak hain zentzuz eta tajuz gure joskerari mendez-mende erantxi dion zaulitasuna izkuntzarentzat edergarri dela eta gramatikako lege zorrotzak hainbat erres-

petu merezi dutela beronen barrutiz-kanpo sortu zaizkigun esaera bizigarriok.

Ongi derizkiot, esate baterako, "Apaiz jauna", "Haur gaixoa" edo "Ikas dezagun" esatea, baiñan ez ditzagun kondena "Jaun apaiza" (jaun apheza), "Gaixo haurra" edo "dezagun ikas" darabiltenak. Guztio forma jatorrak dira. Sarritan euskalki batean usadiozkoa eta zillegi dena bestean ezpaita, eta batez ere ikas dezagun bereizten noloz komeni den erabiltzea joskera forma bat edo bestea, iaioki jokutzen jaki-

tetik baitu mintzairak gatz eta izpirititu. Ez ditzagun, Jaungoikoa'ren izenean, ubegi garden eta ur-mailleok agortarazi, beroietan baitago biziaren indarra, eta beste eder-lanetan bezala saia gaitezen kontrasteak billatzen. Lan batean ogei aldiz "ikas dezagun" erabillita gero, zeñen poliki, dotore ta bortitz agertzen zaigun alako toki bereixi batean "dezagun ikas"!

Baiñan gai hotan ez diteke legerik eman, Norbere senak agindu behar!

ARESTI JAUNARI BARKAZIO ESKE

Gure aldizkari JAKIN-en, azkenengo zenbakian, Aresti jaunari aurrez aurre jo egin zaio. Ta Aresti jaunak min artu du.

Ez goaz orain idazlearen uste ona edo intenzio txarra juzgatzera. Baiña, bai, ba goaz, JAKIN-eko Zuzendaritzak ez duela "Denok apez" idazlanean esaten denarekin parte artzen agertzera.

Bestalde, Zuzendaritzakoak ere ba gera errudun: Ta ain zuzen, gure errua eztabaida horren berri xeherik ez jakitean datza. Horregatik ez genion ba pozoirik nabari.

Halaz ere, ba dakigu, eta JAKIN-en jokabide da, edozein pertsonari xuxen kolpe eman dezaion lanik ez argitaratzea: Ideiak epaitu, ez pertsonarik iraindu.

Barkatu, ba, Aresti jauna, eta ikus gure arrazoiak.

ZUZENDARITZAK.

euskal
liburu
ta
diskuen
lenengo
azoka,
DURANGON

Urrillak 30 ta 31 ta Azillak 1, Euskal liburu ta diskoen Azoka egin da Durangon.

Asmoa ta organizazioa Gerediaga Alkarteari zor deusguz.

25 argitaldareiek artu dabe bertan parte. Lenengo aldiz ospatu da olako jai bat Euskalerrian.

Durangoko jaiak aztarna itxiko dabela atzetik, Azokaren barri euki nebanerako pentsa neban. Baiña orren goraberak jakinerazoteko, Azokaren antolaketaren buru-edo ibil zana da egokitua. Orregaitik egin deusataz berari itaun batzuk. Ez dau imini gura izan bere izenik. Orren orde "Gerediaga"-tar bat lez dedilla ager bera, esan eustan. Alan da be, an egon gifianok ba dakigu nor dan.

—“Gerediaga” Alkartea izan dan ezker antolatzaillea, esango zeinkigu zer dan Gerediaga Alkartea ori, ta ze elburuen atzetik dabillan?

—Durangoko Merindadearen erri ta urien arteko lokarri lez dalarik, Gerediagak, inguruko gizarte-kondiziñoen (espiritu, kultura ta ekonomiako izakeraena esan gura dot) obekuntza gura dau lortu.

—Azokari gagokozala orain. Zelan otu jatzuen Azoka egiteko asmo —zoriontsu— ori?

—Azokako arkibideekin batera banatu ziran bi elezko kartulinetan esaten zan ori. Zera, Euskalerriak beste doai laudagarrietaz gaitiera jakin-mailla andiaren jabe dala nai gendula erakutsi ta agertu.

—Ori bateko. Ta beste xederik ba zan zuen artean?

Liburua da Euskalerriaren kultura-agerpenetarik andiena. Alaz ere, liburu aberastasun ain andi ori ez-ezagutua jakon erriari, zabalkuntza eskasaren erruz. Guk ba, kalera urten eiala aberastasun ori gura gendun, ta publikoaren eskari ta gurariak ezagutu, liburu-egille, argitaltzaille ta liburu-saltzailleentzat dato garrantzitsuak orreek danak.

—Antolatzerakoan, erreztasunik izan zenduen?

—Bai, Probintziko ta Aiuntamentuko Korporaziñoen laguntzaz, ta argitaltzailleen (editore) arduraz kontatu gendun.

—Erreztasunak euki zenduezen, ta enbarazorik?

—Zailtasunik andiena lenengo biderrez olako Azoka bat egitearena zan. Izan be, oso organizatutako argitaltzaille batzuk izan ezik, besteekin, apurka-apurka, euren katalogoetatik euskal liburuekin zer ikusi eukona ataraten ibil bearra izan gendun-ta.

—Argitaldariak zelan erantzun eutsuen?

—Editorialak —ia danak— erreztasunak beste-rik ez euskuezan emon.

—“Ia danak” diñozu. Zer ba, asarrerren bat be izan zenduen ala?

—Asarrerik, asarrerik ez. Asarre baiño geiago minberatasun bat edo beste izan ziran, batean-edo. Baiña ortxe geratu ziran, zorionez.

—Zenbat argitaldari aurkeztu ziran? Deituriko danak?

—Ogeta bost; deitutako guztiak, bai.

—Ze elburu ezarri zeuntseen erakus-lekuan imiñi dozuezan jantza, txistu, bertsolari, albokari, filma ta gaiñerako jardunaldieri?

—Jentea bertara, erakus-lekura, eroateko jarri gendun ori; ta Merindadeko folklore-aberastasuna erakustearren be.

—Eta jentea? Ze iritxi daukozue publikoaz?

—Primeran portatu zirala danak, noski.

—Alboko euskal probintzietatik etorri zala jentetik uste dozue?

—Euskaljerri guztitik etorri zan jentea ugari, bete betean.

—Zenbatean kalkulatu zenuke “stand”-etik igaro zan jente ori? Aurretiaz uste zenduen baiño geiago, ala gitxiago?

—Bai antolatzaileak ta bai argitaldariak itxaron eikeen baiño geiago, zatia geiago, gaiñera. Orain, ezin daikegu zenbakirik emon, baiña aurreratu gein-kizue, saldutako liburu ta diskoek diñoienez, millaka asko izan zirala ortik paserikoak.

—Ta zetariko jentea zan?

—Danetarikoa. Akademiko, inbestigadore ta profesionalen ondoan, erri pilloa ba antxe ikusi gendun Azokan, danetariko gaiñeri buruz interesaturik gaiñera, preparaziño neurriz-gaiñekoa erakutsiaz.

—Libururik salduena?

—Oraindik ez ditugu eskuratu liburu-saltzaileak

bidaliko saldutakoaren kontuak danak. Baiña, gramatika, iztegi, ta euskeraren ikasbide ta olakoen eskari asko sentidu zan. Dato inportantea au, garbi ikusten da-ta erriaren guraria gure mintzaera konserbatu ta obetuteko.

—Etorkizunari begira. Euskalerriko beste erriren batzuetan be olako Azokak egitekotan dabiltzala entzun dot. Zer da ortaz?

—Bai, alan da. Zeatzago, Tolosan jaso gura da-be bat datozen Gabonetarako, eta beste erri batzuek (Bergara, euren artean) preparatzen ari direla be ba dakigu.

—Ta zuek zelan ikusten dozue ori?

—Orixe da saririk onena guretzat.

—Zenbatetik zenbatera ospatu gure zeunke Azoka,zuek?

—Urtean bein. Bearbada ez da beti Durangon izango, Merindadeko erri guztientzat egia da-ta Gerediaga.

—Egunak —2 t'erdi— neiko izan direla uste dozue, edo luzatu egingo zenukeez aurrerantzean? Zergaitik?

—Saltzea baiño geiago euskal liburu ta diskoen batutea ta aurkeztea da Azokaren eginbearra. Origitik aski dira iru egun: ta beti be jaiegunak izan daitezala, ori bai.

—Ze ahaltasun ikusten dozue gaurgero obeagotuteko: garaian? erakus-lekuan? "stand"-etan?

—Ondorioak atarateko goiz da gaur oindiño.

—Pozik?

—Pozarren.

—Ezer geiago?

—Gerediagak eskerrak emoten deutsez Azoka ontan parte artu daben guztieri, aurrerantzean be danon laguntziñoagaz obetutea aginten deusuelarik.

leturia ta txillardegi

Claudel zela uste dut izpirituak Notre Dame Paris-ekoan Andra Mariagan begiak josita egotera eramaten zuena. Ta oker ez banago ez onek eta ez Julien Green-ek eta ez... ez zuten Jaungoikoa metafisikaren bidetik aurkitu.

JAINKOAREN

— billa —

Txillardegi-ren izkribuetan onela moduzko begira zalerik ugari ba dator-kigu. Itsasoari, gauari, parketxoari, lillurari, berari aspertu gabe aritzen zaizkionak begira ta begira. Presuna bakardade zaleak, pentsamentuak eta barneko igidurak nun kokatu izateko lain paisaje gozo ta bakardade billatu ezkeror orduak erretzeko aski dutenak. Ori bai, Txillardegi-ren gizakumeai normberen buruekin izketan jarduteko gaitasunik ez zaie beñere falta. Pentsa-

tzaille amorratu, sortzaillearen prolematikan kiskaltzen dabilta, ta —nolabaiteko neurrian— aren ispillutzat ar ditzakegu. Izan ere, Leturia baten kezkek, esate baterako, gutako edozeiñenak izan zitezkean. Ez dira asmatuak, ez. Makiña bat jende tristek egosiak dira. Leturia —ta Txillardegi— ez dabilta zeregin faltsoetan, irudimen utsekoetan alegiten, gezurrezko erabagimenduetan aztamuzka. Leturia-ren Egunkariak beste akats asko izango ditu baiña ez aren protagonistak burua aidez bete izatearenik.

Aitzitik, nobelak uzten digun inpresioa, enseiu sorta bat irakurri izanarena da. Ta ez ote du ideien giarra gogor eraman naiak, prolemen goi-beheak ta ezberdintasunak, nobelaren batasuna kaskatzen? Txillardegi-ri, dirudienez, ideien korrontak eta aiek bata bestearekin xuxen-xuxen ariltzeak nobelaren teknikak eta beste ezerk baiño begiramentu ohea merezi dio. Onekin, nobela tekniko eredu bat baiño milla aldiz estimagarriagoak ditugun enseiu kartsuak eman zizkigun. Nobelaz ere ona danik ukatu gabe.

Bere buruari dion bildurra menderatzean ematen du Leturia-k lehenengo urratsa: "Neure burua arkitu nai dut". Ta orain ezker, bakardadean murgildu ta norberaren leizera jetxi ezker, ez dago misterioa argitu beste erremediorik. Misterioari azpitik bakarrik iges egin dezaiokegu. Ots, barreneraifio jetxi ta andik argitara irtenaz. Ez bestela. Eta San Agustin-ek zekienez geure barruaren barruenean Jaungoikoarekin topatzen gera.

Mireskundean ta astian omen dartzatza filosofiaren abiadura. Ba puntu artantxe erretzen zaigu Jainkoaganaifio doan Txillardegi-ren gogoeta. Miresmena, ilusioa, ilusioaren ondandamendia, gogartea. Ta beti, zorion ogarri azken gabea.

Zerubide-ko parkean (auxe apropos ipifitako parketxoaren izena!), bere bakardadeaz arriturik edo, pozez igari dabilkigu Leturia, amesetan. Au emen, ura or, bestea zer

ta urrengoa zertako, sekulako burutazio urbide aberatsa irikitzen du ustegabeen. Arriduraz zorutzen dabil asieran, ume baten gisan. (Etzaio poesiarik falta zati oni). Urmaela, ostoak, parkea, landetxea, dana du ikusi gabe ta berri, agian. Udaberri zoragarri bateko edertasunaren mundu berria erretzen aiazaiotza biotzean, bakardadeari begira tu orduko. Bapatean, munduaren zalapartak illunduta zeukan musika ixilla entzuten du. "Uriko zarata zela-ta, ez nuen neure biotzaren dei ixilla entzun", idazten du Leturia-k. Eta Txillardegi-k EGAN-en (1958, 1-2): "Aaztu egin zaigu, bai, aurrak antzo zerura begiratzin".

Edozein miresmenek ez baiño, Jaungoikoaren gosea miresmen laisai ta zergatikoen jakin mifezkoak sortzen du. Bestea, indarrarena... erdi miresmen ta erdi inbiri dena, jaiotze berean itotzen da.

Eskritura Santuai atsegin zaien

giro berean Txillardegik bakardadara jotzen du Jaungoikoaren aurpegia billatzeko. Utsa gogaikarri zaigu gizonoi. Bakardadea jasan ahal izateko norberaren barrera kargatu bear da lehenengo, ta ezin bada, edozein uskeriri lotu. Pre-miñazkoak dira bakardade jorian egon ahal izateko "geure baitarako mintzagaiak". Orduan gu ez baigaude bakarrik erabat, gu geurekin batean baizik, gure geutasunarekin alkar izketan, alegia.

Onela sortzen du bakardadeak Jainkoa billatzeko metodo egokia. **"Neure buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik; garbiketa utsa baita, ta egiazko aitorketa, bakardadean egiten dudan egonaldia"**.

Zintzasunezko ta egiazaletasunezko egoera garbi barea zabaltzen baitio bakardadeak arima lurretan.

Egiazaletasunaz gaiñera, zintzasun jatorraz gaiñera (bakardadeak oek biok alkartzen ditu), umiltasuna eskatzen du Txillardegiren pentsabideak. Ez umiltasun ustela, sendo ta gizontasunezkoa baizik. Dagoeneko labur dezakegu: bakardadearen ta umiltasunaren baldintza bi oetatik asi ezkerro, geure zorion-bearrezko izatearen begiztatzeak eskutik eramango gaitu Jainkoaganaiño.

Ezerezetik ateratzen ote du, gero, Txillardegik umiltasun bearra? Ez orixe: Naturaleza aundiaren eskue-tan, apaltasunez kofesatzen du gizonaren eskasia. **"Zer gera? Aut-**

pits bat?... Bistan da arrokeriak ez bestek ezin arro gaitzakeala" (EGAN).

Edozein teologok daki Jaungoikoa ba dana probatzeko baldintza moral oek metafisikoak bezain bearrezkoak ditugula, artarako dauzkagun probak berezko izatez agiriak, (alegia, ebidenteak) ez diren ezkerro. Geure izaeraren analisiak baldintza oen bearrera dakar Leturia (Zillegi izan bekit au ta onen sortzeillea berdintzea). Kristau aszeta naiz teologoak, Eskriturari jarraki, oiñarri oetxek eskatu dituzte beti. Txillardegia, esegetaren oso bestelako bidetik, Bibliaren ta teolojiarekin bateratzen da. Ortik aurrera, ederraren ikuskariak eta gogoetak xuxen xuxen eramango gaituzte.

Orra zergatik ederrak inka gordifia sortzen duen biotzean, eta ikusmiñez, erantzun billa, gogoetak asperritu. Gauari begiratzeak geiago kezkatzen du. Ta galdekizunen erantzuna astronomiako liburuetan billatu bezain laister idorotzen du pakea. **Eta aste berean (alegia, astronomiako liburuak irakurtzen) itzaltzen zaizkit nere katramilla edo kez-kak; ezpaitago zerua bezelakorik gizonaren arima lasaitzeko"** (EGAN).

Utsunea egin bear dugu barrenearnean Jainkoa sar dakigun. Naturalezari ixiltasunean begiratuaz, eriotzeaz oroituaz, errez egiten dugun utsunea.

Zerubide-n nasai asko zegoela,

tanpez, landetxe bat ikusteak urduritzen dio Leturia-ri biotza. Ta ez datza landetxearen unkiagarria aren ederrean, ez. Aren **“pakea da nere burua asalduz betetzen duena”**. Eriotzearen anaia bixkia den pakea ikusteak erre egiten digu arima, kezka ta bizi naiez erre. (Unamuno-ri Kastilla-ko lurrarekin gertatzen zitzaiona). Erabateko pakean dagon izadia ikusteak —gure egoneziñaren mixeria jotzen duelako bearbada— antsi mifien su garratza pizten digu. Kolpe batean arima ustutzen digu, Jainkoarentzat leku egina.

Gogoan dut oraindik itsaspeko munduaz film bat ikusten nengoe-la nolako zirriadaz kizkurto zitaidan arima. Submarino galdu bat agertzen zigun argazkiak, itsasbeldarrez bildua. Ta eriotzearen erreinu artan, eriotzeago, olagarroa, bere ikara lizunean, bere begi ikaragarriekin ikusleoi begira. Edozein sentitzen da utsik. Eriotzeak utsik arkituko gintuzke orain sartu nai balekigu. Esirik gabe, defentsarik gabe.

Eriotzearen izuan doakigu illunetik illunbera doan gure bizitzaren tximista. “Et quand nous respirons, la Mort dans nos poumons descend, fleuve invisible, avec des sourdes plaintes”, (Baudelaire). Ta izadiaren gelditasunak eriotzearen zerbeit dauka. Eriotzearen ikuskizunak bezala, misteriozko aruntzago batera deitzen gaitu. “La filosofía es meditación de la muerte”,

dio Maria Agreda-koak. Eriotzeak, beste orrenbeste, umildu ta garbitu egiten gaitu. “Ez eguzkia ta ez eriotza ezin ditezke aurrez-aurrez begiratu”, zion La Rouchefoucauld-ek. Ta Txillardegik: **“urdu-ri jarri nau beti kanposantua betetzen duen pakeak”**.

Leturiak ez dauka Paris zoroaren joan-etorri moskorrekin zerikusirik.

Naiago du Saint Germain-eko eliza zaharren ondoan exerita bere pentsamentuetan jardun, beti utsunea zulatzen. Parkean exerita, bere buruari galdezka, **“Bete ez bafian ustu egiten naiz artan. Eta au naiago dut; utsunearen tristurak egia arkitzeko gaiago egiten nauelako”**.

Pena ematen didate mendira txistu, transistore ta soifuz utsunearen kontra ondo armaturik doazen mendigoizaleak. Ixiltasunaren bilburra ikaragarria da nunbait barruan ezer ez dagonean.

Egia da naturalezan geure ioraren abots oiartzuna entzun dezakegula, baiña biziaren zalapartak, kaleetako neon argiak, utsunearen ixiltasun illuna galerazten dizkigute. “Argirik ezak sakonago biurtzen du dena. Argitasunak, berriz, lilluratu egiten du ta azkenik arrotu” (EGAN). “Mundutar jostabide ero ta itsuei utzi-ta onera etorri ez naizeño, ez naiz onetzaz konturatu” (LETURIA).

Gure eginbearretan iraulika gabiltzan artean begietaraino beteta gaudela pentsa dezakegu, ez dugula Jainko bearrik. Bai, noizpait bakardadera erretiratzen ez geran artean. Ze, orduan, "nekez bete dezake mugadun sorkariak mugarik ez duen arrenkura".

Begitasunaren (ilusioaren) argiak eta pozak engaiña gaitzakete. Ez baigera konturatzen beti, billatzen duguna Jaungoikoa bera dela. Orregatik, lilluratzen gaituen gauzari itsasten dizkiogu absolutuarenak diren gaitasunak. (Au gertatzen zaio Leturia-ri, Miren maitatzean). Artatik da lillura sortu digun zera baiño ederrago lillura bera. Ta artatik, "gauzatze guztiak ondutzen dute amesa". Beraz, gure begitasuna eskura ditekian zerbait den bitartean, derrigor kiebrarik kiebra ibilli bearrekoak gera. Zerbait au eb baititeke Jaungoikoa besterik izan, ots, absolutua, gure zorion egarrian edan ala edan

arren ifioiz aspertuko ez gaituen ezer bakarra. Osterantzean, txinbeleten antzean goazke beti batetik bestera.

Erljioek erremediatu dute lillura guztien itzaltze legea, Jaungoikoa mundu onetatik kanpora ta arras Absolutu aurkeztuaz. Bide biurtzen dute bizitza-ta. "Erljioari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna". Ez du, ba, ilusio onek, billatzen zena irabazi dela-ta iltzeko arriskurik.

Arrezkero, ta materialistak esan ahalak esan arren —jarraitzen du Txillardegik— "erlijiozko sorkari agertzen ari da gizona bein eta berri mendu guzietan zear".

Txillardegik erlijioaren ateraino ekarri du bere Leturia, barneko bide mingarriak ezagutzeko bideok aurrera. Ala aitortzen digu: "Erljioazkoa da berez gizonaren utsunea". Jainkoa da gizonaren arrenkura azkengabeak ase ditzakean utsa.

"Jainkoaren bearra da gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin ditekete au uka".

Noizpait, asko arritu nitzan Txillardegik ez dakit zer demonio zela esan zidatenean. Nik ezin ukatu izan nuen (ez dut proba erabakigarrikerik) baiña esandakoa progatzen zuen argudio sendorik ere ez zidaten aurkeztu. Geroago, nire memorian pixkana pixkana argitzen datozkit aspaldian irakurritako orrialdeen gogoetak, eta penaz betetzen nau gure artean akusaziorik galantenak zein errezkiki egiten ditugun pentsatzeak.

Euri ari du Gernika-ko ibarra bete betean. Udaberriko euri ber-

dea. Inguruko parajearen isla guztia, mendi kaskoek zeruan atera oi duten arraia leuna, lanbroaren amara sarean galdua dago. Ez ote dugu sekula gauza garbirik jakiteko modurik izango? Ta astiro astiro, aurreko egunotan berritutako Txillardegi-ren irakurraldi ta pentsamentuak lotzen asi naiz.

Jainkoaren billa dabil Txillardegi bere obretan. Dudaren eztenak alde guztietatik zitzaka dituela esatea ez da iñoren eskandalo izango, noski, oetatik libratzeko modu bakarra, segurutik, ezer ez billatzea ta federik ez izatea bailitzake. Gorputz illak ez du eztenkadarik sentitzen. Garbi garbi azaltzen zigun Orixe-k berak ere makiña bat duda izanaren azkurea. Ikus, bestela YAKINTXO-n eta BARNE-MUÑETAN-en arek aitortuak. Newman-en esanari sinisten badiogu, ain zuzen, dudak suportatzeko gauza izatea dugu fedea, ez aiek ez izatea. Ta beste autore itzal bat ekarriaz, ona Congar-ek diona: "Beti atxikitzen natzaio Ebanjelioko esate ari: sinisten dut, Jauna, baiña lagun-du Zeuk nire fedearen flakia. Sinisten dudan une berean sentitzen dut kordoka nagola". Eta segituan: "Uste dudanez sinestunari geroz eta gaitzago egingo zaio sinistea". (SACERDOTE ET LAICAT, Mission du Prêtre dans le Monde Actuel).

Ikusi dugunez Txillardegi-k eraman duen bidea ez da Aristoteles-en metafisikarena izan. Ez dakusgu aren idazkietan eskolastikoen "via" famatuaren arrasto aundirik. (Alabaiñan, ez dabil aiengandik oso urruti, berak, apika, ala pentsatu arren). Berak esana dugu: 'Aristoteles-en kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik batere ematen'.

Bearbada onexegatik, ta idazlearen arrazoiketa nobelaren biur-guneetan katigatzen delako, Leturia-ren Egunkarian banatzen zaigun apolojetika aidean galdu zaigu. Arrigarria bada ere, ordea, Txillardegi-ren lehenengo eleberri au aitortza bat eta apolojetika bat dugu.

Ona emen aren ideien ardatza: jomuga bearrez bizi gera lurta-rrrok, eta jomuga au da gure ilusio edo begitasuna. Ilusiozko lorkizuna munduaren esi barruan badago ez da benetako zorionaren iturri. Ez dalako absolutu noski; ta gure arrenkurak azkengabeak izan. Beraz, mundutik at bear du jomuga onek, eta absolutu. Orre-gatik, bada, Jaungoikoak bakarrik ase gaitzake, ta erlijioek asmatu dute egiazko zorion bidea.

Pontu onetaraño pausu irmoz irixten zaigu Leturia, gaurko filosofiaren katramillak trebetasunez askatzen. Eskolastikaren bidea ez da bakarra, ta A. Villasante ez bezalakoxe bidean ibilli zaigu Txi-

llardegi. Bearbada ez du aren arkitektura sendoa. . Bai, ordea bizitasun geiago.

Erljioen artean egiazkoa zein den erabakitzeoan nobelagillearen gogarteak segurantzia galtzen dute.

Au dena, egiaren beraren billa-bidetik baiño zorionarenetik joangoaz.

Munduaren astea gogartez azterkatzen duela, orobat, gogaramendu berdiñera irixten da Txillardegi, pentsaketaren azkenean emaria ain zinki onesten ez duen arren, galdekizunaren ziboan orekan utzi baik. "Orain dela 6.000 milloi urte etzegoen EZER... Jainkoa gabe sentidurik aal luke onek? (EGAN). "Ezagutzen ditugun sorkari guziguziak (...) itxura utsa dira; izana badute, baiñan ez Izana. Obeto esan, ez dira Jainko".

Eta aitormen tinko au: "Alde guzietatik abiatuerek ere, gauza berera iristen da beti: ez dagoela absoluturik. Ez dagoela sinistunaren aitortzatik libratzerik".

Ezagututa gero, nola lotu Jainkoari? Fedez, erantzuten du Txillardegik. Neguko atalean (8 zenbakia) auxe deklaritzen digu: "Fedearen bearra ta bidetasuna onela azaltzen ditut gaur; ez gizonaren aurkakoa bezela, gizonaren izanari lotutako bearra bezela baizik".

Fedeak ez du esan nai, bapo exeri ta lo egon bear denik. Ezin uka dezake Txillardegik ibiltzearen poza. Berak ifork baiño gutxiago, poz au salbatu ta esplikatu naiaz iritxi baita Jainkoagana. "Borrokarik gabe ez dago zorion-biderik". "Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere". Txillardegirentzat Jaungoikoa ez da ibiltzeak berak eskatzen duen azkenena ta jomuga besterik.

Onekintxe erantzuten dio munduaren ederrean oifarriturik altxatutako arrazoiari (Rousseau-k zionez, —Confessions XXVII— Jaungoikoa ez sinistearren deabrua sinisten dutenak) beti egozten dioten objeioari. Alegia, ordenaren barruan gaitza borborika agiri zaigulakoa. Leturia-rentzat bidezko da munduan gaitza izatea, ze, bestela, bidea ukatuko genioke gizonari. "Eta gizonari bidea ta zer-egifia ukatzen dizkionak bere izaera bera ukatzen dio, ibilli bearra baida gizonaren mania, ta ez besterik". Beraz, argi dago gaitza izatearen karia: "gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez bidegabekeria ta larri-mifia".

Jakiteko gurariak eragiñik ibilli zaigu Txillardegi arrazoiketa luze ta neketsu onen aldatzean. Jaungoikoaganaño urbildurik, aruntzago egiteko, azken pausoa emateko aul kausitzen du arrazoimena. Misterioaren atadian baitago, ezin sar diteke fedezko argiarekin ezpada. Geugandik eta mundutik at ipintzen dugun Jaungoiko ori ulertu eziña da, ba. Eta zergatik ulertu bearko genuke?”, itantzen die Txillardegi-k arrazoñalistai. “Gizonak ez dauka ententitzerik, xalbain-ponpoil ortatik (ots, mundu onetatik) at baitago kakoa”. Eta nobelan bezala EGAN-eko ensei u eder onetan (“Betikoaz agian”) berritro gauza jakiñera allegatzen da: “Ikusi ez arren sinistu egin bear, irakurle”.

Utsean eman bearreko jauzi onek ez dio larririk sartzen Txillardegi-ren biotzari. Txit bidezkoa baita arentzat jokabide au, duen bizitzaren ideiarekin ados dagona, alegia, ibiltzearen legeak eskatua.

“Eta ikus eziflean gabilta; eta ibilliko ere gera, ene gardiz, aztamuka, beaztopaka... Zeren Jesukristo-k berak ala nai izan zuen, begietan lausotzat daukagun mintz segail au urra ez dakigun; eta ixildu baitzan askotan, bere ikasleen galderak geiegi ez argitzekotan”, bukatzen du Axular-en estilo nabarmenean.

Nobela oso gutxitan billa diteke Txillardegiren onetan ainbeste Jaungoiko gose. Baldin kristau nobelarik badago, zeifiek ukatu leku bat aien artean Leturia-ren Egunkariari?

Nobelan ez zaigu arrazoiketa bakarrik ematen. Baita egintzan aurkitzen diren arriskuak, nahasteak, oztopoak agertu ere. Batez ere zorionaren billa eman ez dezaiguketan gauzetan ihardukitzeko tentaldia. Leturia, gizon den ezker, ezin bestean jausten zaigu tranpa onetan, maitemintzean, jausi. Miren, berak dionez, jainkosa biurtzen du, absolutuaren tasunez ederturik.

Arrisku au Leturiarentzat aparteko arrisku da, ibiltzearen balioa goi-goitik estimatzean azken jomuga ahaz baidezake. Beste gauzarik geienetan bezala, emen ere erdiko bidea Jaungoikoarentzat utzi bearko dugu, erabateko neurridun izatea aren doai baida, ta ez beste iflorena. Eta atzo azkenaren geiegi begiratzeak (aingerukeriak

katolikoan pipia izan dugun "intentzioaren" moralak orainoa moteltzen zuen bezala, gaur oster, alegin guztian ekiteak jomuga ahazterazi dezaiguke. Bateko, bidearen izana ahaztu, azkenari begiratuegiaz; ta besteko, bidean jo ta ke leiatuaz, jomugaren izana erauzi.

Eta z anbait eta ideal jatorrago ta ederra-goan jardun (Justizia, askatasuna, ederra...) ainbat arrisku geiago, gairera. Ze, tasun olek Jaungoikoaren izan-izaneko mufetik darienez, Aretxan antz apartekoa baitute, aise pentsa lezake artan diarduenak absolutuari serbitzen dabilhela.

Leturia, nobelaren azkenean, lagun urkoari serbitzeko jaio dela aitortzen agiri zaigu.

Zein da nere serbitzaria ez-baia, zefien serbitzaria naiz ni galdetu bear dut.

"Miren-ek bear nau; nere aberriak bear nau; nereak bear naute" Eta arrazoi guztia ta geiago du, noski. Alare, alde guztietatik arriskuen zurrumbilloz inguratua dago, eriotzeak bakarrik xehatzen dituen arriskuz. Alegia, lagun urkoari serbitze auxa bera ez ote zaio geiegikeriaren okerrez, ilusio berri bat gertatuko?

Ain zuzen au dugu ainbesteri gertatzen zaiona: konturatu gabe dabilhza Jainkoaren billa, ta beste askok, Jainkoa billatu bearran bidean atsegin artzen' dute, Ura ahazturik. Beraz, Jaungoikoa sinisten ez duten asko ta askori borondate ona ukatzeko eskubiderik ez dagolakoan nago. Are guxtiago, zuzentasun ta justiziazko eginkizunetan dabilhza ikusita. Adibidez komunismuak Jaungoikoa billatzen duela bistako gauza da. Ta alde besta, Jaungoikoa sinisten duten zenbaiten komunismuak (zer ote da au?) arritu, asko arritzen nau, baiia bildurtu ez batere...

Argiaz zerbeit

osiranzu.

Argia kiza-jario bat dalakotan iraun zuten luzaroan fisikalariek. Izan ere uste ori erabat gogo-betegarri zitzairen, orduan ezagun ziran argiaren islatze ta okertzea ulertzeko bide ematen baitziren.

Orduko fisikalarien ustetan, argia ispilluan pilota bat orman bezelaxe islatzen zan, sartu bezain saiets atereaz. Argi-izpi bat hedaleku bate-tik beste batera igarotean berriz (aizetatik uretara, adibidez), bere saies-goia heda-lekuaren zailtasunaren arauera aldatu-egin bear: Aizetatik uretarakoan zutiagotuz eta uretatik aizetarakoan etzanagotuz, alegia.

Baŕian, alako batean, ara fisikalariek (Fresnel'ek eta Huygens'ek ba-tez ere) argia alekor zalakoarekin bat etorri ezin zuten gertakari mota batzu arkitu.

Adibidez: Bera bezela autatutako bi argi-izpi bata bestearen gaŕnean erakus-zapi batera bidali ezkerro zapiaren zati arek argi betean azaldu bear lukela esan ziteken baŕian, ori gertatu bearrean, zapien argi-une ta illun-uneak tarteka agertzen zaizkigu.

Adibidezago: Xirrikitu batetik datorren argiaren bidean, zapia baŕio len, ille bat edo jartzen ba'dugu, illeak ez-tigu zapien erraŕnu bakarra emango, gei-ago baizik.

Argi-izpien elkar-deusezte ta lits-egite orrek fisikalarien argiarekiko usteak alda-arazi egin bear, argia alekor ba'litz ulertzeiŕiak baillirake. Oiek dirala ta, argi-iturri bakoitza ugin-saldo baten sorburu dalako ustera makurtu ziran; ugin baten bizkarra ta beste baten sakona batera gerta-tzen ziran tokian elkar deuseztu ta illun-une bat azaltzeak bidezko dirudi orrela.

Auek bereiz zitezken beraz "eter"-a zear hedatuko liraken ugintalde oietan:

Bizkarren arteko tartea (λ): Ugin baten bizkarretik urrengoa-renarafioko.

Maizgoa (ny): Toki batetik segundu baten zenbait ugin-bizkar igaroten diran ematen diguna (1); eta

Igaro-astia: Maizgoaren alderantzizkoa; ugin oso batek toki batetik igaroten bear duan astia ematen digu beraz.

Argiaren izakera sakonago aztertu nai ba'dugu bereala azaltzen zai-guna auxe: Argia ekaiaagandik "ateratzen" dala; ikatza erre edo sodio zati bat berotzen dugula, argia sortzen zaigu.

Zillar-biziari, berotuz, $7,84 \times 10^{-12}$ erj'en (2) energia ematen ba'diogu, igaro-astiz $84,6 \times 10^{-11}$ daukan argia ematen du.

Sodio zati bateri $3,4 \times 10^{-12}$ erj'ena eman ezkerro berriz, darion argiaren igaro-astia 20.000×10^{-11} 'koa gertatzen da.

Bietan metalari eman diogun energia darion argiaren igaro-astiaz koiztu, ta:

$$(7,84 \times 10^{-12}) \times (84,6 \times 10^{-11}) = 6,6 \times 10^{-27}$$

$$(3,4 \times 10^{-12}) \times 20.000 \times 10^{-11} = 6,6 \times 10^{-27}$$

Bietan berdin beraz; ar dezagun gogoan, aurrerantzean ere maiz ar-kituko baitugu.

* * *

Metal batek, berotu ezkerro, elektron-jario bat eman dezake; orixe da ain zuzen ere irrati-ontzien ofiarria.

Dagokien argiz argi egin ezkerro ere eman ditzakete metalek elek-tron-jarioak, eta elektron oien oldarra neurtzeko iman baten aurretik igaro-araztea naiko: Oldarra aundiago, ta bide zuzenetik gutxiago alden-duko ditu iman-indarrak.

Baŕian, metal bakoitzeko, gutxienez ainbesteko maizgo bat (enerji bat beraz) bear elektron-jarioa asteko. Enerji ori baŕio geiago eman ez-kero elektron-jarioa asi ta, ain zuzen ere, argi-kolore bakoitzeko (ots, enerji bakoitzeko) elektron guziak arintza berdinez ateratzen dira.

Fotoelektrikazko eragiŕia deritzaio gertakari orreri, ta Einstein'ek ema-ten digu dagokion legea:

(1) Bizkarren arteko tartea maizgoaz koiztu, ta argiaren arintza eman bear. Argiaren energia ta kolorea bizkarren arteko tartean dautza.

(2) Erj: Gramo bateko igikalztasun-gala daukan zer bateri zentimetro baten leia emateko adifiekko indarrak zentimetro batean egiten duan lana.

Darion elektronaren energia=

(argi eragillearen maizgoa —gutxienezko maizgoa) $\times 6,62 \times 10^{-27}$

Ona berriz ere lengo zenbaki ura bera.

* * *

Ekaiaren eta argiaren arteko artu-emanak erakusten dizkigun beste gertakari jakingarri bat dugu Compton'ena.

Elektron artera bizkar-tarte txikiko argi-izpi bat jaurtitzen ba'dugu (X izpitarikoa adibidez), eta izpi orrek elektron batekin tril egin, pilota aundi batek eta txiki batek elkar joko ba'lukete bezelaxe gertatzen da; argi-izpiak elektrona saieska joten ba'du bere erasoaz igi-arazi egingo dio. ta berak bere zuzenetik at jarraituko dio bere bideari.

Elektronarekin tril egin ondoren, argi-izpiaren bizkar-tartea lenago baño laburragoa azaltzen da, esanak lege onen arauera gertatzen dirala:

Elektronak artu duan energia=

(argiaren tril egin aurretiko kolorea — tril egin ondorengo) $\times 6,6 \times 10^{-27}$.

Ikus dezakegunez, ekaiak argi sortu edo zurruputzen duaneko guzietan.

$6,6 \times 10^{-27}$

dalako ori azaltzen zaigu. Lana astiaz koizteak ematen du, ta eztagokio beraz iru neurrizko munduan gertatzen dan ezeri, lau neurritakoari baizik; "h" deitu oi zaio, ta izan diteken "egintza-zko (lana astiaz koizteak ematen duanari orrela baiteritzaio) alerik txikiena dugu: Egintzazko "kuantoa".

Egintza alekor dala erakusten digu orrek. Gañera, lanak eta astiak osatzen duten ezkerro, igikaiztasun-gaia, luzea ta astia barrenean dauzka, eta ez nolana, azterlaria ibilli dabillenean batabestearen alderantzizko aldakuntzak elkar deuseztu ta egintza azterlari guzientzat berdina izateko eran baizik.

Errelativismoa ta kuantuak ditugu egungo fisikaren zutabe.

Berriz ere Compton'en gertakarira joaz, oar gaitezen ontaz: Argi-izpiak ebere erasoaz elektrona igi-araztean, zekarren enerjia zerbait galdu egin bear izan du; ala ere, argiaren arintza alda-ezifia dan ezkerro, bere arintza lengoa izan bear. Beraz ori gertatzeko, ots, arintza berdifenez energia gutxitzeko, **igikaiztasun-gaia** gutxitu bear.

Bańian orduan argia igikaiztasun-gaidun ote? Bai noski; bere ugin-tasuna ukatzeke (argi-izpien elkar deusezte ta lits-urratzea ulertezifenezko

bainlirake) alekor ere izan ba-dala onartu bear, Ale oieri "foton" deriz-
zaie, ta ekaiaren tasunkide dira; bere enerjia

hx-v

dugu, "h" koitz beraz.

* * *

Argiaren ugintasuna erakusten ziguten gertakarietan argia xirriki-
tu extu batetik igaroten zala ikusi dugu. Saiaketa oietan ziardutenek
auxe pentsatu bide zuten: Xirrikitu estuagoen billa zebiltzan ezker-
o metal zati bat txapal-txapal egin eta molekulen arteko bitarteak lituzke-
tela arki zitzaketen extuenak. Uste ori bete-betean egiztatu zuten, argia
metal-zati txapal bat zear igaro-arazi ta beste aldean argi-une ta illun-
uneak ematen baititu.

Metalaren molekula arteko bitarteak alde guzitarakoak izaki, argi
ta illun-uneak biribil-eran gertatzen dira, alabearrez: Erdian, kurpil argi
ta illunak tarteka ta, kanporago, illun-uneak inguru guzian era-eran.
Argia uginkor danaren egitzapen osoa.

Bañan onatx: Elektron-jario bateri (alekorra beraz) ere metal txa-
pala zear igaro-arazi... , ta onek ere itxura berdin-berdiñeko irudiak ema-
ten dizkigu. Beraz, eta ezinbestean, **ekai** ere **uginkor dala** aitortu bear!

Ona bada zertan gauden: Bete-betean uginkor iruditzen zitzaigun
argia ifioiz ekai-alez osatuta bai-legoken agertzen zaigu. Alderantziz, eta
au da arrigarrien, eguneroko bizitzak erakusten digun eta ain eskurakor
ikusten dugun ekaiak iges egin, eta ugin-talde baten itxurako zerbait
uzten digu atzaparretan.

Argiari ta ekaiari gagozkiola, une berean ale ta ugin dirala onartu
bearrean gaude, besterik ezifian, eta fisikalariek ori aitortzean jakin-
tzarien aldi berri bateri asiera eman diotelakoan nago. Izan ere giza-adi-
menak, berak uler ezifnezkoak ba-dirala aitortzean. Enziklopedizaleek eta
Frantzi-ko Erreboluzio garaikoek ezarri mai izan zuten jainko-mallatik
jetxi ta apaltasun-aitortze bat egiten du.

Ikusi dugunez, fisikarekikoak lau neurrizko mundu batean gerta-
tzeak dakarkio giza-adimenari erabat atzi ezifia, gertakariok ezpauditugu
izan diran bezela ezagutzen, gure iru neurrizko munduan egiten duten
errafuaren bidez baizik.

Beste jakintza-sailletan ere, ezta agian arrigarri filosofi-jardunerako
mistikoen esanez baliatzen dan Bergson bat aldiarekiko ta astiarekikoak
ain sakon aztertu izan dituana izatea. Emen ere, fisikakoetan bezela,
gorenmalla baten aitortza datza.

Sozialismua

— ta —

agintaritza

“Sozialismua ta agintaritza” da nik aukeratu dedan lantxo onen idazpurua. Bafio agintaritza gaiean zuzenean sartu ordez, bearrezko iruditzen zait aurrena sozialismu itzaren esanaia zerbait zeaztea.

Sozialismu itzari eman dezaiegun adierazpenaren neurrian, agintaritzari buruzko ikuspegia ere aldatu bearrean arkituko bai gera.

Definizioa emateko orduan keko meko arkitzen naiz. Ez du norbaitek alperrik deitu sozialismua “proteus intelektual”. Sozialismuaren definizioa aren baitako joeraen ezberdintasunagatik, zail egiten bazaiugu, izenta genezazke alere sozialismu geienetan arkitzen diran ideardatz nagusienak.

a.—Gizon guzien berdintasunean ofiarriturik zuzentasunean gizartea eratzeko yorana.

b.—Bidegabekerizko ezperdintasunak eta proletarioen ezbearrak, jabetza pribatuaren sorkari diran ezker, onen ezeztapena.

d.—Estadua indartsua da guziekiko ideal onen burutzalle. Bera da ekonomia egintzaren eta produkzio-bideen jabe bakarra eta berak erabakitzen du zer, nun, nola ta norentzat sortu.

e.—Zoritzar guztien iturburu kapitalista erakundea izanik, kritika ta guda egin bear zailo.

f.—Sistema zapaltzalle ori garaitua defitiekoxe, maillagabeko soziedade berdindu batean, gizona pakean bizi al izango da.

Sozialismu guziak seaska bat badute ere, jabetza pribatuaren ezeztapena ez dute berdin iritxi nai. Komunismuak, idea auek ertzeraño eraman dituan bitartean, europear sozialismua garrantzi aundieneko zenbait industri nazionaltzearrekin naikotu da. Arazo ontan beste askotan bezela aldaketa istorikuari buruz begia ernai eukitzea derriorrezko zaigu. Izen berdinpean oso izate ezperdifiak izkutatu bai litezke.

Au ola, komunismoa (marxismu-leninismu) da sozialismuaren zatirik nagusiena beretzako duan joera sozialista; eta europear sozialdemokrazia mintzatzeko betarik ez dedanezkero, onek agintaritzari buruz zabalitzen dituan dotrifiai eltzera noa. Bi tesis edo dogmak eusten diote zutarri antzera komunismuaren agintaritzari buruzko irakatsiei. Ona emen biak:

—Proletaridiaren diktadura.

—Estaduaaren ezeztapena.

PROLETARIDIAREN DIKTADURA

Gaurko pentsalari sobietarrak "proletariaren diktadurari" buruzko dotrifia dala-ta, Marx eta Engels sarritxo aotan artzen badituzte ere, batak eta besteak ematen dioten esanala oso bestelakoa da.

1847 garren urtean Engels gai oni buruz mintzo zanean onela zion: "erreboluzio sozialista au izango da: zuzenean naiz zearka politika indarra proletarioen eskuetara ekarriko duan demokrazi-arauzko estadu-erakunde bat".

"Komunistar Partiduaren Agerpenean" komunistaen lenen jomugaen artean jarri zuten, Proletarioen gizamallak politika-indarra beretzakotzea.

Andik bi urtera, 1848 garreneko uztailean, Paris'ko langilleen matxinada zala-ta ara zer zion Marx'ek: "Proletariaren diktadura gizamallan ezeztapenerako derriorezko pausoa da".

1852 garren urtean onela zion Marx'ek Weydemeyer'i zuzendutako eskutitzean "nere meritu guztia, klase burruka nai ta naiez proletariaren diktadurara zuzendua da-goala ikusaraztea izan da. Eta diktadura au ere, malla guztien ezeztapenerako, klase gabeko gizarte baterako igarobide baizik ez da".

Arrezkero tarte luze batez, etzuten Marx'ek eta Engels'ek proletariaren diktadura idea au ezertako erabilli.

1872 garren urtearen azken aldera itz egin zuan berriz Engels'ek proletariaren politika egintzaz eta diktaduraren bearrezkotasunaz, klaseen eta Estaduaren ezeztapenerako bide bezela.

Bi urtetara 1875'ko lorailaren lengoetan, Marx bera ere pentsakera ontara makurtzen asia zan. "Kapitalista ta Sozialista gizartearen artean, batetik besterako erreboluzio aldaketa arkitzen da. Proletariaren diktadurak osatzen du tarte-eko egoera igarokorra".

Marx-Engels'en idatziak aztertu ezker, aien "demokrazi arauzko estadu-erakunde" ta "mayoriaren bidez politika indarra (agintea) eskuratu bearra" esakunek garbi asko jartzen dute agerian, gai oni buruzko gaurko sobietarren pentsamentuaren bestelakotasuna.

Teori oni Lenin'ek eman zion bere kera bereziaz mintzo aurretik, laburki diktadura onen mufia azaltzera noa.

Kapitalista ta Sozialista gizartearen tartean sortzen dan erreboluziozko eraberritze orri deitzen diogu "proletariaren diktadura". Bitarte ontan Estaduak produkzio-bideen jabetza pribatua galerazi egingo du, aiezaz jabetu. kapitalista ideoloji ondarrak kentzen alegindu ta sozialista erak erriari irakatsiko dizkio. Guzientzako ondasunak bear aña ugal ditezen ekonomi-azierari

indar emango dio. Eboluzioaldi au ez da berdina leku guzietarako. Oraifartean bi diktadura mota sortu dira. Bata sobietarpean, ekonomia zelaian atzeratutako lurraldean; au gogorena izan da. Bestea Europa'ren eguzki aldeko erri demokratizetan; emen bigunkiago lotu da.

Idea nagusienak bilduaz, onela adierazienezake proletariaren diktadurari buruzko Marx-Engels'en ikuspegiak:

a.—*Soziedade berri onen zuzendaritza, guzien botoz aukeratutako alkarkuntza bat sortuko da. Legegitza ta ejekuzio-karguak aren esku egongo dira.*

b.—*Gobernua, gudaritaldea, ta burukrazi erdiratzailea superatuak geratuko dira.*

d.—*Polizi politikoa ez du zereginik eukiko.*

e.—*Botoz aukeratutako gidarien eta administrazio-adarretako langileen lantaria, beste edozein langileren saria izango da.*

f.—*Diputadu-aldunak kentzerik ez dago, izentatzaleek beste zerbait erabakitzen eypadute beintzat.*

Diktadura onen jomuga auxeda: Estadu-erakundeak jaun izan ordez soziedadearen morroi biurreraztea. Etzuen nai Marx'ek erreboluzio onen ondoren burukrazi naiz jauntxokeririk sor zedin.

Lenin eta proletariaren diktadura

Marx-Engels'ek noizbeinka erabili zuten konzeptu au, Lenin'ek estaduari buruzko bere pentsamenduaren ardatz biurtu zuan.

Asieran Marxismuaren gurasoek eman zioten esanai berberaz erabili bazuan ere, 1917 garren urteko matxinada ezkerero, Marx'en ikuspegitik saiesten diran tesis berriak erantsi zizkien Lenin'ek.

Ona emen pentsakeraren berri ematen duten esakun batzuek:

1917'ko udazkena.—“Proletariaren diktadurak mugatu ta estutu egiten du zapaltzaileen, lertzalleen, kapitalistaen askatasuna. Lantariaren morrontzapetik gizadia jaregiteko zapaldu egin bear ditugu, aien aurkatasuna indarrez porrokatu, opresioa ta indarkeria errege diran lekuan ezin bai diteke ifiolako askatasun naiz demokratizirik izan”.

1920 garren urtean.—“Proletariaren diktadura gorputz illez betetako guda erruki gabea da... Ifiolako legek mugatugabeko indarra ez du besterik esannai diktadurak. Ifiolako esirik ez duan indarrean ofarritutako aginte oso ta bete”.

Marxismuaren landara Errusi'n aldatu bearrean arkitu zanean Lenin'ek Marx'en doktrifia aldatu egin zuan. Izan ere Marx'ek etzuan Errusi erreboluzioa egiteko egokerran arkitu, ta ekonomilegeen arauz sozializatzea zail zan ezkerero, politika aldeari derriord indar aundiago eman bearrean arkitu zan.

Estaduaren ezeztapena

Ikutu dezagun ondoren, pentsalari sozialisten artean ainbeste burumini sortu dituan arazo au. Marx' eta Engels'ek, "Estaduaren ezeztapena" etorkizuneko gizarte berriaren zantzu nagusientzat bezela jotzen zuten. Produkzio-bideak alkarkuntza komunistaren eskuetan batu ditezenean, agiriko indarrak izateko arrazoiaren arrastorik ere ez du izango. Engels'ek sarritan esan oi zuan "kapitala ken zazu ta Estadia berekasa eroriko da".

Lenin ere iritzi berdifikoa zan. "Klase dun gizartea kentzeak Estaduaren ezeztapenera garamatzi.

Onelako txatalak mordoka aipa genezake. Baño naiko dira auek teori onen garrantziaz eta aren etorreraren bearrezkotasanaz kontura gaitzen.

Ageri danez Marxismuarentzat Estadia, estadu liberala, klaseduna zan, kapitalismuaren babesle ta indaremaille. Marx eta Engels'entzat bezelaxe Lenin'entzat ere Estadia klase-sorkuntza da. Sozialismuak malladun gizartea ezereztu dezanean, egoera klasista orren euskarri dan Estadiak ere batbatean lur joko du.

Lenin'en eriotza ezkerro, sobietar Batasuneko egintaritzza berria indartu ala, "Estaduaren ezeztapen" teoriak aurrez izentatzen zion jomugatik saiesteen asi zan.

Ogeigarren urtealdetik, Errusi'n sortu zan planifikatze ta goitiko eraberritu bearrak Estadia eutsi ez ezen sendotu ta indartu egin zuten. Orregatik 1930 garren urtean, Stalin'ek teoria aztertu ta ari buruz adierazpen batzuk eman zituan, Arek zionez sobietar komunistak Estadia kentze aldekoak ziran, baño aldi berean proletariadiaren diktadura tinkotu ta indartu egin nai zuten eta ortarako Estadu sendo altsu bat eukitzea beste biderik ez zegon. Estadia desegiteko baldintza giroa sor zedin, Estaduari eman zekizkiokean eskubide ta indar osoak eskatzen zituan Stalin'ek, inguruan kapitalista esiak iraun zezan artean, beintzat.

1957 ezkerro arazo oni buruz Jruschof'ek eskua asko zabaldu du ta ordura artean Estaduaren mende egon ziran zenbait gizarte betekizun, estaduz kanpoko erakunde sozializatuen eskuetan jarri zituan. Ezeztapen onen orduari buruz, Jruschof bera ere oso berandu etorriko dan ustekoa da.

"Komunismuaren leen saioa garraitsu bukatu arren ere ezeztapen onen abiada oso geldia izango da ta gizartea autoadministrazioarako eldu-eldu arki dedifian bakarrik zeoro burutuko da".

Ekonomi ta sozial-bestetze edo alienazioak erortzean, estaduaren alienazioa berez eroriko dala esan

degu; baño Stalin'en adierazpen berria ta pentsalarien dudamudak ikusita, ba liteke zalantzaren atximurra barnean sentitzea. Nola ulertu bear da Estaduaren ezeztatze au? Itzez itz ala Estaduaren kera batzuek galtzea bezela? Estadua ezeztatze onek Marx'enean "politikutasuna" galtzea aifia esan nai du. Estadu politikua, Marx'entzat Estadu klasista aifia da. Politikutasun au galtzea, klasismua eragozte, Estaduaren izatasuna ezereztea ta ukatzea bezela da. Laburtuz zer esan genezake sozialismuaren Estaduari buruzko ikuspegiatz? Bikoitza dala.

Teoriaren aldetik eszeptiku, siniskaitz, aurrezko. Etorkizuneko gizarteak ez du menderatzeko ta azpiratzeko grñarik. Estadua jabe-

tza pribatuaren sorkari da. Gizartearen asiera —bukaerak estadz— gaindikoak dira.

Egintzaren aldetik oso garrantzi berezia ta apartekoa ematen dio, muifnean estatismu da. Ukatu ordezen aren mendeko zelaiak zabalagotu egiten ditu. Gogora ditzagun Lenin, Stalin tab. Sozialismuaren berdintasunari buruzko konzepzioan sustraiturik ez du Estadua bakar koaren laguntzaille ta babesletzat jartzen. Subsidiariotasuna ukatu ta ondo-ondotik bakoitzaren eta guzieren bear-izanen erantzukizuna bere gain artzen du. Geiegizko erantzukizun au ta politika ta kultur askatasun uztargarri diralazko us-tean gizona estatalizatu egiten du.

Sozialismua **—ta** **demokrazia**

Sozialismu itzaren zabaleraz mintzo geran bezelaxe, demokraziarekin ere berdin egin bearrean arkitzen gera. Sartaldean itz oni ematen diogun esanaik, gizon ooren berdintasunetik ernetako askatasun-bizikera burura ekartzen digu. Erriak gobernuan eskuartzen duan agintza-era. Baño demokraziaren izatasuna zeazteko orduan, sozialismuak ematen digun definizioarekin bat ote gatoz? Ez, merkatarigizarteko demokraziaren aldean sozialistena oso bestelakoa degu. Lagunarte sozialista aurreko demokrazia itz gezurti bat baño ez zan. Izenez geienen naia egiteko ba zan ere, izanez kapitalisten indarpean klase altsu orren

naia ezartzeko baiño ez bai da izan. Jabetza kendu ta danak egoera berdiffean dirala, orduan bakarrik sor diteke benetako demokrazia, au da, proletariadiaren naia betetzea eragozten duan klasismua suntsifutakoan.

Proletario-demokrazi au, sobietar pentsalarien iritzian, burgesaren aldean askoz garaia goa da.

Marx-entzat demokrazia ez da agintza-era bat, ez ta mundu politiku bat eratzerazuzendutako filosofi-teori bat; agintzaera bereizi oroz gaindiko Etaduaren eta benetako gizonaren alkar-adixkidetzea baño. Estaduak sekula iristeke izentatzen duan orokartasun ori litzake demokrazia. Orregatik ez dago ifiolako konponketarik burges-demokrazi alderdikar orrekin. Sobietarren ideolojian, guretzat ezin irentszkoa bada ere, diktadurak ez du demokrazia ukatzen; klase bati buruz diktadura izan arren, besteari buruz demokrazi baita.

Estadu berezi baten agintea demokrazi ala diktadura dan jakiteko ez da begiratu bear partidu, parlamentu naiz autesketarik duan ala ez, zein klaseren ona billatzen eta babesten duan baizik. Laterri Alkartuak esate baterako, kapitalista eskutada baten onerako eraturik daudenezkero, auen diktadurapean arkitzen dira. Proletariadiaren diktadura, ordea, langilleen interesak babesten ditualako benetako demokrazi da. Ortara ezkero, proletariadiaren diktadura ta demokrazia txanpon baten bi alderdi baiño ez dira. Langilleen ona iris dezan edozer demokrazi da.

Zer eskatzen du proletari-demokrazi onek?

- a.—Enda, nazio, sexu, erlijio ta kulturaen ezperdintasunean eraikitako mugapen esi oro garaitu ditezela.
- b.—Prensa ta alkarkuntza-askatasunak ta eskubide oiek bete aal izateko, langilleek erreztasun ugariak izan ditzatela.
- d.—Boto ematea bakarrik ez da naiko. Orregatik asko dira demokrazi onek bultzata, ekonomi-kultura aurrerapen zuzentzen eskuaritzen dutenak.

Ikus dezakegunez oso bestelakoa da demokrazi kon-

zepzio au. Sozialismuaren argumentua au da. Gizonak gizona explotatzen duan bitartean, ez dago ifiolako demokrazirik. Ortarako baldintzak gizarte sozialistaren barruan bakarrik arki litezke.

Gure gaurko demakrazia kapitalismuaren seme da ta sozialismu-ideologia burges ideologiaren iturritik dator. Bi demokrazi ikuspegi auek ezperdfiak badira ere asiera berdiña dute: Biak erri mayoriaren ona billatzen dute. Baño bata bakoizkiaren eskuetan jartzen duan bitartean besteak kolektibismuaren eskuetan jartzen du on au iris-tea. Lenengoarentzat bakoizkia da aurren, bigarrenarentzat alkarkuntza. Ofiarri au jarri eskero, aixa ulertu genezake bi konzepzio auen ezperdintasuna. Problema baten bi askaera auek beren gordintasunean, indibidualismo kaltegarria ta kolektibismu estatalizatua dakarzkigute.

Sozialismu igikundea absolutua ez dala ziur egoteko Errusira begiratu besterik ez dago. Sartaldea sozializatu ala Errusi liberaltzen ari da. Ideoloji bezela Sozialismoak aurrera egingo du (ze malletaraño ez det esaten); politika bezela gutxi iraungo du. Tentaziorik gogorra ta kaltegarriena ori izan du sozialismuak. Politikotasunaren mendean erortzea. Eta bukatzeko galdera bat: uztartu al litezke sozialismua eta benetako demokrazia? Ba dira barnean ezinkonponduzkotasunik ez dutela-ta baietz diotenak; egintzan beintzat, orainarte demokrazia zulertu deguna nekez bete izan du. Beste batzuek tarteko igaro bidea demokrazi arauz eratu ez arren ere, etorkizun demokratikua ekarriko duala aitortzen dute.

Naiz erriaren ona billatu nai izan, noizbait erriaren gogoz kontra jardun duanak eman ote dezake etorkizun demokratiku baterako garantirik? Gerta bai liteke igaro bide ori geiegi luzatzea ta erriaren onaren orde agintariak nor bere apeteta bete nai izatea.

Illara labur auetan ifiola ere ezin nezake bear dan neurrian prolema au sakondu ta oraingoz zailtasuna ikutzearekin kito egiten det.

FILOSOFIAREN KONDAIRA I
EUSKALDUNERI ESKUABAZ

"Eskuara, jaldi hadi kanporat" zion Bertsulariak. Jalgitzen ari dela, manamendu harren arabera, eskuara kanporat, ezin gorde.

Ari da goraki radiotik.

Xuxen zen ere har zadin aparki liburutik, liburu izpi bat zailetik, Filosofiaren liburutik.

Urhats hori egin du JAKIN liburutegiak, Aran-zazu, Oñate, Gipuzkoan, mendi harrisuari datxikola dagon etxeko liburutegi aipatuak.

Aintzin-solasa jalgi du Jaun Zabaletak: Sokraten erakaspenak erakutsi ditu P. Iztuetak; Eskolastikare-nak E. Muxikak; Spinozarenak Ajuriagojeaskoak; Bergsonenak, Etienne Salaberryk.

Axularren saila ez da iduri zuen bezela, izan larre utzia.

Heia gazteak. Bada zuentzat lan.

Gure goresmenak JAKIN liburutegiari, haren in-dar baliosaz.

Herria, 11-XI-65.

Liburu berriak

Arpidedunei JAKIN taldearen ardurapean argitaratutako liburuak 10% beharapenarekin emango zaizkie. Eskatu hortarako zuzenbide honetara:

Dirección de JAKIN
Aránzazu — Oñate
Guipúzcoa

EUROPA

Atera berri du JAKIN-ek EUROPA liburu. Polita, atsegia, gaurkoa. Nik, azkenengo urte hotako euskal liburuetatik onenetakotzat, ematen dut, gaiari bagagozkio behintzat: Sarrera, Europa gure erria, Europa alkartu-naiak ixtoria zear, Europaren izaera edo ideia, Europaren bidekurutzetan, Pio XII-gna. ta Joan XXIII-gna. eta Europa Alkartua, Minorien izkuntza ta kulturak Europa alkartuan. Europa ta Euskalerria, Txina ta Japoni Europaren dirdaripean, C.E.E. ta laterkideen eskubideak, Politika esturkturak europear Elkartasunean.

Euskeraz behar lituzke, bai, hola-ko lanak ugari. Zorionak, beraz, JAKIN-i.

ALTZIBAR.

1963-ko abenduaren 4-an Nazifio-Alkartuak jakintsu talde batek Ego-Afrikako bizimoduari buruz estudio bat egin zezan agindu zuten. Horien enkueta ta komentario batzuk 1965-ko apirilko "El Correo"-n argitaratu ziran. Handik hartu ditut nik dato batzuk, laburpen antzera-edo.

Onuragarri

izan dezaigukela uste dut geure mundu txatxar hontatik pixka batean ateratzea
—alienaziñoari lekuri utzi gabe noski—,
bizi geran munduari ta bizi dugun egoerari begiratu arin bat emateko baiño ez bada ere.
Ezagutzeak ez baidu txarrik egiten,
ta onik asko bai sarri. Ez ala?
Alkar ezagutzeak alkarrekiko maitasuna sorrarazi baidezake, gaiñera.

On-egin deizuela, ba,
naiz-ta mami baiño ezur ugariago izan,
bai Ego-Afrikako beltzetan ta bai idazlanean.

Ego-Afrikan

IZTEGIA :

(Ego-Afrikako Errepublikak, 1950-an, pertsonen kategoria neurtzeko emandako ezaubideak).

ZURIA : Zuri dana, edo zuri ematen duana.

BELTZA : Afrikako triburen bateko semea.

KOLOREDUNA :

Zuri ta beltz ez da beste edonor. Asiatarrak, Kabo-koak, esaterako.

"Hesi" hitza darabilt sarri idazlanean. Hitz honekin hain zuzen beltzentzat eratu-tako toki (herri) aproposak adierazi nahi ditut. Gogoan har beza irakurleak, mesedez, ohartxo hau.

Ego-Afrikako Errepublikak
millaka famili aterarazi ditu irietan zeuzkaten beren etxeetatik,
eta millakak izan dira "hesietara"
sartuarazitako afrikatarrak.
Eundaka milla arrapatuak eta gaitzestuak
lekuz aldatzeagatik.
Zuri ez diranak ez dezakete kategoriko enpleu berririk hartu.
"Apartheid"-en kontrakoei gogor egiten zaie,
ta ezurretaraifio sartu diete ikara.
Zuri ez diran taldeetako buruzagiek
espetxetuak edo aldenduak
ta baztartuak izan oi dira, eta "apartheid"-en kontra joateagatik
millezka pertsonak han dira kartzeletan,
ifork ez dakialarik askatuak noizbait izango diran. Etabar.

Bitartean, Gobernuak propaganda hizugarria hedatu zuan,
barruan eta kanpoan,
bere politika "banatuaz egindako hedapena"-tzat emanaz.
Nazio-arteko iritzia nahastu
ta besterendu nahian zebillen.

"Apartheid"

politika

joan-mari torrealday

Kristianismuaren izenean gauza asko egiten dira.
Kristianismuaren izenean gizona saltzen da, ta ondo
dago.

Baifia, era berean, Kristianismuaren izenean, gizona-
ren aurka ere jokatu oi da. Ta hori ez dago ondo.

Kristianismuaren izenean: topikoa da ia.

Ego-Afrikako "apartheid" zaleak ere Kristianismuaren izenean obratzen dutela orrela esan oi dute. Egia osorik: Kristianismuaren ta europear arrazaren izenean ari dira egiten dituztenak egiten.

Baifia jakin nahi nuke ea euren ideal hoiek defenditzearren asi ote ziran lanean, ala —aitzitik— desir-kunde oker ta malapartatuen eragifnez asirik, gero beren egoera geldia ez astintzearren —zailla bai da, ez dago ukatzerik— arrazoi ta ideal billa ez ote ziran asiko, jokabide horri zimentarri bat jartzeko asmotan. Interesgarria litzake-ta jakin nahi nuke, bai. Hau da, garbi: bi ideal hoiek salbatzearren jokatzan al dute, ala beren jokabidearen defentsarako —aitzaki bat— esku-ratu ote zituzten idealok?

Oro ar ta gauzak orrela, gaiñera, europear arrazaren alde jokatzeko, zeren bildur diran ezin asmatu nik, ze, bein eta berriz ta garbi asko, azaldu dute afrikar alderdi politikoak, gizarte aurrean, arraza guztien berarizko berdintasuna onhartzan dutela, ta nahi dutela gaurtik asita. Eskubideetan pare, eginbearretan pare, berez. Ez ifior "dominatzen", ifior ez esklabu. Beraz, sospetxatzekoa ez al da totalitarismu maltzur, ustel ta madarikatu baten jokabidearen gehiegikeriak dirala Ego-Afrikako zurien abuso hоек? Berdintasunari, askatasunari, komunismuari, bildur gehiegi baidiete gauza onerako. Ta armetan, polizian, indarrean, fede asko. Nahi nuke jakin.

Ego-Afrikar —saietsetik bada ere— zer ikusi ba duen ezkerro, ikusi dezagun beste zer hau.

Ezin ukatu. Ideoloji bat eratzen ari da gaur munduan. Ifioiz baiño zuzenagoa, esango nuke, ta ifioiz baiño Kristauagoa ere. Ta ideolojiak garrantzi aundia du herri baten bizitzan, munduarenean duan bezanbat. Horigatik diot munduak nolako egitura —taia— presentatuko duan jakiteko, zein ideolojiak garaitzen duanetik somatu gindezkela. Baldin ideoloji bat okerra ala zuzena bada, berdin, geroko praxisa okerra ala zuzena izango da halabearrez.

Geroko praxisa esan dut. Apropos esan dut "gero-

ko" hori. Ze ideoloji baten hedaduran etapa edo urrats batzuk berezi baigenitzake, pentsaera hori munduan zabaldu ta sakondu aurretik.

Honela azalduko nuke:

Politikatik aparte dagon —hobe, politiku ez dan— minori baten eginkizuna izan da maizenik ideoloji berri baten sortzea (ta hala komeni da, sobrare). Minori hori teorikua da, teori utsa egiten dute hoiek, eta politikuak, hortik hartu bai —kasurik onenean— ta praxisan egizatzen dute teori hori. Hau da hain zuzen bigarren etapa: teoriaren aplikatzea, alegia. Eta, irugarren urrats, iende xehe artean ideoloji horren zabalkuntza —esango nuke— geroago datorrela normalki. Aplikatzera-koan jabetuko da kaleko iendea eginkizun hoi en arrazoietaz, politikuen hitz ta mintzaldi ta propagandaren bidez gehientsuenetan. Alare, bigarren ta irugarren etapak alderantzi ditzazte zeinbat aldiz. Bulgarizazifio aldizkariak direla merio iende arruntak ideoloji horren berri izan dezake, naiz-ta oraindikan politikuak onhartu ez forma hoiek. Ez al da gure kasua?

Egiari uko egin gabe esan genezake, gaur ifioiz baiio gehiago, ideoloji, pentsaera, baten garrantzia neurri gabekoa ta ezin uste haifakoa dala gizakume ta gizartearen egiturai bagagozkie, bizimoldeai lotuak bizi geralako lau aldeetatik. Nazismua ideoloji bat Estaduaaren politika biurtuta besterik etzala esateak ez al du balio?

Gaur eratzen dijoan ideolojia, bestelakoa da, ordea. Pertsonaren nortasunaren kontzientziartzea, eskubideen berezko berdintasuna, askatasuna, minorien "aunditasuna", gaurko konkistak dira hauek danak.

Eta dudarik gabe, langillen goraldiak, emakumeen gizarte-eskuartzeak, herrialde guzien berjabetasunak, (ta abarrek), markatuko dituzte gure garaia. Ta ideoloji baten ondorioak dira. "Pakea lurraldeetan" enziklikan, Aita Santuak "garaien seifnaleak", "aldien zantzua" izendatzen die lorkizun hoiei, horixe agertuaz. Hemendik gizaldi batzuetara gure garaia "Historia" liburu zabal ta aundi batean azaltzen danean, hola ta hola pentsatzen zuten orduan agertuko da liburu har-

tan. Bildur naiz, ordea, ta ez dakit, hain ongi obratu dugunik esan ahal izan dezaten, espezziño gehiegi bai daude. (Oraindik —egifietan— lehenengo etapan gaudela ez al genezake baieztu? Galde egiten dut).

Espezziño ugari (?) hoietako bat Ego-Afrikan geratzen dana da, dudarik ez. Ta Nazifio-arteko konzientzian krisisa sortarazi du Ego-Afrikako Gobernuaren jokabideak. Egia da, alare, han neurri zabalean —edo neurririk gabe?— jazoten dana, orobatsu ta aldeak alde beste anitz tokietan ere arki dezakegula, mugatuxeagorik, hori bai. Oraindik orain politikuen artean ez dala zabaldu ideoloji berri honek ematen du. Gazteak, bai, bizi dute pentsamodu hau. Ostera, gazteak ez dira oraindik munduaren ardatz. Naiz-ta laister barru iritxiko bai dira ortara ere. Horigatik permiti bekit, gaurkoz, kontu egitea biarko estadugilleak, politikuak, pentsaera hau, "Pakea lurraldetan" ta ONU-ren-ta ideoloji hau, onharturik, praxisara dezaten molda. Zenbat egitura, gizarte-bizimoide, ez ote lirake aldatu beharko orduan?

Renazimentu berri baten abiaturik gaudela pentsatzen dut.

* * *

"Muga jarri ta azkenik deuseztu ez baldin badugu egiten, agerian dago enda-gudua munstro ondartzaille bat biurtuko dala. Ta bere aldean, lehengo ta gaurko ideia ta erlijio burrukak familiko sesioak emango dituztela".

U Thant, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak, pasa dan urtean, munduan arraza bereizteak —discriminación racial— ekarritako ondorio negargarriak azaltzean.

Gobernuko zuzentzailleak kargutu dira noski zuri ez diranak ez dutela sekula sekulatan ondo eraman-

go, umeak bezela tratatuak izatea, eta eskubideen berdintasuna eskatuko dutela goiz edo berandu. Arraza talde garrantzitsuen berjabetasuna dala zurien nazifotasuna ta interesen salbamendu bakarra ere aitortzen dute. Baiña zurien "nahiara" hori lortzeko "hesietara" sartu dituzte afrikatarrak, haietan, borondate baziñe, askatasun osoa izan dezaten. Ta zuriak geratuko dira beste lurralde guztian, "zurien lurraldean". Formula bezela ederki dago nunbait, autodeterminazioa defenditzen baidute, baiño kontu egin dezagun eunetik 13 bakarrik

dala "hesiak" okupatzen duten terrenoa, ta zuriei %-tik 87 geratzen zaizkiela. Ta, jakifia, ez dute hor beltzak batere eskubiderik eukiko aurrerantzean. Ta ordea, beltzak 11 milloie izan. Ta zuriak 3.

Hauxe da "apartheid" politika.

"Hesi" hoiek direla afrikatarren lehen lurraldeak, kondairari gezurra sartzea da, ta gaurko errealidadeari iseka egitea. (Hori defendittu

theid" politikari aurka egiten dioten partidueri banatu zizkieten botoak.

"National Party" hau 1948-an iritxi zan agintera. Partidu honek lege asko argitaratu zituan arraza diferenteen arteko alkarren hartueman sozialak deuseztuaz, "hesietatik" kanpoko afrikatarren eskubideak lotuaz, eta tribu-sistema indarragotuaz.

"Apartheid" politikari buruz iritzi bat:

"Apartheid" politika hori moralari bagagozkio iguingarria da, intelektualki parregarria, ta espiritualki defenditu-ezifia".

(1962-ko azillaren 12-an, jaun Patrick Wall-ek, Batzar Nagusiko 4-garren Komisifioan, Erri Batuen delegazifioaren izenean Parlamentuan hitzegin zuanean).

nahi lukete Gobernuoak, ta saiatzen dira hortan, bai). Afrikatarrek eumetik 38 bakarrik bizi baidira gaurregun "hesietan", ta lurralde hoiek gaiifera, bizitzeko hainbat emateko ere ez dira gauza; orain bizi diran erdieri hortxe hortxe eman lezaiekete. Urietan, zuriak eurak baiifio afrikatarrek ugariago daude. Baserriko "zurien lurraldetan" afrikatarrek zurien aldean lau aldiz gehiago egiten dute.

5-tik 4-k ez dute herrian aukera-eskubiderik. Zurietatik botoemaille erdiek bakarrik boto eman zioten—1960-an— Alderdi Abertzaleari, eta gaiiferakoek Gobernuaren "apar-

1951-an "Bantu Authorities Act"-ek jatorrizkoen Aholku Errepresentatiboa oigetu zuan eta bantuen "tribu-agintariak" jartzeko eskubidea eman zion Gobernadoreari. Azkeneko erabaki hau etzuten begi onez ikusi afrikatarrek, ta kontra asi ziran. Baiifia berealaxe itto zituan odoletan poliziak tentaketak oro, mehatxu, kastigu ta kartzelaren bidez. 1957-an ta 1960-an Afrikatarren Erresistentzia erabat desegindua geratu zan.

Hauxe da "apartheid" politika.

"Promotion of Bantu Self-Government Act" zala-ta, 1959-an,

Parlamentuan autaketarako boto zeukaten afrikatar bakar hoiek berak ere, galdu zituzten euren esku-bideak. Lege horrek berak agintzen zuan —“orban beltzak” kendu behar zirala-ta— lurraldeetan zear

zeuden 264 “hesi” hoiek 8 lekutan bildu zitzan, polliki polliki, agintari ta guzti. 1962-rako Transkei ta beste 5 lurraldeetan ba ziran agintariak. (Bi milloee ditu Transkei-k).

“Bantustans” kreatorren Gobernuaren jokabide hontatik konklusio batzuk atera genitzake garbi asko

1. Afrika-erriak ez abots ta ez boto ez daukan Gobernu baten legeak dira hoiek. Eta endaeen banatzera eta 7-tik sei tokitan afrikatarrei beren eskubideak ukatzera jotzen dute lege hoiek.
2. “Bantustans” hoiek —“hesi” batuak— etzituzten afrikatarrak eskatu, eta euren borondatearen aurka jarriak izan dira. Afrikatar zuzendariak preso dira, edo ixillera behartuak, eta Transkei-koak ez dute ez alkarkizun-eskubiderik, ez hitzegiteko askatasunik.
3. Transkei-ko delako zorioneko autonomi hori lau alderditik zearo mugatua dago. Transkei-ko buruzagietako batek, Sabata Dalindyebo jaunak alegia, zera zion gutxi dala. Alegia: “Transkei-n eman diguten askatasuna, olloak ollategian dutenaren parekoa da. Ganadu ukullu bat, hori baiño hobea”.
4. Programak tribu-sistema finkatuazazigoa bihurtu nahi du ta afrikatarrak nahi duten euren arteko berdintasunaren kontra doa hori.
5. “Hesi batu” hoiek, ekonomiari bagagozkio, ez dira gauza. Gaur bertan bizi diranei ere bizimodu eroso bat ezin dezaket eman. Ta orain lau milloee baiño ez direlarik. Gaiñera, mineral-bide gutxi dago bertan, eta industririk ia ez.

Hauxe da “apartheid” politika.

Zer erdietsi nahi dute, beraz, “Bantustans” hoiek kreatuaz? Zurien supremazia gogortu, finkatu, tribuko buru giten dutenei lagundu ta indarra emanaz;

Afrika-erria bananduaz (batzuei bai ta besteai ogibide ez ematearekin). Horrela, gaiñera, herri iritzia engaiñatzea, iruzurtzea, lortzen dute.

Aipatu dugunez lehen, Ego-Afrikako Errepublikaren Gobernuko politika territorio gehienez —danean ez bada— zurien nagusitza mantentzea da. Orregatik, “hesietatik” kanpo arkitzen diran afrikatarrek atzeritarrak dira eurentzat. Ta “hesietatik” kanpo egoteko baimen hori, zurien serbitziora egotekotan bakarrik ematen zaie beltzei. Agi denez ba, noiznai “zurien urietara” sartzerik ez daukate afrikatarrek. Baimena behar bada hortarako. Ta beren familiekin “zurien lurralde” hoietan bizitzea erabat debekatuta dago.

Afrikatar batek edo bizi-biderik ez baldin badauka edo bere egoteak “problemarik” sortu badezake, egotzia izango da holakoa.

Hauxe da “apartheid” politika.

1962-ko azarotik 1963-ko agostura 40 uri ta errietan arraza-taldeentzako “zona”-k kreaku ziran. “Apartheid” politika horregatik, belanez belan, bizi izan duten lurraldeak uztera obligatuak izan dira millaka asko jende, beltzak geienak. Eta Kabo-ko probintzian ziran 250.000 afrikatarrek “hesietara” desplazatzen ari da Gobernuak, toki hura zurientzat eta “koloreduntzat” usteko asmotan.

Hauxe da “apartheid” politika.

Zenbat problema dakarkian lekuz aldatze honek Jainkoak bakarrik daki. Segurtasun-falta, erresomifia ta mindura sortzen ditu betiere.

“Bantu Laws Amendment Act”-ek —“morroien buruzko legea” izen datuak— agintzen du ez ditezela afrikatar morroiak beren ugazaba zuri-entzera bizi ahal.

Fabrikak-eta, naiz-ta afrikatarren eskuetan egon oraindik banaka batzuk, ez dute urietan hedatzerik, 1963-tik ona.

Askotan esan da afrikatarren aiherkunde, mindura ta gorrotorik garratzenak, "igarobide-txarteleatik" datozela, bearbada. Alegia, edozein urira sartzeko ta hemendik hara joateko ere txartelaren bearrizanean arkitzen dira beltz gizagaixoak. Horrela, euren ibillaldiak eta higitzeak lotuak, kontrolatuak, gertatzen zaizkie. Azkeneko urte hauetan sarri jeiki dira "esklabotasun seifiale" hoi kontrako, batez ere, gogoan hartzeko modukoa izan zan, 1960-an, Sharpville-koa, zernolako zigorkadak etor zekizkieken jakifnaren gainean. Etor zitzaizkien, bai, sobrare.

Beltz ez dan bat karnet gabe hartzen badu poliziak, ez da ezer gertatuko segurutik. Baiña, deskuido, beltzetako batek ez baldin bada kar zorioneko txartel hori —naizta etxean ahazturik laga— izugarriak artu ditzake, ta azkenik, "desterratua" izan oi da, multa ordaindu ondoren.

"Kontrol-txartel" hoietan ematen da, esaterako, uri baten beltz batek egin dezaken egonaldia, zergak, etabar.

Gerta liteke —askotan jazoten da— senar emazteak txartel gabe arkitzea. Arrapatzen badituzte, nola bakoitzak bere sorterrira joan behar duan, ez dute beharbada, alkar ikusterik izango aurrerantzean. Ta beren seme horrek, baldin euren tatekin joaten bada, gero bere jaiotzako uri hortara bihurtzeko eskubide guztiak galtzen ditu.

M. J. Kongar-ek:

"Gizon edo giza-talde baten azitiko bakoizkeria, txarkeria ez dan beste arrazoiategatik egitea, ta batez ere, beti eman oi diran berezko izaeraren izenean egitea —gizataldeak erabat desberdiñak gerta zitezela egingo bai lukete—, hori, Idazteunaren ta Kristianismuaren mintza-moldean, ateismua da". —Revue d'Action Populaire, azilla 1960.—

Ta bera ere baimenaren beharrean arkituko da gero.

Endazalekerizko politika honen karakteristika bat bezela agertzen da kondenatuen zenbaki hain ugaria. 1962-an, kondenatuak 384.497-tik gora ziran. Hau da: milla ta gehiago egunero. Beharbada, ez da harritzekoa legetarik baten bati uts egitea ere, ainbeste baidira, izan ere.

Afrikatarrak, "hesietara" desterratuak izan ditezen beldur dira une guztietan, Gobernuak gero ta gehiago ekiten baidu "apartheid" politika horretan. 4.254 afrikatar emakume ta 677 ume bidali zituzten Joanesburg-etik, 1962-an.

Hauxe da "apartheid" politika.

Bialketa hauek dakarzkiten problemak hizugarriak dirala ez ikusteko itsu ta erdi izan behar du batek, benetan.

"Star" Joanesburg-eko periodikoak zion:

"...Beste mutiko bat bere gurasoekin bizi zan. Hil zitzaizkion aita-amak. Ta orduan Joanesburg-era aldatu zan bere osabarekin bizitzera. Txartelik etzeukala-ta arrapatu zuten egun baten. Ta urian etzalako jaio ta nola etzan bertan 10 urtean bizi, bidali egin zuten gizajoa.

Baserrira joan zedin, esaten zioten lagunak, baiña gurasoak hil ezkerostik, galdu baizitun

hartuemanak noski lurralde hartako jendeekin, etxerik eman liokenik etzeukan han. 17 urte ditu hurran, ta oraindik bere osabarekin bizi da legetik kanpo, ez dutela "arrapatuko" ustetan.

Zer etorkizun ote dauka gazte honek? Bera ezer egin gabe bizi dan artean, osabak alimantatu beharko ote du, ba, hil arteño?

Harritzekoa ote da, ba, gero, kondiziño hauetan, gazte hoiek "tsosis" edo gaizkille bihurtzea?"

Errepublikak zurieri munduko bizi-mailarik gorenetakoa ematen die. Zuri ez diranen lansasaria, ordea, zurienaren apurbat besterik ez da.

Beltzei estudiantzea-ta, espezializatzea-ta, alperrik zaie. Zertarako ikasi alturako ofiziorik —berdin kamionero ta barman izatea ere— zurientzako izango baidira betiere?

Eta lege hauek ematea errez zaie Gobernukoeti, ez baidaukate han esku-sartzerik ezertarako ere Afrika-tarrak. Sindikatu-eskubiderik ez dute, eta afrikatar sindikatoak ez ditu Estaduak ontzat ematen, hainztat hartu ere ez baiditu egiten. Uelgak bedekatuta daude, ta sor-

tu ezker 1.000 "rand"-en multa —rand batek 70 peseta inguru—, edo iru urteko "hotela" edo biak batera, irabazi dituztela ba daki-te ondo asko langilleek.

Urtero, "Immorality Act"-i uts egiteagatik eundaka kondenatuak izan oi dira. Lege horrek ezkontza nahastuak galazoten ditu, ta arraza diferenteen arteko sexu hartuemanak ere berdin. "Moral-desordenuen" aurka dago legea noski, euren ustez (komententziaz, hobe).

Legerik ez badago ere, ez du uzten Gobernuak deportetean ta jolasetan ere arraza diferenteetakoak batera egon ditezten. Arrazabanaketa "eskatzan" du, kastigu bidez. Ekipo nahastuak ezin izan dute nazifio-arteke kanpeonatoetarako muga-baimenik lortu izan.

Edukazio-arloan Gobernu asko sartzen dala esan beharrik ez. Ta eskua sartu beharrean anka sartzen duala ere ez da harritzekoa.

Zearo kontrolatua dago edukazifio guztia, goitik beheraifio. Agi denez, ikastola guztiak Gobernuaren eskuetan arkitzen dira. Arraza ta tribua oifarriztat harturik ematen zaie jakintza, eta zuri ez diranei betiere zurien menpean egoteko haifnako edukazifioa besterik etzaie ematen. Era berean, inglesa ta "afrikaans" —afrikatarrek euren artean entenitzeko izkera— ere ez zaizkie astean bi ordutan baiifio ematen, ofizialki. Hori dala-ta, ez dute gaifnera ateratzerik, ta beti

izango dira, horrela, beltzak zurien morroi, bai lanbide ta bai ikasbideetan.

Afrikatarrek euren artean ez dezaten alkar ulertu —7 hizkuntza ofizial baidauzkate— ta jakintza ta hartueman kontuan —beste danean bezela— zurien azpitik jarrai dezaten eramanda dagoala politika-jokabide hori esatea sobran dagola uste dut. Entzun dezagun, ostantzear, eskatzaille batek "Komite" bereziaren aurrean deklaratu zuan zera. Alegia:

"Sistema horrekin, inglesa ta afrikaans-a oso gutxiestuak geratzen dira, eta horrela, tribuetako hizkuntzak mintzatzen ez dituzten zuriek zuzendutako ekonomia batera moldatzeko, ta beste tribuetako afrikatarrekin komunikatzeko ere, gaiztasun zailagoak dauzkate oraindik afrikatarrek".

"Apartheid" politikaren ondorio makurrak hoiek bakarrik balira, tira. Miseria ba dago, janik-eza, gaixotasuna, famili-bizitzaren eten-dura, umillazifioa, arrazarekiko tensifioa. Desordenua ugari.

Enda-banaketa horregatik, zurien ta afrikatarren arteko lansariaren proporziifioa, meate-industrietan 15-tik 1-rakoa da, guixi-gora-behera; transformazifio-industrietan, 5-tik 1-rakoa.

1960-an, biztanletza totalaren

eunetik 19.3 egiten zuten zu-riak, ta errenta nazionalaren %-tik 67 hartzen zuten. Afrikatarrak, ostera, eunetik 68.4 osatzen zutelarik 26.5 hartzen zuten. Eta "koloredunak" eta asiatarrak eunetik 12.4 egiten zuten, eta %-tik 6'5 hartu.

1959-an, 425 libera esterlina-koa zan urteko errenta zurientzat; 39 libra afrikatarrentzat; eta 54 libra asiatar ta koloredun jendeentzat. Alde ederra.

Afrikatar familiak irabazten dutena, behar-beharrezkoa zaienaren parera —ezta gutxiagore— ez dala irixten agertarazi du enkueta batek. Gose asko dago. Ta umeen arteko heriotza asko, halabearrez. Hansen-ek —Kabo uriko Unibersidadeko umeen osagilleak deklaratu zuan, 1962-ko urrillan:

"1-tik lau urteko umeen heriotzak bantu umeen artean 25 bider ugariago gertatu oi dira haur zurien artean baiño, koloredun umeak 15-ko proporzioan gehiago".

Eunetik 5 ume bantu "kwashior-
kor" gaixotasunaren "pipiak" jota daude, ta medikuek diotenez, gaixotasun hori agertzen danean, kolektibidade bat gosean bizi dan seifalea omen da.

Afrikatar umeen heriotza mun-

duan gorenetakoa da, nagusienetakoa: millatik 200, urietan; eta 300 ta 400 herrixkaetan. Ordea, zurien artean ez da holakorik jazoten: millatik 27 bakarrik, ots, munduko bajuenetakoa.

* * *

Aipatu dugu nola afrikatar batek ez duan uri-herrietan baimenik gabe sartzerik, eta ezin ditekela bertan gera 72 ordutik gora, lan-baimen baten jabe izan ezik. Afrikatar bat ezin da uri baten bizi, uri hortan ez baldin bada jaio zanetik bizi izan, edo, bestela, ez badu, 10 urtean, ugazaba bat-berarentzako lanegin. Afrikatar emakume edo mutiko batek, berdin, ez dauka uri hortan bizitzerik, esandako baime-
nen jabe dan gizonaren emazte edo seme ez baldin bada. Ta holako kondizioetan bizi diran senar-emazte hoiiek, gaiñera, 72 ordutan xoilik alkarrekin egon ditezke. Ta hori, agintariengandik lortutako baimen berezi batekin, arrazoia emanaz gaiñera, esaterako, seme bat euki nahi dutela. Ta hola.

Hauxe da "apartheid" politika.

Sozial-problema hizugarriak er-

narazi dituzte lege ta erreglamentu hauek. Uri hauetan, afrikatar sasi-semeen proporzioa, oso haundia da.

Durban-eko sendakintzaren buru egiten duanaren informea zion, 1961-an 3.665 sasikume jaio zirala, danetara jaiotakoak 5.864 zirelarik.

Zigorkadak oso ugari banatzen dituzte agintariak. Estadistika ofizialak diote, azkeneko 10 urte honetan 850.000 zigorkada jo dituztela. Gaur, 80.000 urtero, 17.000 "errudunei".

"Apartheid"-en politika-zaleak ere egoera honek ondo-eza, gorrotoa, mindura, arraza-neurketak, etabar, ekarri dituala erruz, kargutu dira.

1963-ko maietzean zabaldutako "General Law Amendment Act"-ek agintzen du, beste lege askoren artean, pertsona bati delitoren bat egin duanaren antzematen bazaio, edo legauzpen horren berri badaki, 90 eguneko espetxea eman dezaiola holakoari, baltete epairik gabe. Lege honen kontrako kritikak erruz atera ziran, Ego-Afrikan eta estranjerian, ze, politika horren etsaiak ziotenez, estadu-polizi bat kreatzea zan hori egitea.

Justiziko Ministroak, gaur, eskubidez beterik dago: Organizazio politikoak eta biltzar ageriak debekatu ditzazke. Pertsonaren ibillaldi ta mugimenduak zearo lotu ditzazke. Al-

"Politiku komunidadeen arteko alkarren hartuemanak egiagan eraiki behar dute. Eta egiak, ezer baiño lehen, hartueman hoietan edozein endakeri (arraza-keri)-kutsu baztertu dedilla eskatzen du; beraz, politiku komunidadeak ezpairik gabe, jatorriz alkarkide dirala aitortu behar da. Geroztik, bakoitzak ba du eskubide berbera bizi izateko, ugaltzeko, hortarako behar duten irixpide izateko; horrela bakoitzak izan behar du aurren eginkizun hori bere gain artzen; eta azkenik, ba du izen ona ta zor zaion begiramena izateko eskubidea ere". —pakea lurraldetan—.

dizkariak galazo ere bai. Askotan, gaiñera, ez dauka bere egiñen arrazoirik eman beharrik; ta sarritan, aski zaio komunismuaren alde jokatzen zuanaren akusatzea, komunismuari esankizun hedatua eman baidote, ta, horrela, "apartheid"-en politikari oposiziñoa egiten dioten era guziak komunismua hitzaren barruan sartzen dituzte.

Espetxeetako komisarioak deklaratu zuan 5.293 pertsona izan zirela 1963-an espetxetuak, Estaduaren segurtasunaren aurka jokatzearren. Tabar...

"Apartheid"-en kontrakoak konturatu dira noski ez dala, indarka bidez ezik, lurraldeko biztanle guzien eskubide berdintasunik lortuko iñoiz. Praxisarekin konturatu dira hortaz nunbait, ze, izan ere, bide pakezale batzuk erabiltzen saiatu dira Ego-Afrikarrak, eta, ordaiñez, Gobernuaren zigor makurra besterik ez dute erdietsi.

Aprobak enseiatu dira, sobrare. Ara bat:

Kanpafia bat egin zan, 1952-an, bidezko etziran legeen aurka, eta 8.500-tik gora detenitu zituzten "apartheid"-en erreglamentuari utsegin ziotela-ta. Eta beste boykott, eta oporketa asko izan dira.

Orobat ta bestalde, kontraketa honi gogor egiteko, askatasun-gurari hau erroetan birrintzeko, Gobernu indar armatuak ugaritzen ari da gotik. Arma-mentuen produziñoa, eunetik 80-ra jaso da urte hontan.

Estaduaren politika bihurtutako arrazazale ideoloji baten ondorioa da Ego-Afrikan gertatzen dana. Ez da politika holako edo halakoa dalako. Ideoloji oker bat praxisara eramana besterik ez da horkoa. Nazismoarekin berdin gerta zitekean.

Aitziki, zuri ez diranen organizazio gehienak —gehiak, ez denak— guzien berdintasuna eskatzen dute, arraza banatzerik gabe, ta berdintasunari buruz, danekiko elkarriketaren atzetik dabilta, asko dala. Poztekoa da, baita ere. “apartheid” politikari oposiziñoa egiten diotenen artean arraza guztietakoak lanegiten dutela jakitea, zuri askok ere bai.

1961-ko abenduan, Nobel Saria hartzerakoan, deklarazio gogoangarri haxe egin zuan afrikatar Luthuli buruzagiak:

**“Ego-Afrikako benetako abertzaleak —beren ize-
nean ari naiz ni mintzatzen orain— eskubide demo-
kratikoan betetasuna ez bada, ez dute deus onartu-
ko... Eta gizarte-jokabidean, arraza mugaen deusez-
pena ez bada, ez dugu ezer ametituko. Ta hau guz-
tia, ez dugu sortzez afrikatarrak diranentzat xoilik
eskatzen. Ego-Afrikako guztientzat eskatzen dugu,
ala zurientzat, nola beltzentzat.”**

Batzar Nagusiko 616 B (VII) Erabakian Nazio Alkartuak erabaki zuten Ego-Afrikako gizartea bezelako arraza diferentekin eratuta dagon gizarte baten eboluziñoa hobeto joango dala “legegintzak eta praxiak le-
gearen aurrean pertsona guztien berdintasuna lortzera jotzen dutenean, endatuta, sifineste edo kolore diferentzirik gabe, eta arraza-talde guztien bi-
zitzia ekonomikoa, soziala, kulturala eta politikoa berdintasunean oinarriturik dagoanean”.

nik bizi nuen **ALKOOLISMUA**

Gaurko gizonak materia ta plazerra menderatu dituala, esan oi da. Baiña, baita ere, materia ta plazerra gizonaren kontra eraiki direla, ta materiaren eta plazerraren oinpean arkitzen dela gizona. Ta batek pentsatzen du: edariaren,

Bizitzeko edan nuen estrifia. Urrena edateko bizi izandu nintzen. Ta azkenik, alkoolaren mendean edar bear izan nuen, ez dakit bizitzeko ala iltzeko...

alkolaren kaso!... Alkoolismua. Axnitz espezialista ta aldizkari famatuek gaurreguneko gaitz bildurgarrietako bat bezela salatzen dute. Nazio aurreratuetan eta osatugabekotan. Numeroak kantari. Frantzia-k egiten du guztien buru edari kontu honetan: 100-eko 10 frantzitar alkoolizatuak omen dire. EE. UU., Ego Afrika, Chile ta Australia bigarren mailan: 100-eko 6 zurrutero porrukatuekin. Ta, gure artean? Araba, Naparro ta Gipuzko txapeldun..., estadistikak balio badute.

JAKIN-en azaltzen dugun artikulu bixi ta interesgarri honen bidez, Iñaki Albisu Jaunak berak biziriko alkoolismu trajeriaren esperientzi latza agertzen digu. Iñaki Albisu ez duzu espezialista bat, baizik alkooliko "kanonizatu" hoietakoa izaki, bizitza berri batera jaikitzeo balorea izan duan gizon jatorra. Eta bere burua salbaturik ikustean, bere anai alkooliko guztiak salbatu nai lituzkena, bizitza ederra delako ardo-ttanttorik proatu gabe ere! Orregaitik, ez dio lotsik emanen bere joana larru gorrian bestean aurrean azaltzeak.

Benetan eskertzen dizugu, Iñaki!

**Iñaki
albisu.**

Zuzendaritzak.

Amasei urte nituan. Denak ekin oi zioten zurruteari, eta edate-kontu ontan nagusi ziranak obeto begiratuak-edo izaten ziren. Ala iruditzen beintzat neri. Neurritik gora edate au eguneroki gauzea izandu zen gure zaarren artean.

Ta nik ere ortikan jo nuen. Ala ez egitea izango zen arritzekoa nerekin nere nortasunik-eza gogoan euki ezkeri; ez kemen eta ez borondate pillako gizon oietako bat baiño ez bainintzen. Gaiñera, edariak tenplean eta bizi-bizi jartzen ninduen. Beraz, nere nortasun eskas eta aularen bateak urratzeko zanga-zanga zurrut egitea baiño bide aproposagorik ez beretzat, eta orduan bai ekiten niola gogotik nere esperientzi moskorgarriari.

Zapoaren gisa puztutako moskor ustel oietakoak nazka ematen zidaten, baiña ba nekien nik zer egin bear nuen: alik ondoen bizi. Ta ontarako ezer oberik ez edaritik jotzea baiño, noski.

Laister ninduzun erriko gamberroen nagusi, baiño baita familiarentzako prolema galanta ere. Lagunen jolasgarri-edo xeblebre oietako bat nintzala sifistu arazi zidaten, eta ori neri gustatu egiten. Era berean, konturatu nintzen baita ere alkoolaren laguntzarik gabe ezin nindekeala irauan nere maillan eta egi au jakiteak zurrut bidean aurrera jarraitzea bear-tu ninduen. Gaiñera, gauzak ondo begiratura ez al zegoen ondo nere nortasun motel edo bildurti ura alkool ez bizkortzea?

Gogotik edaten nuen. Nere gorputza ordea, aguante aundikoa izaki, eta erruz bear nuen moskortzeko. Baiño arrapatzen nuen alare geien-tsuenetan galanta.

Bein baiño geiagotan zerbait bildurtu ere egin oi nintzen, baiña onela esan oi nuen nere artean bildurrak uxatzeko: "Zeifen ederra ta atsegifia dan berotasun au bizitzea: ordikeria, motell, gozotasunik gozoena duk... kontu pittin bat euki bearrean nauk, baiñan etzegok presarik oraindikan. Gero bai... gero zuzenduko nauk".

Urteak joan eta urteak etorri, nik lengo lepotik burua. Aita il zitzaidan, eta ia ez mintzen konturatu ere egin. Illotz aren aurrean edaria erabat uzteko erabakia artzeko gogoak emanda egon nintzen. Baiño ez nuen batere alakorik egin. Bildurrik geiena nere osasunak ematen zidan. Moskorkerian ez nuen arkitzen estrifeko gozotasunik eta atsegifik. Osasuna berriz, gero ta aulagotzen zijoakidan. Baiño era ontantxe jarraitu bearko nuen ziurki —eta bearko!— alkoola arnasa bezin bearrezko bai-nuen.

Kanpotarren ustez kaiku aundi bat baizik ez nintzen. Alperrontzi aundi bat. Etxean berriz monstro u baten antzera jokutzen nuen.

Etxetik kanpo betiko itxurak egiten jarraitzen nuen: bizimodurik ederrena aukeratu duanaren itxurak. Kanpotarren ustez prolema gabeko gizona nintzen, iztuna, alaia... Etxean ordea neroni nintzen, eta ni ez nintzen olakorik ezer, oso besterik baizik.

Nere alaitasuna etzan axalekoa eta itxurakoa baiño. Espirituz eta gorputzez zearo erorita dagoen bat ninduzun soil soilik. Ta nintzen bezela nere buruaren aurrean azaltzeko kemenik ez, eta egunero nere nortasuna alkoolez aldatu bear nere buruari eutsi al izateko...

Moskorkeri sail baten ondoren nere gorputzari ezer edaten ezifiekogertatzen zitzaionean, etzenduen ni bezin izaki trakets, ozipintsu eta errukarririk arkituko.

Ogeitamar urtetsu nitualarik eldu zitzaidan neri inpernu beltz au: amets nazkagarri batzuk, eutsi ezifiekogertatzen zitzaionean, etzenduen ni bezin izaki trakets, ozipintsu eta errukarririk arkituko.

Alaxe —il zorian— nerez ezertarako gauza ez ta senide batek laguntzen ninduelarik Madrilleko Zoro-Sanatorio batera joan nintzen; ez ordea moskorkeria uzteko asmoz, nere bizikera errukiarentzat justifikazio baten bila baizik.

Ordurako —ogeitamar urte nituen— etxetik betiko alde egitea erabakia neukan.

Iru illabete an igaro ondoren, nere gorputza erabat desintoxikatuta, errira biurtu nintzen: berriz ere nere etxea, nere lantegia, nere lagunartea... Nere nortasun berriak antxe neurtu bearko zituan bere indarrak, alafede!...

Leengorik ez zitzaidan berriro gertatuko; edan bai, edango nuen, baiña neurritz; izan ere etzegoen zurruteari uko egiteko arrazoirik. Gaiñera, nere anima eroriak ba zeukan gozagarri baten premia. Eta alaxe, neurritz nebillen edariarekin; baiña beñola, zazpi bat baxoerdi sartu ondoren, zera pensatu nuen, alegia obsesioren baten mendean bizi ez ote nintzen... "Ura dena joan uan —nion nere artean— aaztua zioz ura...

Zergatik ez edan pixka bat geixeago, pixka bat bakarrik'... Eta geiago edan nuen, eta geiago eta geiago... Ta antzifia bezelaxe, izugarritzko moskorra arrapatu azkenean.

Lotsatuta, zapalduta, ezereztuta gelditu nintzen. Gaurtik aurrera ezta alkool ttantta bat ere geiago —esan nuen nereko.

Dantza-etxeak, tabernak, kaleak, nere lenagoko jolastoki guztiek orain bildur ematen zidaten: alkoola palta bainuen. Etsi ezifiek bakar-dade artan nere miseria egunetik egunera gorriago ikusten nuen; animaz ez ezik soifuez ere zearo jota nengoen: ainbeste moskorkeriz gibela erabat gaixotuta baineukan. Bizikera errukarri ura nolabait bukatzeko nere burua iltzea ere pentsatu nuen amaika bider.

Etxetik lantegira, lantegitik etxera, eta noizean bein sendagillearen-gana. Olaxe urte ta erdi gizartetik igesi. Ori bai, alkoola probatu gabe-rik, baiña pozik gabe, beti ozpin arpegiarekin eta ifun atsedetik arkitu ezifiek.

Nere adizkide batek ala naita Esport-espedizio bati alkartu nintzaion. Eskursioaren ondoren, meriendatzerakoan, norbaitek esan zidan ardo apur batek ezin zezaikedala gaitzik egin: edateko... eta edan egin nuen piska bat. Eta esan bezelaxe, kalterik egin ez ezik askozaz obeto sentitu nintzen, eta beste pittin bat edan ondoren zurrutean jarraitzeko deabru-kerizko leia sortu zitzaidan... Moskortzat jo nuen nere burua eta egun-dokoa arrapatu nuen.

Monstruo bat nintzela sentitu nuen. Eta aurrerantzean alkoolik edan ez banuen ere, bere mendean bizi nintzen: beneno ura zan nere izakia-ren errege.

Izututa bizi nintzen eta bizitza eraman ezifiekoa zitzaidan. Etxekoek nere alde al zuten guztia egin zuten: kontseju eman, animatu... Baiña ondotox nekien nik aiek ezin zezaketela konprenittu nere barruko traje-dia, nik ere konprenitu gabe bizi nuen trajedia latz ura.

* * *

Bein moskorra izandako batekin izketan ari natzaitzu. Alkoolismu prolema onetzaz beti lanean, nerekin mintzatzeko gogo bizia omen zeukan. Alkoolikoa zen bera eta familian beste bi zeuzkan gaitz onetxek berak joak. Nik zerbaitetan erakutsi ta lagundu nezaiekela iruditzen zitzaion nunbait. Berealaxe, beste ifun eta ifnoiz sentittu ez dedan bezelaxe konfiantza eman zidan gizon arrek. Errespetoz eta biotz on guztiz mintzatu nintzaion ni ere, eta alkarrizketa aren bukaerarako nere laguntza guztia eskeifii nion. Moskorra izandako lagun arek onela zidan erabat emozionaturik: "Zenbat on egin dezakekan eu bezelaxe pake ori,

lasaitasun ori arkitu ezifik dauden gizagaixo oien alde!... Zenbat balio dezaken ire esperientzi orrek besteen serbizioarako eskeintzen baduk!"...

Alkarizketa onek arrigarri berpiztuta bezela zidan anima eta nere begien aurrean almenez eta itxaropenez beteriko mundu berri bat nekusan.

Laister alkartu gifian biok gure alkoolismu prolemari ekiteko asmoz.

Ezagun genituan alkooliko guztienganatu gifien, danon artean alkar-tasun bat osatzeko, eta era ontan danok bat egifik, alkarri lagunduaz, moskorzeria menderatu al izateko. Olaxe bakarrik iritxi genezaken gure bizitzaren eta gure egite guzien jabetasuna. Laister gifian 30 lagun, eta larunbatero Bar bateko upategian izaten genituen gure batzarrak. Lema auxe aukeratu genuen: "Gure bizitzaz jabetu bear degu, eta ortarako noski, edaria menderatu". Alare ura etzijoen bide onetik: geientsuenak zurruteari zerraikioten eta moskortu egiten ziran.

Ba genekian Frantzian alkoolismu prolema au antzifiatik zala oso larria, eta ara jo genuen geron asmoak adieraziaz, aien esperientzia baliotsu izango zitzaigula-ta. Laister bidali ziguten "Alcoholicos anónimos"-kideari buruz mintzatzen zan liburuxka bat. Idatzi genuen liburutxo orren zuzenbidera, gure prolema guztia agertuaz eta laguntza eta informazio eske. Egun gutxi barru, emen dijoakizun onoko karta auxe idatzi ziguten:

"Jaun agurrari:

Paris-eko nere "Alcohólicos anónimos" edo deritzaion kidekoak illaren 13-an idatzi zenigun kartari erantzuko agindu didate. Barkatu, berandutxo bainabil; baiña espaiñeraz idatziriko dokumentazio billa ibilli naizelako izan da. Paris-en ez det topatu al izan eta EE. UU.-ero eskatu degu. Au dala-ta oraingoz frantzieraz bidaltzen dizu dokumentazioa gure sekretarioak.

Ni alkooliko bat nauzu. Alare ta AA-en programari eskerrak urteak dira edari alkooldunik edaten ez dudala. Alkooliko izan arren esan dizut, eta izan ere, alkoolismua gaurdaño erremediorik ez duen gaitz bat baidugu. Alkooliko bat sendatua izango balitz beste edozeiñek bezela edan lezake. Guk, alkoolikuok —nik us-te— alkool ttantta bat ere edaten ez dugun bitartean bakarrik uxatu al izango dugu gere gaitza, eta berak dakarzkigun ondorio tamalgarriak... Ondorio oiek ondo ezagutzen ditut nik, neronek bizi izan baiditut. Ba dira urte batzuek —artean ez nuen AA-kidea ezagu-

tzen— famili guztia ondatu nuen, lantegitik bidali ninduen eta ezertarako gauza ez nintzala arkitzen nintzan. Ez nuen batere dirurik eta ezeren ajolik gabe bizi nintzan. Ziur nago, berriz edaten asiko banintz ez nukeala denbora askoren bearrik orduan bizi nuen inpernu artaraxe biurtzeko. Ni ere españitarra nauzu, ta orregatik agindu didate zuri erantzuteko. Orkoa naiz, baiña 23 urte dira erbestean nabillela eta 38 urte ditut. Beraz erritik kanpo egin dedala esan leike ia nere bizitza guztia.

AA-ek erakutsi didatenez alkoolismua alkoolagana-ko alergi bat baizik ez dugu, baiña ordurako alkoola obsesio bat bezela zaio alkoolikoaren buruari... Baiño, jakiña, ez dira alkoolismu guztiak berdiñak: bakoitzak bere izakera du, bere nolakotasuna. Alare ba liteke gu nortasun aul edo okerren baten jabe izatea: gerekoiak, arroak, bizitzari aurrez aurre arpegia emateko kemen gabeak... Guk ez dugu edan edariak duten gozotasun ori sentitzeko; ainbeste aldiz moskortu bagera gure bizitzako zerbait atsekabe ta larraldi aazleko jokatu dugu guk era ortan. AA-en programa jarduten da gure prolemaren alderdi onetzaz ere.

Amabost urte moskorkerian ibilli ondoren etorri nintzen Paris-eko AA-kidera. Urte aietan nik nai izaten nuan zen, neurritz, besteek bezela edan al izatea. Baiña emen ikasi dedanez ori neretzako eziñeko bat da. Alkooliko batek aski du alkool ttantta bat bere izaki guztia zuzpertzeko, eta orduan borondaterik gogorrena, gogorik sendoenak ez du indarrrik "egarri" orri eusteko. Promesak egitea eta asmu zuzenak artzea alper alperrikako nuela esan zidaten, ta alaxe zen izan ere. Ogeita lau ordu batere edari alkooldunik edan gabe egoteko agindu zidaten, eta bitarte artan tristurak edo "egarriak" larritzen baninduen nere gaitzeko anaien batengana urreratzeko lenbaitten. Ondo konprenituko ninduen bati nere kezkek agertzea oso atsegingarri ta lagungarri zitzaidan eta, alaxen, ogeitalau ordutik ogeitalau ordura edateari uzten joan nintzaion. Illabete gutxi barru alkool obsesio ura, "egarri" ura itzaldurik nuen.

Ordutik ni ere al nituen alkooliko guztieri laguntzen asi nintzaien; izan ere, egin nuen zor ura ordainitzeko biderik egokiena ta bikaiñena uraxe nuen: besteek nere alde egin zutena nik besteen alde egin.

AA-ek diotenez baso bat gaiñez dago eta eun ez dire naiko. Edozein duzula zure prolema edo naigabea alkoolez ez duzu ittoko, aundiagotu bakarrik baizik. Ba dire mundu zabalean makiña bat alkooliko bakar bakarrik eta batere edan gabe bizi direnak idazten zaizkien karta batzuek direla bide. Zuri askozaz errexago gertatuko zaizu, noski, asko baizerate alkarri laguntzeko eta konprenitzeko. Sinetsi zaidazu, biotzeko lagun Iñaki, aurreneko basoaren lenengo ttantta da aski gu gaitzeko. Gezurra ba dirudi era ementxe dago ain zuzen, gure ta guretakoen prolema ta miserien iturburua.

Jakin dut ba duela Josep Kessel-ek liburu bat, "Alcohólicos anónimos" bere titulua. Alabearrez, españieraz ere itzulita egon bear du. Liburu auxe irakurtzeko kontsejua emango nizuke nik. Oso poliki omen dakar AA-kideen zera guztia. Ta ezer argitu bearrik bazenute, arren eskatzen dizutet idatzi zaiguzutela.

Pozik baiño pozikago lagunduko dizutegu. Eta jakin zuek zeratela guri mesede egiten diguzutenak; animagarri gertatzen baizaigu gure larrialdi eta egiñetan, guretako beste asko burruka gogor ortantxe bertan kementsu jokatzan ari direla jakitea.

Geroago konprenittuko dezu —naiz eta zuk bearbada oraintxetik sumatu— edariari uko egiten jarraitzeko era bakarra dela burruka larri onetan bat ez dabilleta bakarrik jakitea. Azaldu zaiezu, mesedez, gure gaitzeko anaieri biotz guztiz maite ditudala eta ez sentitzeko iñoiz ere bakarrik. Millaka eta millaka direla munduan zear ain gutxi ezagutua den gaitz auxe sufritzen dutenak. Nere aldetik auxe besterik ez da nik esan nezaiekena: gizon zoriontsu bat naizela. Ez ordea leen, alkoolaren atzaparretan preso egon nintzanean... Basarkada ermo bana danori, eta zuk lagun Iñaki —laga zaidazu onela deitzen— torizu nere biotzaren bero ta esker on guztia.

Manuelek".

Lerro autxek dituzu nik sekula guztian irakurri al izan ditudan xamurrenak eta jatorrenak. Arturiko erabakia betiko izan zen. Lertu bear zuala uste nuen nere izakera osoak pozaren pozez. Manuel ni nitzen eta ni Manuel. Ba zen izaki bat erabat ni zena... Millaka ta millaka izaki neri alkartzen zitzaizkidan; anaidi aundi baten zati nintzen eta lan aundi bat irikitzen zitzaigun mundu zabalean. Ura moskortasuna bizi nuen!...

Alkooliko nauzu. "Alcohólicos anónimos" edo deritzaion alkarteko kide. Ez nago alkoolizatuta, egona nauzu, baizik. Onek esan nai du ezingo dudala edan sekula edari alkoolidunik geiago, bere atzaparretan jausi nai ez badut berriro. Gaixo bat naiz. Berriro edateari ekingo banio alpe-rrikako nituzke morala ta nere asmo sendoak. Ez da edate amorru oni eutsi lezaiokean giza-indarririk.

Ba dakit ez naizela nere buruaren jabe, baiña etzait orregatik batere ajola; apal eta umulki, naizenarekin konforme. Edaten ez badut ez det sufritzen eta ez sufritu arazten. Gauza asko ikasi ditut eta gauza auen miraria dezu nere nortasunaren aldaketa sakon au. Ez kostatu gabe lortua noski. Zoriontsu ta normala izateko auxe nuela bide bakarra, bai, ta berari lotu natzaio. Ta kitto, zoriontsu orain.

Zuri, sufritzen dezun ori, ta besteak baiño ohea ez dut esaten baiño moskortzen ez dana baiño gaiztoagoa etzeran orri, AA alkarteak bere besoak zabaltzen dizkitzu. Bosteun milla gizon eta emakumek beren esperientzia eskeintzen dizute; danon artean ez dago prolema ori konpondu ezinik. ATZO-a ta BIARR-a ez daude zure eskuetan —bata joana baiduzu ta bestea berriz etortzeko oraindik. Orregatik GAURKO-an alegindu bear duzu ta bertan zure indar guztiak jarri, ta ikusiko duzu onela zeñien errex urratuko dituzun ain gogor lotzen zaituen eta zure gizatasuna galdue-razten dizuten alkoolismu amorratu orren kate sendo oiek.

Edaria utzi ta triste ta bakarrik, gizartetik igesi baldin bazabiltz berriz, idiki zaitez AA. alkarte ontara, ta berak jarriko dizkitzun bideetatik jarraituaz, batere kontu-ratu gabe, zure gaixotasunaren alderdi txar ori aldatu egin-

go zaizu, ta beste bat izatera elduko zera... Ala egin du 500.000 gizakiekin; auen artean 300 gipuzkoarrak gera. Beste alkooliko askorekin alkartzete oni eskerrak gertatzen da alkoolismu gaitz onek jotako gizonaren aldaketa au, bigarrenen jaiotza berri au. Ementxen dago, ain zuen, onen sekretua.

Zure bizitzako egun guztietarako auxe opatuaz, aurki arte zure benetako ta lagun berri dezun

IÑAKIK.

Laguntzeko beti prest, ona emen gure zuzenbidea:

Iñaki Albisu
Paseo de Colón 9, entresuelo, B.
Teléfono: 23000.
Donosti.

Durango Merindadeko Gerediaga Alkarteak, urtero, Euskal Liburuaren Azoka ospatzean, sari bat sortzea erabaki du. Sari hori emango zaio mami, azal ta kanorean Euskalerraren eza-gutzan aurrerapen luzea azaltzen duen liburuari. Aurten, SOCIOLOGIA Y PASTORAL DE UNA DIOCESIS (Duocastella, Lorca, Misser-en) idazlanarentzat izandu da.

unibersitarioak diote

Santiago ARELLANO HERNANDEZ
Josep M. PUJOL i SANMARTIN
Marta BARBA TOMAS
Valentín GOMEZ OLIVE
María del Carmen BANSELL
Francesc BOIX i MASRAMON
Rosa María ESTEVADEORDAL
X. R.

joseba intxausti-k.

Bai hauxe esan digute unibersitario horiek. Komentario aski egin liteke erantzunek azertuaz; baiña, gaurkoz behintzat, larru gorri horretantxe irakurtzea hobe izango da.

Galderak zabaldu nituenean, ba nekien, gutxi gora-behera, zer erantzungo zitzaidan. Neu ere etxe-barnean nabillelako ta neska-mutillok ezagunak izanik, nundik nora zebiltzan ba nekielako. Beste batzuek aukeratu banitu, seguraski erantzunak oso bestelakoak izango genituen.

Unibersidadea honelakoa den galdetuko didazute. Bai ta ez. Honelakoa ere ba da, honelako neska-mutilak ere (ta honela mintzatzen, ez nuke aurre-eritzien ziririk sartu nahi) ba ditugu ikastetxeotan. Geroxeago ikusiko duzutenez, honi nahiz hari galderak egin dizkiodanean, ez naiz beragana nik bezela pentsatzen duelako zuzendu, zuentzat leiho bat irikitzeko baizik.

Erlizioz eta politikaz, ideologiaz eta bizitzaz oso desberdina ditugu erantzuleak. Hala ere, ikus dezakezute, puntu batzuetan ados datozela denak. Akordio honek pentsarazi egin behar ligukela uste dut.

Ba da galdera bat guziek berdin erantzun ez dezaketena: erlijio-irakaskintzaren kalitateari dagokiona, alegia. Erljio-klaseak bigarren kursoan hasten dire, ta enkuetako gehienak, hain zuzen, bigarrengoak dire, ta ikastaroaren hasieran gaudela, irakaskintza hori ez dute oraindik ezagutzen. Gogoan har beza ohar hau irakurleak.

Egiatiak diren? Baietz uste dut nik; bat ez beste denak ezagutzen ditut eta guziokin izan ditut hartuemanak, erlijio-arazoetarako ez bada ere. Izenpetzea ere kosta egin zaie; gaia ez baida atsegifa aldizkari batean firmatzeko. Kostarren, bat salbu, guziek eman dituzte izenak. Ez dago, ba, ezer asmatuik. Nire asmoaren zehaztasun guziak eman dizkiodanean bakarrik izenpetu dituzte erantzunak. Eskerrak zor dizkiet.

Galdera orietatik zenbait puntu mojeri zuzendu behar litzaizkiekela esaten du batek. Hori ere egin liteke, ba...

HAUEK IZAN DIRE GALDERAK...

- 1 Zer esan dezakezu zure Jainkoarekiko sifiste ta usteeri buruz? Zein da zure jokabidea erlijio-arazoaren aurrean?
- 2 Katolikotzat daukazu zure burua, ta zein sentidutan? Zer esango zenuke Eleiza Katolikoaz?
- 3 Kristaua ahal zera? Zure eleiza aparte, zein jokaera behar litzakela uste duzu gaiflerako kristau eleizekin?
- 4 Zer derizkiozu zure istudio-lagunen fede ta erlijio-bizierari?
- 5 Zure erlijio-sinismenarekin lelalki jokutzen duzula esango zenuke?: fedearen parean daramakizu zure bizitza ala zure eritziak ez dute zuzentzen bizitza?
- 6 Apaiz baten aurrean nola erantzuten duzu zure barruan?
- 7 Nola ikusten dituzu Unibersidadean apaiz istudio-lagunak? Zer daukate onik eta txarrik?
- 8 Ifioiz nahi izan dituzu edo gustatuko litzazkizuke hartue-manen batzuek apaiz horiekin? Ta nola?
- 9 Erlijio-bizitzan behartuz izan zerala uste duzu ala nahi zenukean libertadea aurkitu duzu?
- 10 Zer diozu Unibersidadean erlijioa erakusteari buruz? Nolakoa da irakaskintza hori?
- 11 Eleizaren Unibersidade batean ikasterik nahi zenuke, ta nolakoa nahiko zenuke Unibersidade hori?
- 12 Ontzat ematen ahal duzu Eleizak Unibersidadean, Estadua-renetan jakiña, lan egitea. Zein kondizio jarriko zenituzke on-hartzeko?
- 13 Ba duzu zerbait gehiago esatekorik Unibersidadeko erlijio-bizitzaz ta zeureaz?

... ETA HAUEK ERANTZUNAK

JAINKOA BEHARREKOA DUT...

- 1 a) Jainkoa beharrekoa dut: nire bizitza finkatzeko, nire burua ta inguru osoa balioduntzeko. Jainkorik gabe ezereza, gora-larria, desesperantza, bakardadea aurkitzen ditut.
- b) Pentsamentu ta ekifia elkar-ganatzeko ahalegin etengabea da nire bizitza.
- 2 a) Katolikoa naiz Jainkoaren graziari esker.
- b) Katolikotasunak ematen dizkidan bideak beharrekoak ditut Jainkoarekin hartuemanik izateko.
- d) Jainkoak berak eraikia izatea da Eleizagan aurkitzen dudan zerarik haundiena: bere bitartez gizonak salba egin ditezke.
- 3 a) Bai, Jainkoari eskerrak.
- b) Tolerantzia.
- 4 Estudianteak, ikasle bezela, gehienak eszeptiko dire, indiferenteak. Baiña estudianteak, beren norberetasunean, bihotzean, nahiko erlijiodun dituzu.
- 5 Saiatzen naiz.
- 6 Hiru ideia ditut oso maiteak:
1. Gehien nahi nukena: adimen zorrotz bat.
 2. Gehien eskertzen dudana: katolikotasuna.
 3. Gehien miretsia: apaizgoa.
- 7 a) Lagun bezela.
- b) Onena: gaur duten kultura-aberastasun beharra. Okerrena: apaizgoa, galdurik, edozein Urlia jaun bat gertatzea.
- 8 Apaiz bezela ba dute niretzat interesik franko.
- 9 Ni ez. Gaifnerakoak geroz ta gutxiago.
- 10 a) Eleiza, bere dotriña, orori erakutsi behar zaio. Estudiantetoi ifiori baiño gehiago. Gehienak katoliko direnean,

Santiago Arellano **HERNANDEZ**
Fil. 2º — 19 urte

gehien hauetxek eskatu egin behar dute. Katoliko ez dena ez bedi behartu.

- b) Pedagogia aldetik nahiko eskas daukagu, ez baitzaizkio merezi dituen balio at bikaintasunik eman.
- 11 Egiaz eta benetan Eleizako guziona balitz, bai.
- 12 Ez dut on-hartzen ifork politika-kutsatuko dion Unibersidaderik. Hamargarren galderari erantzunak balio du baldintza bezela.
- 13 Gure unibersitario-bizitzari buruz zera esango nizuke: estudianteok egiaz eta pentsatu bezelaxe agertuko ahal dugu gure barrengo erlijioa.

* * *

JAINKOA, URRUNGO ZERBAIT...

- 1 Jainkoaz ez dut oraindik sinistesistema bat osatu. Niretzat urrungo zerbait tajugabea da; bere esistentziaz ere ez naiteke zihur egon. Erlijio-arazoaren aurrean nire egoera nahiko illunxka da, orain-

dik erabat "heldu" gabe nagoelako hain zuzen.

- 2 Nire burua ez dut katoliko sentitzen. Aurreko puntuan esan dudanagatik, katolikotasuna etika-aldetik bakarrik juzga dezaket, eta honela ez naiz hari eleiza bat epaitzen.
- 3 Ez. Askatasun osoa edozein sentidutan: erlijio guziekin ta edozertan.
- 4 Arazo hau ez dugu askotan ikutu noski, baiña katolikoan artean taldetxo on-on bat ikusten dut, erlijio-kezka bizikoa. Hala ere, gehienek Espainiako katolikotasun eza-guna dutelakoan nago.
- 5 Lehenean puntuan esan dudanagatik, ez dezaioket galdera honi bai nahiz ez batekin erantzun.
- 6 Mikaztasun gabeko ironia bat eta hala ere errespetoa. Hau guzia nire aiurriaren joera bat dela uste dut.
- 7 Unibersidadeko klero gaztea benetan ona da alde guzietatik. Gaurko ta inguruko arazoetan oso gogotsu ikusten dut ekiñean, gehien behintzat.

Josep M. PUJOL i SANMARTIN
Fil. 2º — 18 urte

8 Ez, oraingoz.

9 *Erlijio-eginkizunetan behartua izan naiz (ta nor ez gure herrialde honetan) familiaren, agintarien, edukazioaren aldetik eta edonundik behartu naute begiramenik gabe. Hauxe da katolizismuak barnean utzi didan erremen bat.*

10 Ez dut fisisik ezagutzen. Bai ahal dago iñun?

11 *Ez. Eleiza katolikoak, eta beste edozein sektak, erlijio-irakaskintza ez bada, ez dut uste ezer irakatsi behar lukenik.*

12 Ez dut uste lan horretarako arrazoirik dagoenik.

13 *Erabateko porrot bat dela, beste enkuesta batzuek adierazi duten bezela (erlijio katolikoaren Unibersidadeko irakas-lanari buruz hari naiz). Puntu askotan Eleiza bere ur-bidetik irtena dabiltelea uste dut. Enkuesta honetan ez da mojarik sartu, ta tamala da; benetan interesantea izango litzakela esango nuke.*

KRISTO'GAN JAINKOA

1 **Ba dut federik Kristo'gon. Kristo gure anal dela sifisten dut, Jainkoaren seme ta Aitaren erakusle. Aita ez genuen Bere aurretik ezagutzen, eta Jainkoaz ideia oker bat geneukan.**

Beraz nire bizitza-jokabidea geroz ta gehiago Bera ezagutzeta da, ez adimenaren ahalegiñez, maitasunak ezagutzen duen erara baizik.

2 **Katoliko hitzak guzietikkoa, unibersala, esan nahi badu, ni eleiza katolikoaren barnean nago, ta berritzeak ez dire egiten eskaparate-erakusketaz eta gogorkeriekin, norberaren jokaeraz, eta ejenploz baiñio. Eleiza katolikoak pekatu asko egin dituelakoan nago, baiña barkatuko zaizkio, asko maitatu baitu.**

3 **Bai, kristaua naiz. Eginbiderik egokiena elkar maitatzea dugu, Berak maitatu gintuen bezela; beraz, bakoitzarekin elkarrizke-**

* * *

Marta BARBA
Fil. 2º — 19 urte

ta konfiantzazko bat behar da, polemika-burrukak bazterturik.

4 Sinisten ez dutenak baldin baditugu, ezagutzen duten Mesias amesten zutena ez delako da. Gehienek "sinisten" dute: Jainkoarekikoa nolabait egiten dute bakarrik. Taldetxo batek etika lege zihurrak ere ba ditu. Ta azkenik talde ttikiago batek ahalegiñak egiten ditu Jainkoa gehiago ezagutzen.

5 Nere fedea bizitzara eramaten saiatzen naiz, baiña ez behar litzaken neurrian, eskatzen zaidan araura baizik.

6 Sinpatiaz eta agurtzeko gogoarekin. Ta galdera bat egiten diot buruari: kristau izango ote da?

7 Nire ustez, apaizak bere bizitza gizonel eman die ta ez jakintzari. Honegatik, ikasketak gizatasuna hobeki ezagutzeko direnean eman litezke ontzat apaiz batengan.

Intelektualismu arrazionalista bat kaltegarri zaio apaizari. Gehiegi billatzen dituzte aurre rapena ta ondore positibuak; egintzetan gehiago pentsatzen dute personengan baiño.

Beren presentzia baliotsua da, ikasle-gazteriaren urbil dauden neurrian.

8 Bal, interesatu zaizkit, baiña be-

ren fedearen testigutza jator bat zekarkidatenean.

9 Tajugabekeria askok zigortu naute Eleiza-barnean: ezin dut jaunartu ogi-ardocean; burua estalia eraman behar dut; igandectan, pekatupean, Meza entzuztera behartzen naute; aitortza tabike bat tarteko dudala egin behar dut; neska naizelako ez dezaket Mezarik lagundu ta, bin-bitartean, mutiko koxkorrik kaxkarrenak egin dezake...

Jeneralean: kontzientzia-askatasun bat falta zait, fede personal bat borondatez aukeratzean. Mundutar eta erlijio-izadien arteko nahasketa. Fedegatik persegituak izateko libertaderik eza.

10 Erabat libreza izan beharko luke, borondatez sortutako talde-entzat. Eta ez asignatura bezela.

11 Ez. Eleizagandik ez dut titulorik espero, ezta irakaskintzarik ere. Baiña benetan gustatuko litzaidake Eleiza-komunidade bat.

12 Ez dut ifiola ere —ofizialki ontzat emanda— on-hartzen. Eleiza, kristau-komunidade bezela, ordea, beharrezkoa iruditzen zait bertan egotea.

13 Unibersidadea kristaugintzarako lur gozoa dela, baiña artzaia falta zaio.

JAINKOA? MINBIZIA...

- 1 Giza-bertuteak hazten joan dira: gehiegi haztera joan direnean, minbizia agertu da. Erlijio-ara-zoa hiperbirtuosismu bat da.
- 2 Ez daukat nire burua katoliko-tzat, hesi jakin batzuen barnean. Eta Eleizak Jesukristo'ri jarraitu behar liokela leialki uste dut.
- 3 Umanista naiz eta, bizitza osoan iraungo duen egintza-errespon-sabilidaderik ez dugula pentsa-tzen dut, eta honek bizitza axa-letik egitera eramaten gaitu.
- 4 Gehienetan fede hori ez da kri-tikapetu, ta honegatik gazte-sa-soi batean aurkitzen da.
- 5 Ahalegintzen naiz nire gizazale-tasunarekin lan egiten.
- 6 Ezagutzeko gogoia.
- 7 Gizon direlako, beren Eleiza-in-darrez baliatuaz gora igo behar ez luketen lagun bezela. Giza-izaki bezela ikusten ditut eta

istoria-jakintza haundirik ez dutela.

- 8 Elkarrizketarako interesatu zaiz-kit.
- 9 Aurkitu ditut nire oztopoak, no-labait garaitu badituz ere.
- 10 Irakasletza on baten ahalmenak kaskartzea dela.
- 11 Ez; besterik ezean joango nin-tzake.
- 12 Ez, Eleizaren eginkizuna ez bai-ta.
- 13 Sarri autokritika, ortodosia ta konprensioa falta zaizkiola.

* * *

“...ELEIZAREN ARAZOAK KEZ-KATZEN NAUTE”.

Valentín GOMEZ OLIVE

Fil. 2º — 18 urte

1 Egiz, Jainkorik ba dela sinisten dut, babesten gaituen izaki bat; beragandik gatoz, beragana goaz. Nire jokabidea billaketa bat da: nola ta zergatik daramakit erli-

- jioa; nire zalantzat argitu nahi nituzke ta, honela, positibukiago ulertu nire sinismena.
- 2 Argi ta garbi:nire burua katoliko sentitzen dut; nire Eleizaren arazoak kezkatzen naute, ta Aita Santuaren asmoekin bat nator. Bestalde Eleizak zera asko berri-tu behar ditu, denborak aldatzen doaz eta gure bizierara gehiago makurtu behar litzake. Dударik gabe, Konzilioan lan asko egingo da betebeharronetan.
 - 3 Bai, sinismenez eta bataioz kristaua naiz. Oñifazea ta damua aparte, izan dezakegun jokabiderik onena ta egokiena apaltasuna delakoan nago: gizon geranez, daukagan akatsak aitortu ta zuzentzeko erabakia izan.
 - 4 Batzuek sinismen eta bizitza irmoz ikusten ditut, zerbait egiteko gogoarekin, jedea ekintzara eramateko egarriz. Beste zenbait hona ta hara eramanak dabiliz, ta, azkenik, gure Eleizaren akatsak, frankil ta mogitzeke, ikusten dituztenak ere ba dauzkagu; inguruko pekatuak alper-lanerako aitzaki ederrak gertatzen zaizkie honelakoiei.
 - 5 Bai, sinisten ez duguna pratikatzea eziñezko gauza da noski. Auzoak bultzaturik diardutela, hori da okerreña. Hobe da legea ez bete, barne-arrazoirik gabe egin baiño. Nik, benetan sinistu ta argi ikusten dudana pratikatzen dut, eta oraindik hain argi ez dagoena, Jainkoa lagun, ikusten joango ahal naiz. Fedea billatu egin behar da: geuk izan behar dugu billa goazkionak, eta ez beste gabe sinistu (ohitura halaxe dela-ta), betiko horretantxe gelditzeko.
 - 6 Errespetoa ta mirespena.
 - 7 Benetako lagun bezela ikusten ditut; eta jentearekin hartuemanetan, unibersitarioen arazoak bizi nahirik eta gure moral-kezkek argitzen ikusten ditudanean miretsi egiten ditut. Benetan onuragarria dela uste dut lan hori: honela, egunean-egunean biziago atzematen dituzte prolemak, ta apostolutza lan haundi bat egin dezakete, egingtaz eta aholkuz, horretarako asmorik daramakitenean behintzat, asignaturak ateratzeko asmo soilarekin ez doazenean.
 - 8 Eztabaida ta elkarrizketa batean apaizarekin hobeki irikiko zera, kursoko beste edozein lagunekin baiño, eta askoz hobekiago lagun dezaizuke: horra lanbide haundi bat.
 - 9 Ertlijio-libertade osoa daukat; ertlijioa norberagandik datorrena da ta ingurukoek ez dezaizukete eza-

rri. Ez dezake inork gure erlijioa praktikatu, gauzak norbere buruz ikusten ez baditu.

10 Nahiko eskasa.

11 Unibersidade libre bat nahi nuke bereziki, ta ez dut uste askatasun hori Eleizaren batean aurkitu nezakenik.

12 Bai on-hartzen dut, lan haundi bat dauka, baiña beti jentearen askatasuna errespetatuaz ta inor oinperatu gabe.

13 Erlijiotasunean "denetatik dauzka-gu Jaunaren mahastian", ta zoritxarrez frutu mikatzak ere bai, neu barne.

* * *

"KATOLIKO NAIZ, GEHIEGI PENTSATU GABE"

1 Ez dire uste irmo ta erabatekoz egindako siniskizunak. Jainkoa sinisten dut: tradizioz eta "eze-rez absolutuaren" bildurrez gehiago, fede bete ta sendoz baiño.

Nire erlijioarekiko jokaera, sakratu bezela sentitzen dudan zerbaitenganako urduritasun ta itzala da, baiña sakratu horrekin ez dut nire burua lotuegi ikusten. Interes larri ta urduria duen egoera da nirea.

2 Katoliko naiz gehiegi pentsatu gabe. Oraindik ez diot nire buruari serioki galdetu. Oraifarte burokrazia-erakunde bat bezela ikusten nuen Eleiza: geldia, kezka ez baiña hotz, nire aitona baiño konserbatzailleago. Oso ongi prestatua, oso dogmatiko (zanpatzaillea). Orain, zerbait jatorragoaren billa doa: herrikola-go, pobreago, ebanjeliotiarrago dator.

3 Erabat iriki gakizkien. Batzen gaituenari, banatzen gaituenari baiño gehiago begiratu. Geure akatsak aitortu: maitasuna, karidadea, apaltasunak behar dire...

4 Batzuek, gutxik, sinisten ez dutena agertzen dute. Beste batzuek modan dabillen eszeptizismu hori dute. Gehienek jokaera garbirik ez. Gutxi batzuek fede ta itxaropen indarberrituak dituzte.

Francisco BOIX i MASRAMON
Fil. 2º — 19 urte

- 5 Ez, ez daramat nire burua fe-dearekin eskuz-esku.
- 6 Begira: pobre, pobre, oso pobre bizi den gizona...
- 7 Zerbait urrunduak eta konserbadoreki lagunengandik alduenduak.
- 8 Nahiko prolema ditut: guziek bezela. Egizko kristautasuna, kristautasuna ta egizaletasuna, ezkontza ta moralidadea, ta, bazez ere, "handikaldeko" prolemaz eta Jainkoaren izan-diteken-tasunaz mintzatzeko nahi nituzke hartu-emanak apaizekin (orain darabailzkit arazo honekiko buruhausteak).
- 9 Ez, ez dut uste behartua naizenik.
- 10 Irakastea ideia on eta interesduna dela esango nuke. Hori bai: nahi duenarentzat izan beharko du ta deia erabat librea. Nolakoa denik ez dakit.
- 11 Bai, ez litzaidake gaizki iruditu, hala ere ez nuke aukeratu. Ez dut osoki sinisten Jainkoaren esistentzia, ta hau lehenen kondizio dela uste dut horrelako Unibersidade batean ikasteko. Kristo'ren kristautasunez beteriko Unibersidadearen ideiak poz bizitan jartzen nau.
- 12 Bai, on-hartzen dut, izan ere —nire iritziz— gizona osorik edukatu behar baita ta, ez da

zalantzarik, abere erlijiodunak gera.

- 13 Lehenbizi, erlijio-irakaskintza erabat librea izan dedilla. Unibersidadeko kristauek beren fede-a barne ta kanpo ager dezatela. Komunitade-elkartzeak egin ditezela kristauen artean. "Testigutzaren" apostoladu bat izan dezagula.

Norbere barnean erlijio-bizitza isli, iraunkor ta maitale bat eraman. Hitzak urri, ekifia luze. Elkartzeko lekuak behar ditugu: barnetik hitz egiteko, nere buruari entzuteko, entzuna izateko. Vatikano'ko II Konzilio interesante honi buruzko elkarrizketak.

* * *

KATOLIKOA NAIZ

- 1 Piskaka-piskaka mamitzen doaz mire sinisteak. Erlijio-arloan sarritan billa nabil oraindik.

- 2 Nire burua katolikotzat daukat. Eleiza katolikoak erabat beraganatzen nau, baiña, nire inguruan siniste hau teorikoago da bizitzakoa baiño.
- 3 Gaiflerako kristau eleizekin iriak izan behar dugu ta ulertzen ahalegindu.
- 4 Kursoan hainbeste izanik (500 hor numbait), erlijio jokabide asko aurkitzen ditugu bertan. Baiña edozein bidetatik doazela, erlijio-kezka haundi bat idoro diteke guziengan, eta egia iruditzen zaiena billatzeko gogo bizi bat.
- 5 Erdizka-erdizka.
- 6 Errespetoa.
- 7 Kurso hasieran apaiz bezela ikusten nituen bakarrik; baiña laister, elkar ezagutzean, lagun bezela. Guretzat daukaten onena: apaiz bezela bestek ez lez lagun dezaiguketela, ezagutzen gaituztelako konprenitu ere egi ten bai-gaituzte. Okerrena: askorengan ikusten den isil-itxitura apalzarekin aurrez-aurre ikustean, klase berean daudela ko-edo. Denborak garbitzen du errespeto hau noski.
- 8 Bai izan ditut eta gogoko zaizkit hartuemanak apaizekin erlijio-zeregifetarako.
- 9 Ez dut uste ezertan behartua nagoenik: askatasun hori aurkitu dut.
- 10 Ez dut ezagutzen erlijio-irakas kintza hori.
- 11 Neuk, pertsonalki, ez dut ezagutzen Eleizaren Unibersidadetik, eta ez dakit beraz zein erakunde duten.
- 12 Erlijio-irakaskintza ematea ongi iruditzen zait, baiña ez dut uste beste edozein asignatura bezela eman ditekenik bizitza osoa zuzenduko dizun hori.

* * *

JAINKOA BAI,
BAIÑA KRISTAU
EZ

Rosa María ESTEVADEORDAL
Fil 1º — 19 urte

1 Jainkorik ba da, baiña nire Jainkoa, nik sinisten dudana, ez da

*konserbatzaillea, Jainko kreator-
zaillea bakarrik da, ta bere izen zu-
zena Zientziak emango dit egunen
batean. Erljio-arazoan erruki
haundi batekin begiratzen diet,
adimenez eskas izanik, buruare-
kin pentsatzeko erarik dutenei.*

- 2 Ez naiz iñola ere katoliko senti-
tzen. Sinistueziña ere sinistarazten
duen organizazio bat da Eleiza
katolikoa.
- 3 Ez naiz kristaua, baiña siniste de-
nak errespetatzen ditut.
- 4 Beren sinisteeekin leialak direla
uste dut, kontzientziari jarraitzen
diote.
- 5 Jakiña, norberak sinisten duena
ez betetzea absurdu bat da, zer-
baitegatik gera libreak pentsamen-
tuz.
- 6 Apaizak pertsona bezela ikusten
ditut eta ikusera horri dagokionez
tratatzten.
- 7 Aurreko puntuan erantzun dion
galdera hori. Aurkitzen dudarik

*okerrena: apaizak justizia predi-
katzen dute, ta esamiñagaraiean
kopiatu egiten dute: anekdota bat
bakarrik da.*

- 8 Apaizen artean adizkide onak
dauzkatz, lagun bezela batez ere.
Billatu, gaur ez ditut behar eta
ez ditut billatzen.
- 9 Unibersidadean asignatura derri-
rreko bat —teoriaz bakarrik dela
ere— dagoela, ezin esan erlijio-li-
bertaderik daukagunik.
- 10 Absurdu hutsa aurkitzen dut, bai-
ña bearrekoa fededunentzat.
- 11 Jakiña, ezetz erantzun beharko.
- 12 Ez dut on-hartzen Estadu-Eleiza-
ren arteko binomiorik; ez zait, be-
raz, gogoko Unibersidadean bikote
hori.
- 13 Asko pozten nau batzuen ahalegin
horrek: ohituraren eta tradizioak
ezarri digun erlijioaren gain nahiz
kanpo, erlijio-irakaskintza ta pra-
tika berria iristen saiatzen dire-
nen egiñahalak alegia. Katoliko se-
glarrekin, Bibliaz-eta, eztabaidarik
ezin izana ez zait gustatzen, Es-
kritura Santurik ez batizute ezagu-
tzen. Nik elkarrizketa billatzen
dut, baiña ez da posible; edozein
Urliak idatzi zuela Biblia esaeizu,
ta sinistu egingo dizute.